

Jakin^{eus} 215 216

herria kultura hizkuntza uztaila-urria
2016

Kultura autodeterminatuko balitz

Kulturalki buruaskitasunez jokatzea egingarria izan dadin, zer behar da? Sortzailtza eragiletza izatea? Erakunde publikoekin harreman modu berriak lantzea? Kultur eredu askotarikoak aintzat hartzea?

IBAI IZTUETA
HAIZEA BARCENILLA
HEDO I ETXARTE

EIDER RODRIGUEZ
MAIKA ETXEKOPAR

ANE RODRIGUEZ (Tabakalera) · LEIRE LOPEZ ZILUAGA / OIER PLAZA (Astra) · IZARO ZINKUNEGI (Azperritiko Kultur Mahaia) · NEREA FILLAT (Katakarak) · PAULINE GUELLE (Euskal Herria Zuzenean) · GAIZKA AMONDARAIN (Hala Bedi Irratia) · NORA AURREKOETXEA / IZARO IEREGI / IRATI URRESTARAZU (Okela Sormen Jantegia)

EGUNEN GURPILEAN

MIREN ARTETXE · HENRIKE GALARZA
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

Jakin^{•eus} 215
216
herria kultura hizkuntza uztaila-urria
2016



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakín Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Kultura autodeterminatuko balitz

11 Cultura vasca vs Euskal kultura (?!)

Ibai Iztueta

«Euskal kultura euskaraz baino ez da posible, ala espainolez nahiz frantsesez ere bai?» galderari diskurtsoaren materialtasunaren ikuspegitik erantzuten ahalegintzen da.

29 Kultur politikak: paradigma aldaketa?

Haizea Barcenilla

Azken 25 urteotan EAEn jarraitu diren kultur politikak aztertzen dira, garapen horrek paradigma aldaketa bati erantzuten diola proposatuz, eta egungo egoeraren diagnosi bat eginez.

47 Bi gogoeta politikatik arteari buruz

Hedoi Etxarte

Artearen eta politikaren arteko eztabaida autonomiari buruzkora murriztetik harago, arte, politika eta ekonomiaren arteko tentsioa aztertzen da bi adibide historikotatik abiatuta: SESBen lehen urteak Groysen arabera, eta Grezia eta Erroma Arendten sintesietatik.

63 Kultura politikaren lehen lerrora

Eider Rodriguez

EAEko kultur politikaren egungo egoeraren diagnosiarekin batera, etorkizunerako erronkak eta neurri proposamenak eskaintzen dira.

75 Predeterminazioak eta indeterminazioak

Maika Etxekopar

Sortzailearen 'predeterminazio' eta 'indeterminazioei' buruz egi-tzen da gogoeta, eta arteaz, herriaz, herri kulturaz, euskal eta fran-tses kulturen eraginaz, 'gure' eta 'arrotzaren' arteko dialektikaz.

- 85** Tabakalera
Ane Rodriguez
- 91** Astra
Leire Lopez Ziluaga • Oier Plaza
- 99** Azpeitiko Kultur Mahaia
Izaro Zinkunegi
- 111** Katakarak
Nerea Fillat
- 121** Euskal Herria Zuzenean
Pauline Guelle
- 127** Hala Bedi Irratia
Gaizka Amondarain
- 143** Okela Sormen Lantegia
Nora Aurrekoetxea • Izaro Ieregi • Irati Urrestarazu

EGUNEN GURPILEAN

- 153** Kultura
Nagore Amondarain
- 162** Ekonomia
Henrike Galarza
- 170** Soziolinguistika
Txerra Rodriguez
- 176** Telepolis
Gorka Julio

KONTRAZALA Unai Iturriaga

IF THERE WILL BE SELF-DETERMINATION IN CULTURE?

Basque culture vs. Euskal culture (?!)

Ibai Iztueta, writer and Doctor of Cognitive Science, attempts to respond from the materiality standpoint of discourse to the following questions: «Is Basque culture only possible in the Basque language, or is it also possible in Spanish or French?». [Ibai Iztueta](#)

Cultural policies: change of paradigm?

Haizea Barcenilla, art critic, professor of history of art and member of the Jakin Editorial Board, analyses the cultural policies that have been developed in the Basque Autonomous Community over the past 25 years, by suggesting that this development is in keeping with a change of paradigm and conducting a diagnosis of the current situation. [Haizea Barcenilla](#)

Two reflections from politics about art

The writer and musician Hedoi Etxarte, beyond confining the debate concerning art and politics to a debate about the autonomy of art, analyses the endless tension existing between art, economics and politics via a study of two historic cases: the early years of the USSR from the standpoint of Boris Groys, and the cases of Greece and Rome via the synthesis provided by Hanna Arendt. [Hedoi Etxarte](#)

Culture at the forefront of politics

Eider Rodriguez, writer and professor of language and literature, conducts a diagnosis of the current situation regarding cultural policies in the Basque Autonomous Community, so as to then put forward the key principles that a cultural policy should pursue in order to place culture at the forefront of politics. [Eider Rodriguez](#)

Predeterminations and indeterminacies

The singer and actress Maika Etxekopar reflects on the 'predeterminations' and 'indeterminacies' of the artist, on the art, the people, the popular culture, and the influence that Basque and French culture have on their creative process –in short, about 'ours' and that of 'others'. [Maika Etxekopar](#)

Management models for cultural projects

Seven diverse cultural projects are presented in terms of philosophy, nature and style, although all of them are well-consolidated and recognised within the Basque cultural scene: Tabakalera (Ane Rodriguez), Astra (Leire Lopez Ziluaga and Oier Plaza), Azpeitiko Kultur Mahaia (Izaro Zinkunegi), Katakarak (Nerea Fillat), Euskal Herria Zuzenean (Pauline Guelle), Hala Bedi Irratia (Gaizka Amondarain) and Okela Sormen Lantegia (Nora Aurrekoetxea, Izaro Ieregi and Irati Urrestarazu). [Various authors](#)

NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Miren Artetxe, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. [Various authors](#)

Eta kultura autodeterminatuko balitz?» galdera bota zuen Har-kaitz Canok Jakinen 205. zenbakian 'Bide bakarra eta beste zenbait bide' titulupean idatzitako 2014ko kultur kronikan. Ideia interesgarri bat du abiaburu, eta horrela formulatu du Canok berak:

Alex Mendizabal soinu-artistari entzuna diot independentista izatea baino errealistagoa dela, akaso, *dependentista* izatea; une jakin bakoitzean noren menpeko garen argi eta garbi jakitearen aldeko, alegia. Buruaskitasun ekonomiko erabatekoa kimera denez oraingoz, ez litzateke txarra horizontalki eta *de facto* aspaldian praktikara eramaten dugun buruaskitasun kulturala erakundeetatik *benetan* bultzatzea. Horretarako, jakina, 'egiturak' fedea izan beharko luke sortzaileengan.

Energetikoki buruaskitasunez jokatzeko ez da posible une honetan euskaldunontzat. Ezta politikoki ere. *Bankuetekeoiki* ere gero eta gutxiago, itxuraz. Kulturalki buruaskitasunez jokatzeko, ordea, egingarria da. Nazio bat bezala, alegia. Euskal argialetxe, antzerki talde, musikari eta zinemagile askok jada egiten badute, administrazioak, zergatik ez?

Zer falta da horretarako? Egituraren –Godzillaren– fedea.

Zer falta da horretarako? Galdera ezin genuen pasatzen utzi, ez behintzat erantzuten saiatu gabe, eta, aurtengo uztailean, Baionako Zizpa gaztetxean, UEUrekin batera, ikastaroa antolatu zuen Jakinek. Eta hipotesi bat planteatu zuen: kultur ekosistema bizigarri bat osatzeko kultur politika beregaina egitea beharrezko da, bai herrigintzako eragileen aldetik, bai sortzaileen aldetik, bai administrazio publikoaren aldetik. Horregatik, hiru eremu horietako aditu eta arituak bildu ziren eztabaidara.

Bertan aurkeztu ziren ponentzien aukeraketa bat dakar monografiko honek. Ez da bertan esan, proposatu eta eztabaidatu zen guztia, baina bai gaiari begirada poliedrikoa bota eta aurrera begira jartzeko giltzarrien bilduma bat. Horrela, Ibai Iztuetak 'euskal eta kultura' gaiari heltzen dio, eta euskal kultura zein hizkuntzatan ote den posible galderari diskurtsoaren beraren materialtasunaren ikuspegitik heltzen dio. Haizea Barcenillak, Hedoi Etxartek eta Eider Rodriguezek, nork bere aldetik, kultur politika ereduai eta sortzai-

le eta eragile zibilen eta erakunde publikoen arteko harremanari erreparatu diote. Barcenillak hauxe defendatzen du, azken mende laurdenean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan garatu den kultur politikak paradigma aldaketa bat ekarri duela, bereziki Guggenheim Museoaren irekierak kulturaren beraren definizioa eta praktika aldatu dituelakoan. Etxartek artearen, politikaren eta ekonomiaren arteko harreman ia beti gatazkatsua aztertu du begirada historikoa oinarri hartuta. Eta Rodriguezek etorkizuneko erronka eta neurri sorta zehatz bat proposatzen du, kultura politikaren lehen lerrora ekartzeko. Maika Etxekoparrek sortzailtzaz, hizkuntzez eta kulturaz idatzi du, kultur transmisioaren eta sormenaren arteko loturak eta etenak bere esperientzia propiotik azaltzeko.

Ondotik, zazpi kultur proiekturen diagnosis dator, ondoko galderak oinarri hartuta: zein da zuen proiektuaren filosofia? Zein da zuon gobernantza modua? Zer leku du euskarak eta euskal kulturak? Kultura nola ulertzen duzue? Zer nolako harremana eta lankidetzak duzue kultur sortzaile eta eragileekin? Zer nolako harremana eta lankidetzak duzue erakunde publikoekin? Donostiako Tabakaleraren diagnosi eta helburuez Ane Rodriguez Kultura zuzendariak idatzi du, Astra kulturguneaz Leire Lopez Ziluagak eta Oier Plazak, Azpeitiko Kultur Mahaiaz Izaro Zinkunegik, Iruñeko Katakarak kultur kooperatibaz Nerea Fillatek, Lekornen egiten den Euskal Herria Zuzenean jaialdiaz Pauline Guellek, Gasteizko Hala Bedi Irratiaz Gaizka Amondarainek eta Bilboko Okela Sormen Lantegiaz Nora Aurrekoetxeak, Izaro Iregik eta Irati Urrestarazuk.

Unai Iturriagaren begirada ironikoak laburbildu du kontrazalean zenbaki hau zeharkatzen duen ideia nagusietako bat, hizkuntza, kultura eta sormenaren arteko harreman biaz: «nire sorkuntza da nire hizkuntza».

Zenbakia bukatzeko, ohiko dugunez, *Egunen gurgpilean* atalean, Jakineko kolaboratzaile finkoek nork bere eremuari botatako begirada zolia dator: Miren Artetxek kulturari, Henrike Galarzak ekonomiari, Txerra Rodriguezek soziolinguistikari eta Gorka Juliok teknologia eta sare digitalei.

KULTURA AUTODETERMINATUKO BALITZ

- 11** Cultura vasca vs Euskal kultura (?!)
Ibai Iztueta
- 29** Kultur politikak: paradigma aldaketa?
Haizea Barcenilla
- 47** Bi gogoeta politikatik arteari buruz
Hedoi Etxarte
- 63** Kultura politikaren lehen lerrora
Eider Rodriguez
- 75** Predeterminazioak eta indeterminazioak
Maika Etxekopar
- 85** Kultur egitasmoen kudeaketa ereduak
Tabakalera (Ane Rodriguez)
Astra (Leire Lopez Ziluaga • Oier Plaza)
Azpeitiko Kultur Mahaia (Izaro Zinkunegi)
Katakarak (Nerea Fillat)
Euskal Herria Zuzenean (Pauline Guelle)
Hala Bedi Irratia (Gaizka Amondarain)
Okela Sormen Lantegia
(Nora Aurrekoetxea • Izaro Ieregi)
Irati Urrestarazu)

Cultura vasca vs Euskal kultura (?!)

Ibai Iztueta

Kognizio Zientzien eta Giza Zientzien adarrean doktorea

Adieraz liteke Euskal kultura espainolez edota frantsesez, ala euskal kultura euskaraz egindako hori baino ez da?¹

Galdera horri zenbaitek baietz erantzun izan dio; beste zenbaitek, ezetz, Euskal kultura euskaraz egindako hori baino ez dela, alegia; eta beste askok, berriz, ez dakiela.

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-k, adibidez, Euskal kultura euskaraz adierazitakoa baino ez zela zioen (1984). Aldiz, bere garaian Juan Jose Ibarretxeren Eusko Jaurlaritzan Kultura Saileko aholkulari nagusietako bat izan zen Ramon Zallok, adibidez, Euskal kultura espainolez edota frantsesez adierazitakoa ere bazela aldarrikatzen zuen (2006). Euren erantzunetarako erabilitako arrazoiak jakingarriak dira.

Zallok, bere ikuspegia defendatzeko, argudiatu zuen Euskal Herriko hiritarren kultura zela Euskal kultura, eta Euskal Herriko hiritarren artean euskararen erabilera ez ezik, espainolaren nahiz frantsesaren erabilera ere arrunta zenez, hizkuntza horietan adierazirikoa ere bazela Euskal kultura.

Txillardegik, berriz, bere ikuspegia defendatzeko, argudiatu zuen Euskal kultura Euskal Herria beste herrietatik bereizten zuen hura zela, eta gaur egun Mendebaldeko beste herrietatik bereizten gaituen ezaugarri kultural bakarra euskara

denez, euskaraz adierazitako horrek baino ezin zuela izan Euskal kultura.

Uste dut bien ala bien argudio bideek nahiko ongi ordezkatzeko dituztela Euskal Herriko biztanleonek artean auzi honen inguruan nagusi diren posizio eta ideiak. Baina, kontuak kontu, bietako zein dago zuzen, zein oker? Gure iritzia da erantzun borobil eta esplizitu bat ematea bezain egokia dela, diskurtsoa eta ideologia hizpide harturik, erantzun inplizitu ez kategoriko bat ematea.

Euskararen ezagutza erakargarri eta euskararen erabilera erakargarri

Hala Zalloren nola Txillardegiren argudio bideak testuinguru diskurtsibo jakin baten baitan kokatu behar dira. Hain zuzen, testuinguru hori identitate politikoa, beste identitate bati subordinaturik ez ezik, hizkuntza ordezkatzeko bidean daukan herri bati dagokion hura da. Egoera hautsia, horrenbestez. Subordinazio politikorik eta hizkuntza ordezkatzeko prozesurik ez duten herrietan, hizkuntzaren eta herri nortasunaren arteko harremanari buruzko galdera horiek ez dute pertinentzia handirik izaten. Ez da galdetzen, esate baterako, ea frantsesetik egindako kultura alemaniarrik posible denetz. Gurea bezalako kasuetan, ordea, antzeko galderak pertinentzia hartzen du.

Kontua da, egoera honetan, uste izatekoa dela galderari eman lekiokoen erantzun bat ala bestea onirizteak ala gaitziziteak jokoan diren hizkuntzen ezagutzan eta erabileran modu batean ala bestean eragin lezakeela. Hau da, galderari nola erantzuten diogun, euskararen, espainolaren, frantsesaren erabilera soziala emendatzean nahiz gutxitzean eragiteko aukera zabalduko dugun, hain zuzen ere, erantzunarekin errealitatean norabide batean ala bestean eragingo duen diskurtso bat konfiguratzeko dugulako.

Eta, noski, zein posizio ideologikotatik ari garen, gauza bat ala bestea gehiago ala gutxiago interesatuko zaigu. Ikuspegi

euskaltzale batetik ulerturiko hizkuntzen normalizazioari dagokionez, biek dituzte bai abantailak bai desabantailak.

Zalok aldezen duen ikuspegiak integratzailea izatea du abantaila, eta hiritar oro interpela dezakeela. Hala, euskaraz jakin gabe ere 'euskalduntzat'² errekonozitua izateko aukera zabaltzen dio Euskal Herriko hiritarrari. Hizkuntzen normalizazioari begira, ona du, euskaraz ez dakienari 'euskaldun' sentitzeko aukera ematen dionez, euskara bere bizitzaren parte bihurtzeko gogoia elika dezakeela edota euskaraz ez jakitearen ondoreza arindu dezakeela. Era berean, euskararen auzia gizarte 'guztiaren' auzi bihurtzen lagun lezake, eta ez euskaraz egiten dutenen kontu huts. Hau da, zaputzik ez du eragiten, eta gutxiagotua dagoen euskararen *ezagutza* gizar-tean zabaltzeko aukera ireki dezake.

Beraz, euskararen ezagutzarekin loturik dagoen argudio bidea da, eta euskararen ezagutza eskuragarri jartzearekin eta, halaber, erakargarri egitearekin dago lotuta.

Desabantaila zein du? Bada, hizkuntza gutxiagotuaren erabilerak behar duen zentzuari azpizana egin diezaiokeela diskurtso horrek, eta euskal herritarren artean hizkuntza suplantatzaileen erabilera legitimatu eta normalizatzeko erabil litekeela argudio hau berau: «Neure burua espainolez edota frantsesez adierazirik ere 'euskaldun' normala baldin banaiz, zertarako hartu hizkuntza gutxitu baten erabilera hautatzeko nekea, euskaldun-euskaldunarena egiteko? Super-euskaldun xelebrearena egiteko? Ez da errenta».

Alde horretatik, Txillardegik aldezen duen ikuspegiak eskusibitatea du abantaila. Euskal identitatearen eta euskararen arteko lotura espezifikoa egiten duen heinean, euskaraz dakienari korrontearen kontra euskara erabiltzeko (edo erabiltzeagatik ez lotsatzeko) nahitaezkoa den arrazoa edo zentzua eskaintzen dio. Hau da, euskara erabiltzea harrotzeko motibo eta, are, 'euskaldun normal' izateko arau bihurtzen du. Laburbidez, euskararen erabilera sustatzeko balio du.

Beraz, euskararen erabilerarekin loturik dagoen argudio bidea da, eta euskararen erabilera erakargarri egitearenarekin.

Desabantaila, berriz, zein du Txillardegiren planteamen-
duak? Bada, euskaraz dakien eta, zer esanik ez, bizi den jen-
dea gutxiengoa izanik, diskurtso horren irismena mugatua
dela, eta euskararekin harremanik ez duten edota, hainbat
arrazoigatik, harreman gatazkatsua duten Euskal Herriko
hainbat biztanle eskusibotasun kategoriko horren kariaz
zapuzturik eta mindurik senti daitezkeela. Edo, besterik ga-
be, ez direla interpelaturik sentituko: «Euskaraz egiten ez
dutenak ez baldin badira euskaldunak, bada hor konpon
daitezela euskaldunak».

Baina, orduan, esan baldin baliteke gaur-gaurkoz ezin izan-
go dela euskararen ezagutza zabaldu Zallorenaren taxuko
diskurtsorik gabe, eta ezin izango dela erabilerarik emendatu
Txillardegirenaren taxuko diskurtsorik gabe, zer egin? Nola
erantzun hasierako euskal kulturaren inguruko galdera horri?

Ahal bezala, nahi bezala ezin da-eta. Auzia orain arteko
termino sofistikatu horietan planteatzeak ekar litzakeen me-
sedeak eta kalteak alde batera utzita, beharbada aukera bat

pilotariarena egitea da. Esango
genuke, gainera, hala jokatu
izan dela orain arte euskaltza-
leen eta abertzaleen artean. Pi-
lotariak, nondik dator kion, es-
ku bat az ala besteaz joko dio
pilotari. Bada, antzera: ematen
du non ari garen, norekin ari
garen, era batean ala bestean
erantzun beharko dela. Adi-
bidez, euskara ordeztua edo
hein handi batean ordeztua
izateraino gutxitua izan den
euskal lurraldeetan gertatzen

Esan baldin baliteke ezin
izango dela euskararen
ezagutza zabaldu
Zallorenaren taxuko
diskurtsorik gabe,
eta ezin izango dela
erabilerarik emendatu
Txillardegirenaren
taxukorik gabe, zer egin?

den bezala, auzi nagusia euskararen ezagutza normaliza-
tzea denean, zentzuzkoa ematen du diskurtso integratza-
leaz baliatzea, 'euskaldun' izateko euskaraz jakitea ezinbes-
tekoa ez dela onartzea. Aldiz, eremu aski euskaldunduetako

ikastolakumeen artean aurkitzen dugun bezala, auzia hizkuntza hautua eta erabilera normalizatzea denean, hizkuntzaren erabilera eta herri (nazio) nortasuna espezifikoki uztartzen dituen diskurtsoa bazterteak luxu handiegia dirudi. Beraz, segun zeinekin, non, noiz, erantzun bat ala bestea eman beharrean izango garela dirudi.

Gizarteko hizkuntzak, herriaren hizkuntza: hizkuntzen normalizazioa

Nondik begiratzen den, esan liteke Zalloren ikuspegian ageri den ardura euskararen ezagutzarik eza dela, eta Txillardegiren ikuspegian azaltzen dena, berriz, euskararen erabilerarik eza. Beraz, nahiz eta egun begi-bistakoa zaigun erabilera eta ezagutza, hizkuntzarekiko motibazioarekin batera, hezur eta mami direla, nolabait ere bada diferentziarik bi ikuspegi horietan iritsi nahi diren helburuen artean.

Alabaina, aipatzeko modukoa den beste diferentzia bat ere bada ikuspegi horien artean, eta da abiapuntuei dagokiena. Kultura definitzerako orduan Zallok nahiz Txillardegik abiapuntutzat hartzen dituzten erreferentziazko diziplina akademikoak eta, ondorioz, komunitatearen kontzeptuari egiten zaizkion hurbilketak diferenteak dira: Zallok soziologiara jotzen du, eta *gizarteaz* ari da, hizkuntzen eta gizarteen arteko lotura hartzen du hizpide; Txillardegik, berriz, antropologiara jotzen du, eta *herriaz*³ ari da, eta hizkuntzaren eta herriaren arteko harremanaz.

Estatu-nazioen ikuspegiaren baitatik artikulatzen diren diskurtsoetan ñabardura horrek hainbesterako garrantzirik ez du, estatu-nazioetan gizarte eta herri kontzeptuek praktikan komunitate berbera adierazten dutelako. Baina estatu propiorik ez duten herri azpiratuetan, kontzeptu horien arteko diferentziak, analisirako besterik ez bada ere, bere pisua izan lezake. Hala, ildoan, hizkuntzak direla-eta, *gizarteetako* hizkuntzak eta *herrien* hizkuntzak bereiz litezke eta, halaber, ildoan, hizkuntza-komunitateak eta hizkuntza pertsonalak.

Gizarteak hiritarrak bizi diren elkarbizitza eta harreman espazioak genituzke. Eremu administratiboek ezaugarrituko lituzkete, administrazio unitate esanguratsuena estatua izanik. Hala, gizarte kontzeptuaren baitan, hizkuntzarekiko harremana norbanakoaren dimentsiotik, norbanakoen eskubide eta betebeharren auzitik ulertzeko eskatzen da, hain zuzen ere, hurbilketa razionala eta hizkuntzen alderdi instrumentala azpimarratuz.

Herriak, berriz, bere burua autoadskripzio beraren inguruan definitzen duten herritarrek osaturiko gizatalde gisa defini litezke. Hala, herri kontzeptuaren baitan, hizkuntzarekiko harremana talde nortasunaren dimentsiotik ulertzeko eskatzen da, lotura horren izaera irrazionala eta hizkuntzen alderdi sinbolikoa azpimarratuz.

Horiek horrela, beraz, esan liteke hizkuntzak ez direla gizarteenak, baizik eta gizarteetakoak, eta, era osagarrian, hizkuntzak ez direla herrietakoak, baizik eta herrienak.

Hizkuntza komunitateei eta hizkuntza pertsonalei buruz, aldiz, esan dezagun hizkuntza komunitateak hizkuntza komuna darabilten hiztun taldeak direla, eta norberaren hizkuntzak, berriz, norberari dagozkion arrazoiengatik, norberak bere kontsideratzen dituen hizkuntza horiek. Estatu propioa duten herrietako herritarrentzat (italiarrentzat, espainiarrentzat, ingelesentzat, japoniarrentzat, arabiarrentzat...), hizkuntza komunitateak, gutxienez, herriaren tamaina izaten du eta eskuarki bat etorri ohi dira hizkuntza pertsonala, herriaren hizkuntza eta gizarteko hizkuntza. Politikoki subordinaturik, administrazio eta azpi-administrazio ezberdinetan zatiturik eta hizkuntza ordezkapen nahiz erresistentzia prozesuetan sarturik dauden Euskal Herria bezalako herrien kasuan, aldiz, ez da hala gertatzen.

Ezaguna da egoera: euskal herritarrak, Euskal Herrian, gizarte ezberdinetan bizi dira, herritartasun espainola nahiz frantsesa konpartitzen duten hiritarrekin batera, lurraldeko bazter batzuetan gehiengoa eta beste batzuetan gutxiengoa izanez baina betiere nortasun politikoari dagokionez

subordinaturik. Hizkuntza-ordezkapena dela-eta, elebakarrak dira euskal herritar horietako asko, eta espainolen edota frantsesen hizkuntza baino ez dute ezagutzen. Bestalde, euskaraz bizi diren euskal herritarren artean ere, arrunta da etxetik jasotako hizkuntza pertsonala eta bere herriaren hizkuntza bat ez etortzea.

Gizarte eta herri terminoen arteko bereizketa bereziki komenigarria gerta liteke, besteak beste, aukera ematen digulako hizkuntzekiko zenbait eskubide, betebeharrak, harremanak, diskurtso ordenatzeko eta argiago adierazteko. Edo, beste hitz batzuekin esateko, gizarte elebidunaz eta euskararen, espainolaren eta frantsesaren normalizazioaz ideia edo proposamen jakin bat adierazteko.

Inguruko ideia edo proposamen horren arabera, gizarte elebidun batean hizkuntzen normalizazioa iritsiko genuke, *continuum* batean, herritar bakoitzak bere herriaren hizkuntza erabiltzeko joera izan-

go lukeenean, eta bizikidetzak eta zibismoak hala eskatzen duelako, gizarteko hiritarrek 'beste' hizkuntza ezagutuko lukeenean, hura behar den guztietan auzo duten beste hiritarrek ere erabiltzeko eragozpenik gabe. Biak ala biak ere batera doazen eta ezinbestean osatzen duten baldintzak dira; izan ere, ongi gogoan izan behar da hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko askatasuna interlokutore dugun auzoaren hizkuntzen ezagutzak edo ezagupenik ezak determinatzen duela: gure solaskidea elebakarra bada, hizkuntza hautatzeko askatasunik ez dugu izango.

Arrastotan, bestalde, esan behar da normalizazio ildo horrek ez dituela berdin interpelatzen gizartea eta herria. *Balitzko normalizazio egoera batean*, Zallok abiapuntutzat harturiko

Gizarte eta herri terminoen bereizketa komenigarria gerta liteke, aukera ematen digulako hizkuntzekiko zenbait eskubide, betebeharrak, harremanak, diskurtso ordenatzeko eta argiago adierazteko

gizarte horrek ez luke erantzukizun zuzenik hizkuntzen sustapenean, baizik eta hizkuntzen erabilera babestu eta erabilerrako gizarte baldintzak bermatzean. Txillardegik abiapuntutzat harturiko herriaren erantzukizuna, aldiz, ez litzateke bere hizkuntzaren erabilera babestu eta bermatzea, baizik eta hizkuntza sustatu eta bultzatzea; hizkuntza erabiltzea, azken batean.

Normalizaziorako, beraz, nahitaezkoa litzateke Euskal Herriaren euskaraz egiteko aukera bermatzearen, euskararen ezagutzaren orokortzea, Bidasoaren alde banatan espainolarenarekin eta frantsesarenarekin gertatzen den bezala. Bai. Baina, horrekin batera, baita euskal herriak euskaraz egitea ere, espainolek espainolez eta frantsesek frantsesez egin ohi duten bezala.

Arestiko paragrafoan, hitzak makurtu ditugu adierazteko erantzukizun banaketa hori *balizko normalizazio egoera* batean gertatu beharko litzatekeela. Azpimarratu egin dugu, hain zuzen ere, balizko normalizazio egoera hori partikulariki euskal herritarrok desio genukeena baino askozaz ere urrunago ikusten delako. Gaur egun kezka iturri da, alde batetik, ikustea nola gizarte mailan, espainola/frantsesa ezagutzeko beharra eta erabiltzeko eskubidea izatea ukatzea inori ere burutik pasatzen ez zaion bitartean, euskararen ezagutza bera –zer esanik ez erabilera– auzitan jartzen den, jazarria ez denean. Eta, bestetik, kezka iturri da ohartzea, halaber, herri mailan, bere burua euskal herritartzat aldarrikatu eta euskaraz aritzeko aski maila duten lagunen arteko solasetan, euskaraz aritzeko baldintzak badaudela dirudienean, erdararen erabilera zeinen normalizaturik dagoen.

Zalantza arrastorik gabe, gizarteko botere harremanen eta hizkuntzen subordinazio harremanen historia baten ondorio da bigarren fenomeno hori; kontua da, ordea, euskal herritarren arteko erdararen erabileraren normalizazio horixe bera ezagutzaren unibertsalizazioari bidea ixteko argudio bihurtu litekeela: «zertarako hartuko dugu ba euskaraz ikasteko lana, euskal herritarrek eurek ere nahiago izaten dute-eta espainolez/frantsesez aritu?».

Laburbilduz, beraz, eta esandakoaren argitan, Zalloren nahiz Txillardegiren planteamenduei egin lekiekeen kritika da, euskal kultura hizpide hartuta, batak euskal gizartea euskal herri bihurtzen duela eta besteak, berriz, euskal herria euskal gizarte bihurtzen duela. Euskal gizartea eta euskal herria inoiz bat etorri al diren alde batera utzita, eta etorkizunean bat izatera iritsiko ote diren jakin gabe, gaur-gaurkoz biak nahasteak ez dirudi argitasunik dakarrenik, analisirako eta ebaluaziorako orduan, behintzat.⁴

Izan ere, herri ikuspegiari soilik heldu eta gizartearen parte garela ahazteak Euskal Herria bezalako lurralde batean nahasten diren ibilbide pertsonal ugariak kontuan ez hartzerara eraman gaitzake, norberarenak ez diren herri atxikipenak ez errekonozitu eta errealitate hori kudeatzeko desafioari ezikusiarrena egitera (hori gertatzen da, hain zuzen, era nabarmenean frantziarren eta espainiarren artean). Hartara, gizarte ikuspegia ezinbestekoa da euskararen ezagutzaren orokortzearekin berdintzen den integrazioa lantzeko.

Aitzitik, Euskal Herriko testuinguruan, gizarte ikuspegiari soilik heldu eta herri kontzeptua baztertzeak euskal herritartasuna identitate nazional estatalaren baitako subidentitate autonomikoen baitako subidentitate tratatzea dakar. Hau da, herri kontzeptuari uko eginez gero, euskarazko adierazpena, berez, hiritarren arazo edo hautu indibidual izatera lerratzen da, edota, gehienez ere, gizarteko komunitate baten adierazpen apolitiko eta estetiko partikularra, estatuak eta estatutik promozionaturiko kultur adierazpen publiko zein pribatuen (Tele5 arrakastatsua, adibidez) normaltasunarekin edota hegemoniarekin nahastu ezin dena.

Hobe, beraz, elkar osatuz, biak aintzakotzat hartzea.

Hizkuntzak identitatea eman; identitateak hizkuntza eman

Txillardegiren eta Zalloren planteamenduetan ezberdintasunak aurki litezkeen gisa berean, oinarrizko antzekotasun bat ere

Talde-identitatea ez da hizkuntzaren 'gainetik' dagoen zerbait, ez hizkuntza (ere) biltzen duen zerbait. Ez dago hori hala dela pentsatzeko arrazoirik, ez hala planteatzeko nahitazko premiarik ere

nabarmendu liteke: Euskal kultura zerk definitzen duen auzitan jarriz, batak zein besteak hierarkia inplizitu bat onartzen eta ezartzen du identitatearen eta hizkuntzaren artean. Euren argudio bideetan, hala batak zein besteak, abiapuntuko galdera horrekin identitatearen auzia bihurtzen du askatu beharreko korapilo, eta Euskal kulturaren gaineko eztabaidaren emaitzaren baitan uzten du ebaztea identitatea zehazterako

orduan hizkuntzei zein toki eta garrantzi dagokien.

Biei ala bie kritika lekiekeena zera da, konbentzio intelektual bat dena edo pentsamendua antolatzeke aukera posible bat dena (hizkuntza identitatearekiko pentsatzea), praktikan, pentsatzeko arau gisa onartu dutela, eta, ondorioz, inplizituki talde identitatea hizkuntza baino garrantzitsuagoa delako ustea erreproduzitzen dutela, bide batez, apur bat manikeoa eta elkorra bihurtzera irits litekeen 'kontrukzionismoa' eskema indartuz.

Baina ez, talde-identitatea ez da hizkuntzaren 'gainetik' dagoen zerbait, ez hizkuntza (ere) biltzen duen zerbait. Ez dago hori hala dela pentsatzeko arrazoirik, ez hala planteatzeko nahitazko premiarik ere. Besterik gabe, talde-identitateak eta hizkuntzak (nahiz beste kultur praktikak) elkar baldintzatzen duten bi fenomeno ezberdin dira. Horregatik, Euskal Herria bezalako herrietan bereziki, aintzakotzat hartzea komeni delakoan gaude identitateen konfigurazioei dagokienez hizkuntzek zein paper betetzen duten auzitan jartzea bezain garrantzitsua dela planteatzea hizkuntzen erabilerari dagokionez identitateen konfigurazio diren diskurtsoek zein paper jokatzen duten.

Hau da, uste dut komeni dela argi izatea, elebidunen artean gabiltzanean batez ere, euskararen erabileraren normalizazioari

dagokionez, «euskaldun izateko euskaraz egin behar da, ala ez?» galdetzea baino inportanteagoa izan daitekeela zera planteatzea: «euskaraz biziko bagara inportantea da euskaldun izateko euskaraz egin behar dela esatea, ala ez?».

Ur handiegitan sartu gabe, esan liteke identitateak eta hizkuntzak bezalako kultur praktikek elkar elikatzen dutela. Alde batetik, espero izatekoa da kultur praktika konpartitutatik talde-identitateak eratortzea. Bestetik, talde-identitate bat dagoenean, taldetasun hori besteekiko oposizioan edota kultur praktika jakin baten inguruan ezaugarritzen den, kultur praktika bat ala bestea finkatu edota indartu litekeela ohartzeko gara. Urrutirago gabe, arropa modak eta janzkerak berak horren adibide ditugu.

Guri hemen interesatzen zaigun dimentsioan, hau da, hizkuntzei dagokienez, horrek esan nahi du, zenbait jenderen kasuan, euskaraz egiteari utzi eta espainolez edota frantsesez hasi direla euren burua espainol edota frantses kontsideraturik, talde-nortasun hori ezaugarritzen duen kultur praktika nagusia bereganatzea naturala gertatu zaielako. Aldiz, beste batzuen kasuan, talde-identitate aldaketari bide emango bazaio, ezinbestekotzat jo izan da kultur praktika bat (hizkuntza bat) erauzi eta beste bat inposatzea.

Aipatutako azken horri buruz, adibidez, Mauleko suprefetaren hitzak har litezke. 1802an, euskara erauzi eta frantsesa ezarriko zuten eskolak zirela-eta, garbi zeukan eta xalotasun handiz adierazi zuen hizkuntza ordezkapenaren atzean talde-identitate aldaketa (euskaldunak frantsestea) lortzeko asmoa aurkitzen zela (Etxegoien, 2006: 188): «un grand moyen de franciser les Basques, trop en arrière pour les usages, les moeurs, la civilisation et surtout la langue» («biderik eraginkorrena euskaldunak frantsesteako, ohiturengatik, zibilizazioagatik eta batez ere hizkuntzagatik atzeratuegiak»). Hara hor kultur praktiken aldaketak identitateetan nola eragin dezakeen. Bestalde, identitateak hizkuntzarekiko nola eragiten duen ohartzeko, iradokitzailea izan liteke Arabaren eta Nafarroaren arteko konparaketa egitea. Lurralde batean euskararen

ezagutzak izan duen hedapena eta bestean izaten ari den zailtasunak azaltzerako orduan, ez da faktore bakarra, noski, baina aipatzeko modukoa ematen du arabartasunaren eta *euskaltasunaren* artean lotura ezartzen duten diskurtsoen eta, hain zuzen, nafartasunaren eta *euskaltasunaren* arteko lotura gaitzesten duten diskurtso identitarioen indarraren eraginak.

Baina orain artekoarekin ez dut uste ezer deskubritzen ari garenik. Egia esan, azken finean, hizkuntzaren eta identitatearen arteko harremanaren auzia klarifikazio ideologiko baten bidez ere ebatz litekeela adieraztera ere ausartuko ginateke. Hau da: bere burua euskal herritartzat daukanak, aukeran, zer luke nahiago, bere identitateak kosta ahal kosta iraun dezala, ala euskaraz egiten duen gizataldearen bizitza iraunkortu eta normaliza dadila?

Kontu hori dela-eta, *Euskal estatua irudikatzen* (2016: 46) azterlanak zantzuren bat ematen digu. Bere burua soilik euskal herritartzat daukatenen artean identitateari buruzko kezkek baino handiagoa dirudi hizkuntzari buruzkoak: antza, bere burua independentistatzat duen gehiengo zabal baten artean, estatuak ordezkatzeko duen identitate politiko ez subordinatu batek –nazioartean identitate nazional gisa errekonozituko litzatekeen batek, alegia– ez luke interesik sortuko, baldin eta horrek ordainetan espainola/frantsesa euskararen gainetik babestea esan nahiko balu. Alde horretatik, esan bezala, ez dirudi independentistena behintzat kezka hertsiki identitarioa denik.

Zallorena ere ziurrenik bai, baina zalantzarik gabe Txillardegiren kezka euskararen iraupena zen, euskal identitate erdaldun bat aldeztu zuten ideologoek kontra (horietako batzuek bere burua abertzaletzat omen, gainera). Eta, hizkuntzak kulturarekiko zein toki betetzen duen hizpidetzat harturik, euskararen alde egitearren, eskusio eta oposizio terminoetan ondorioztatzen zuen argudioa atera zitzaion. Euskara erabiltzearen aldeko arrazoa euskaraz egiteak berezi (besteengandik bereizi) egiten gaituelakoan zetzala atera zitzaion.

Beste zerbait edo norbait bezalakoa ez izateko gogoia gaitzesten hasteko bezain zuriak ez gara izango: gogo legitimoa

da, zer esanik ez nortasuna subordinaturik eta hizkuntza ordezkapena bidean duen herriaz ari garelarik, eta indar mota bat ematen du. Nolanahi den ere, uste dut kulturaren inguruko diskurtsoak hizkuntzarekiko zein paper betetzen duen erantzuten hasiz gero, termino asertiboetan ondorioztatzeko argudioetara ere irits gaitzkeela eta hobe dela horrela: «Euskaraz egiten dugu euskaraz egiten dugunean garen bezalakoxeak izan nahi dugulako». Horrek ere balio du. Eta koherentea da herri libre nahiz erresistenteek gainontzeko herri libre nahiz erresistenteetatik espero dutenarekin.

Kultura asimilatua, kultura erresistentea eta kultura autodeterminatua-edo

Frantziar herritarren eta espainiar herritarren ordezkari politikoen gehiengo zabalak ukatu egiten du euskal herria frantziarraren edota espainiarraren pareko herri bat denik. Ez zaie falta hori egiteko ez indarrik ez fanatismorik. Euren herrialdeko eskualde bateko jendetzat hartzen eta tratatzen dituzte (gaituzte) eta, ondorioz, halakoxetzat hartzen gaituzte normalean beste herri batzuetako jendeek ere. Kontua da, Frantziak eta Espainiak guztiz asimilatua izan balitz, asimilazioa erabatekoa balitz, gure lurralde honetako jendeak uko hori onartu eta ontzat emango zukeela eta, zalantzarik gabe, hizkuntza ordezkapena erabatekoa izango litzatekeela. Baina ez da hala gertatu. Abertzaletasunaren artikulazioak herritartasunaren kontzientzia elikatzeke balio izan du, eta, hizkuntzaren eta herri nortasunaren arteko loturaren gaineko kontzientziari esker, hizkuntza ordezkapenari erresistentzia egin zaio bururaino irits ez zedin.

Asimilazio, erresistentzia eta aurrera-atzera agertoki honetan, euskal nortasunaren eta kulturaren inguruko diskurtso ezberdinak konfiguratu dira

Hala, ez dirudi oker handia esatea asimilazio, erresistentzia eta aurrera-atzera agertoki honetan, euskal nortasunaren eta kulturaren inguruko diskurtso ezberdinak konfiguratu direla, bakoitza errealitate ideologiko zein praktiko jakinen neurriko. Hala, adibidez, diskurtso pixka bat praktikatzeko gogoia etorri eta tipologia taxutzea okurrizten zaigunean, guri *Euskal kultura*, *Cultura vasca/Culture basque* erresistentea eta *Cultura vasca* asimilatua bereiztea ateratzen zaigu.

Bereizketa horretan, Euskal kultura definitzea oso da erraza: funtsean, euskaraz egitea da, euskaraz eginez egiten dena eta, nahi izanez gero, baita euskaraz eginez inoiz egin dena ere. *Cultura vasca/Culture basque*, berriz, hizkuntza ordezkapenak ezaugarritzen du, baina ñabardura garrantzitsuekin: erdaldunduriko euskal hiritarren kultur praktikak genituzke, baina bi bertsio edo norako antagonikotan. Horietako bata *Cultura vasca/Culture basque* asimilatua deituko dioguna genuke, hizkuntza ordezkapena onartu eta bere horretan irautea helburu duena, izan bere burua kultura espainolaren edota frantsesaren eskualdeko aldaeratzat edo azpiespresioztzat joz, izan bere burua kultura espainolaren nahiz frantsesaren parekotzat joz. Bestea, berriz, *Cultura vasca/Culture basque* erresistentea deituko dioguna genuke, eta litzateke bere horretan helburu izatekoa ez, baizik eta euskal herria atzera ere euskalduntzeko zubi lana egiteko bokazioa duen jardunak definiturikoa.

Kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremanari buruzko hiru diskurtso edo tipo horiek espazio bera konpartitzen dute, baina euren arteko bizikidetza ez da eroso, ondoez-erru- ezberdinak sortzen dituelako. Bereiziki EAEn, non abertzaletasuna nagusi den, bere burua espainoltzat daukan erdalduna deseroso sentitzen da abertzaleak aurpegiratzen diolako ez dela 'egiazko euskalduna'; baina era berean, espainolez bizi den abertzalea ere deseroso -errudun- sentitzen da euskaraz bizi denaren ispiluaren aurrean, itzultzen dion irudiak esaten diolako, oso abertzale sentituagatik, bera ez dela 'egiazko euskalduna'; azkenik, euskaraz bizi denaren

edo bizitzen ahalegintzen den gutxiengo horren eguneroko ondoeza –lotsa– daukagu erdaraz bizi direnen aurrean, zentsuratzen zaiolako euskaraz bizitzeko hautua ez dela ‘euskaldun errealaren’ hautua.

Bizikidetza deseroso horretatik eratorritako ondoez horiei proposaturiko irtenbide diskurtsiboa eta gaur egun nagusi dela esan daitekeena Zallok berak Alberto Barandiaran kazetariaren galdera bati erantzunez formulaturikoa genuke (2004). Kazetariak hauxe planteatu zion: Euskal kultura euskaltzaletasunarekin edo euskal nortasun nazionalarekin lotzen diren kontzeptuetatik bereizi behar zela esanez, ez ari ote zen euskararen alde borondatez aritu den jende askoren lana gutxiesten.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko aholkulariak, gutxi gorabehera, erantzun zion, hasteko, bazela hor hizkuntza arazo bat gaztelaniazko eta euskarazko bertsioren artean, ‘euskal’ eta ‘vasco’ terminoak nahasten zirelako. Zallok azaldu zuen espainolezko *vasquismo* hitzak euskal nortasuna lantzeko jarrerara aktiboa adierazten duela. Euskaraz arazoa dela ‘euskal’ erroa hizkuntzari bakarrik lotzen zaiola eta horrek murriztu egiten duela interpretazio eremua. Eta nortasunak mantso aldatzen direla kontuan harturik, elebakarrak hizkuntzara erakartzeko, ez dela ez zuzen ez komenigarri inolako zirrikiturik uztea euskaldunagoa/ez hain euskalduna mailaketari.

Zallo zuzen dabil ‘euskal’ eta ‘vasco’ erroen arteko diskordantzia azpimarratzean. Gainontzean, bere soluzioa kezka-garria da, bere diskurtsoarekin arestian aipaturiko bi ondoezi konponbidea ematen dielako, baina hirugarrena umezurtz uzten duelako. Hau da, erdaldunen nolabaiteko ondoeza arintzera datorren diskurtsoa da, baina euskaraz bizi nahi dutenena sakondu egiten du.

Izan ere, esan liteke, Zalloren erantzunean, erdaldunek abertzale ez izateagatik edota euskaraz ez egiteagatik gerta litekeen zaputza neutralizatzearekin batera, zorrozki desautorizatzen dela Txillardegirena bezalako ikuspegia, ‘euskal’ erroa erabiltzea ez etikoki («ez da zuzena») ez zientifikoki

(«murriztu egiten du interpretazioa») ez politikoki komenigarria dela azpimarratuz.

Aipatu dugunez, 'euskal' erroa beharrezkoa da euskararen hizkuntza gutxiagotua erabiltzeko, euskararen erabilerrari zentzu primarioa ematen diolako eta harrotasunarekin eta asertibitatearekin zerikusia duelako. Kontua da Zalloren diskurtsoak, delako euskaldunagoa/ez hain euskalduna mailaketa horri bidea itxi beharrez, beste hierarkia bat ezartzen eta finkatzen duela eta, apur bat bortizki, 'euskal' erroaren bidez definitzen den kulturari subkultura (are, subkultura baten baitako subkultura) dimentsioa ematen diola.

Ez da bat ala bestea. 'Euskal' eta 'vasco' hitzen esanahiak ezberdinak dira eta, ondorioz, «zer da Euskal kultura?» galdetzea eta «¿Qué es la Cultura vasca? / Qu'est-ce que la Culture basque?» itaun ezberdinak dira. Erantzuna ere ezberdina eskatzen duten galdera ezberdinak.

Egia izan liteke Zallok aldarrikatzen duen 'vasquismoaren' diskurtsoa Euskal Herriko toki batzuetan beharrezkoa izatea euskararen ezagutzari bidea egiten laguntzeko. Baina 'vasquismo' hori bera kaltegarri gerta liteke –eta esan ere egingo genuke kaltegarri izaten ari dela– espainolaren eta frantsesaren erabilera normalizatzen laguntzen duelako euskal elebidunen artean ere.


'Vasquismoa' eta 'euskaltasuna', helburua zein den, biek dirudite arrazoizkoak eta beharrezkoak. 'Vasquismoa' ona izan liteke ezagutzara erakartzeko; baina pozoia da erabilera sustatzeko. 'Euskaltasuna' ez da beharbada toki batzuetan onena izango ezagutzara erakartzeko; baina ezinbestekoa da erabilera sustatzeko. Euskararen ezagutzara hurbilarazteko malgutasuna behar da, bai; baina erabilerak irmotasuna eskatzen du.

'Euskal' erroa eta 'vasco' erroa dela-eta, zer pentsatuak ez dira atzo goizeko kontua. Koldo Mitxelena duela hogeita hamar urteko hitzak dira hauek (1977: 9-10):

El vasco, el hijo del país, es sencillamente euskaldun: poseedor de la lengua vasca: Esto, ahora y hace ya bastantes años, no deja de plantear un problema grave: ¿cómo llamar a los descendientes

de vascos, a los nacidos en Vasconia, a todos los vascos de deseo que no hablan la lengua vasca?

Kontu delikatua da, emozioekin, gaizki-ulertuekin, bere burua arriskuan susmatzen duten estatus eta hierarkia kontuekin, herri eta gizarte kontzepzio politiko ezberdinekin zirikusia duten urak nahasten direlako ‘euskal’ eta ‘vasco/basque’ erroek definituriko itsasarte horretan. Bitartean, esango genuke praktikan Mitxelenaren ‘vasco’ horrek euskaldun esan nahi izateari utzi bakarrik ez, baizik eta, Zallok eskatu bezala, euskaldun hitza euskaraz ez dakien edota euskaraz jakin arren egiten ez duen ‘vasco’ horren sinonimo bihurtzen ari zaigula, trukean ezer askorik jaso gabe. Bada hor, besteak beste, kontzeptu eta terminoetan lan bat eginkizun.

Ea nola irteten dugun endredu honetatik. 

Oharrak

1. *Cultura vasca vs Euskal kultura* (2015) liburuan landutako zenbait ideiatan oinarrituriko testua da hau.
2. Komatxo artean ‘euskaldun’ idazten dudanean, euskaraz jakin ala ez bere burua halako nortasun bati atxikia ikusten duena adieraziko dut.
3. Herri hitzak, euskaraz, bi adiera nagusi ditu: bata taldeari egiten dio erreferentzia, besteak lurraldeari. *Euskal Herri* izendapenarekin zazpi (sei, nahiago bada) probintziek hartzen duten lurraldeari egingo diot erreferentzia; *euskal herri* terminoarekin, berriz, bere burua euskal herritartzat jo eta nortasun hori espainoltasunari edo frantsestasunari subordinatzen ez dion gizataldeari.
4. Beharbada ez dago soberan gogoraraztea Euskal Herriko administrazio soziologikoki abertzaleenean, hau da, EAEn, ilegalizazio garaia- ren eta Patxi Lopezen gobernuaren amaieran, %66 inguruko parte hartzearekin, bere burua euskal herritartzat soilik definitzen duten alderdiek jasotako bozak ez zirela iritsi bozka emaile potentzialen %45en babesa jasotzera.
5. Jatorrizko gaztelaniazko testua eman dugu ‘vasco/basque’ eta ‘euskaldun’ terminoen arteko harremana propio aipatzen duelako. ‘Vasco/

basque' hitzaren ordez 'euskal herritar' erabiliko bagenu, honela alda liteke euskarara pasarte hori: «Euskal herritarra, herriko semea, euskalduna da, besterik gabe: euskal hizkuntza daukana: horrek, bai orain bai badira honezkero nahikoa urte, arazo larri bat planteatzen digu: nola deitu euskaraz egiten ez duten euskal herritarren ondorengoei, Baskonian jaiotakoei, gozog euskal herritar diren horiei guztiei?».

Bibliografia

- Alvarez Enparantza, Jose Luis, *Txillardegi* (1984): *Euskal kulturaren zapalketa, 1956-1981*. Elkar/AEK. Donostia.
- Barandiaran, Alberto (2004): 'Plan honetan datza euskal kulturaren izatea ala ez izatea', Ramon Zallori elkarrizketa, *Berria*, 2004-10-22.
- Etxeagoien, Juan Carlos, *Xamar* (2006): *Euskara Jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza*. Pamiela. Iruñea.
- Iztueta, Ibai (2015): *Cultura vasca vs Euskal kultura*. Utriusque Vasconiae. Donostia.
- Mitxelena, Koldo (1977): *La lengua vasca*. Leopoldo Zugaza. Durango.
- Zabalo, Julen; Larrinaga, Ane; Iraola, Iker; Saratxo, Mikel; Amurrio, Mila; Mateos, Txoli; Fullaondo, Arkaitz; Anduaga, Uxo (2016): *Euskal Estatua irudikatzen*. Ipar Hegoa Fundazioa, Parte Hartuz (UPV/EHU) ikerketa taldea.
- Zallo, Ramon (2006): *El Pueblo Vasco, hoy*. Alberdania. Irun.

Kultur politikak: paradigma aldaketa?

Haizea Barcenilla

*Arte kritikaria eta komisarioa, UPV/EHUko Artearen
Historiako irakaslea eta Jakin Taldeko kidea*

Artikulu honen helburua Guggenheimen sorkuntzaren ondoren EAEn gertatu den kultur politiken eraldaketa aztertzea da. Museoaren irekierak eragin handia izan zuen kulturaren definizioan eta horrek bete behar dituen jomugak finkatzeko eran. Hala ere, identifikatzen saiatuko naizen joera ez da soilik geurean eta Guggenheim Museoaren inguruan gertatu: jaugin globala da, beste hainbat faktorek sakonki eragin dutena (neokapitalismoaren gorakadak eta turismo globalaren garapenak, besteak beste) eta lekuan lekuko eraginak izan dituena.

Aitzitik, titaniozko erraldoiak eta horren inguruko erabakiek aukera aparta eskaintzen dute aldaketa horren pausoak jarraitu, identifikatu eta horren eraginak aztertzeko. Aldaketa horiek unean uneko kontu anekdotikoak ez direla defendatuko dut, paradigma baten aldaketaren sintomak baizik.

Proposamen hori ikuspegi zehatz eta mugatu batetik burutu da: EAEko kultur politikak aztertzen ditu, eta hori, batez ere, begirada arte plastikoen testuingurutik abiatuta. Horretarako arrazoiak hainbat dira: nire espezializazioa, ikerketak beharko lukeen denbora luzeagoa eta Euskal Herrian hiru administrazio ezberdin egoteak sortzen duen zailtasuna.

Interesgarria litzateke, beraz, ikerketa honi esparru desberdinetako ikerlariekin batera jarraipena eta zabalera ematea, beste kultur esparru eta zonaldeetan aplikatu daitekeen aztertzeke.

Zerikusirik al du Guggenheimek kulturarekin?

Askotarikoa da Guggenheim Bilbao Museoak sortu zuen aldaketa sozialari buruzko literatura. Ez zen beharrezkoa izan museoak zabaltzea idazteari ekiteko: 1997ko irailean jada, Herbert Muschamp-ek miraritzat jotzen zuen Bilbora «pelegrinazioan» zihoazen arkitekturaren maitale kopurua *The New York Times*-eko aldizkarian, eta gehiago iragarri zituen.¹ Bere aurreikuspenak motz geratu ziren: politikari baikorrenek ere ez zuten urteko milioi bateko bisitari kopurua amestu.

Museoak hirian izan duen eragina eztaba daezina da: ezusteko arrakastak guztiz bideratu zituen hurrengo urteetako hirigintza eta ekonomia erabakiak. Hiri-irudi mota bat eraikiz joan zen apurka, eta hamarkada baten buruan horren argi finkatuta zegoen estrategia eta horrek utzitako arrastoak, ezen Iñaki Esteban kazetariak zalantzarik gabe izendatu zuela «Guggenheim efektua» (Esteban 2007). Esamoldea, hain zuzen, krisiak jotako hiri baten kultur instituzioen bidezko berpizte ekonomikoa definitzeko erabiltzen da nazioartean.

Askotarikoak ziren, ordea, Estebanen aurretik fenomenoari so egindakoak. Bi urte lehenago, esate baterako, Joseba Zulaikak eta Anna Maria Guaschek Renoko Unibertsitatean nazioarteko jardunaldiak antolatu zituzten, artistak, ikerlariak eta politikariak Bilbon gertatzen ari zenari begirada kritikoa (edo akritikoa) luzatzeko gonbidatu zituztenean. 2007an, Estebanenarekin batera, iritsi zen gogoeta horren emaitza idatzia gaztelaniaz *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao* liburuan (Guasch eta Zulaika 2007). Horrenbestez, museoaren hamargarren urteurrenak bere eraginaren konfirmazioa eta gizartearen aldetiko onespenez zalantzagabea erakusteko balio izan zuen.

Liburu horiek aztertzen baditugu, hala nola Bilbon jazotako aldaketaren eraginaren inguruko berri eta artikuluak, deigarria egingo zaigu, kultur instituzio batetik abiatu arren, zein gutxi hitz egiten den kulturaz. Ekonomia, gentrifikazio, industria, ostalaritza, euskaldunon irudi edo politikari buruzko azterketak aurkitzen ditugu, baina museoaren eraikitzeak kultur esparruan ekarri dituen aldaketak ez dira apenas lantzen. Kultura, maiz diote testuok, ekonomiaren garapenerako aitzakia bihurtzen da, hiri modernoaren irudia lantzeko tresna hutsal.

Esate baterako, Iñaki Estebanek «apaingarri» (*ornamento*) hitza erabiltzen du Guggenheimek Bilbon betetzen duen funtzioa definitzeko; Jon Azuak, Guggenheimen akordioa itxi zen uneko lehendakariordeak, termino ekonomikoetan hitz egiten du batez ere, kultura ekonomiaren garapenerako motortzat jotz (Azua 2007: 89); Javier Viar Arte Ederretako Museoko zuzendariak Guggenheimek bere museoaren kudeaketa-ereduetan izan dituen eraginak aipatzen ditu, hala nola hiriak eskaini behar dituen «kalitate altuko zerbitzu askotarikoez» mintzatu (Viar 2007: 110), eta Thomas Krens Guggenheimeko zuzendari nagusiak ikusleak edozein modutan erakartzeko erabiltzen dituen taktikez ari da Zulaika bera (Zulaika 2007). Bera da, bide batez, artistek, egileek eta bertako sortzaileek proiektu horretan izan duten zeresan eskasa aipatzen duen idazle bakarra, eta puntu horri aurreko guztiei baino arreta gutxiago eskainiz (*ibid.*: 166).

Beraz, nola eragin dute Guggenheimek eta horrekin batera garatu ziren balioek Erkidegoko kultur politikan? Hori

Ekonomia, gentrifikazio, industria, ostalaritza, euskaldunon irudi edo politikari buruzko azterketak aurkitzen ditugu, baina museoaren eraikitzeak kultur esparruan ekarri dituen aldaketak ez dira apenas lantzen

aztertzeko, fase desberdinetan banatu beharko ditugu azken 25 urteak, mantsoki gertatu ziren aldaketen bitartez garapena finkatu ahal izateko.

Lehen fasea (1991-2001): artea inbertsio gisa²

1992tik aurrera, kultura-politika obra handien eta diru-laguntza finkoen bidezko baina estrategia argirik gabeko nolabaiteko teknokratizazioaren alde jarri zen. Urte horretan bertan abiara zi zen Bilboko Guggenheim Museoaren proiektua. Hala, gizarte-oinarritik askatzen hasi zen kultura (Zallo 2016: 36).

Ramon Zallok, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako kultura-ren egoerari buruzko 2015eko txostenean, 1992an kokatzen du joera aldaketa garbi bat, zenbait politikarik kulturaren ikuspegi berri batekiko bidea hartzen dutelarik. Zallok labur baina zuzen adierazten duenez, aldaketa horren oinarrian ez da kulturgintzarekiko gogoeta sakon eta plan estrategikorik topatuko, norabide argirik gabeko desira orokor bat baizik: kulturaren bidez ekonomia suspertzea. Zein kultura mota, zein eduki, zein irudi- eta identitate-lanketa bilatuko den bigarren mailan geratuko da, suspertze ekonomikoaren zioaren azpitik.

Aldaketa horren lehen pausok eragin kontrajarriak izango dituzte. Alde batetik, Zallok aipatu eta Baionako jardunaldietan Arantza Mariskalek azpimarratu bezala, kultura gizarte-oinarritik aldentzen hasi zen ikuspegi gero eta instituzionalizatu eta handiagoetara joz. Ikertzekoa litzateke nondik desbideratu zen kultur azpiegitura handietara zuzendu zen dirua eta horrek zein eragin izan zuen kulturgintzan: Mariskalen esanetan, adibide gisa, Bertsozaleen Elkarteak une horretan desagertzeaz egon zen, diru-laguntzen murrizketa hain izan zelako bortitza, lanean jarraitzeko arazoak izan zituztela.

Ikus-arteetan, aldiz, garai honek alderdi onak izan zituen. Arte inbertsio gisa hartu zen unean, asmoa ez zen soilik turistak erakartzea. Alegia, artistak ere Bilbora lekualdatu, galeria berriak sortu eta giro sortzaile garrantzitsua garatuko

zela espero zen, eta mugimendu horri erantzuteko azpiegiturak eta laguntzak beharrezkoak ziren. Produkzio-espazio gisa jada existitzen zen Donostiako Artelekuk urte bikainak bizi izan zituen 90eko hamarkadan, mintegiak, tailerrak eta jardunaldiak antolatuz, eta oso emankorra izan den artista-belaunaldi bati lanerako eta formakuntzarako esparrua eskainiz. Ildo horri jarraituz sortu zen BilboArte produkzio eta erresidentzia gunea 1996-1997an, Guggenheimen irekierarekin batera, bertaratu behar ziren artista gazteei lanerako leku bat eskaintzeko. Aipagarria da ere Rekalde Aretoaren sorrera 1991n (fase honen hasiera zehazteko erabilitako data, hain zuzen), Guggenheimen aurrekaritzat hartu zena, arte garaikidearekiko ohitura eta zaletasuna sortzeko asmoarekin sortua. XX. mendeko nazioarteko artearen erakusketa handiak garatu ziren bertan, 1995ean, gainera, bigarren areto batean euskal arteari eskainitako mostrak gehituz.

Baina instituzioez gain, ikus-arteetako proposamen independente anitz garatu ziren garai honetan ere, diru-laguntzak baliatuta maiz. Horren eredu dugu 1997an Franck Larcadereen eskutik –Bilbok eskaini behar ei zuen giro sortzaile berriak erakarritako kanpoko artista gutxietakoa– sorturiko Consonni arte ekoizlea. Hala nola Abisal Espazioa, 1996an Bilboko San Frantzisko inguruan artistek kudeatutako erakusketa eta sorkuntza gunea, Guggenheimen lekurik izango ez zuten sortzaile gazte eta esperimental askotarikoek haien beharrei erantzuteko osatutakoa.

Esan daiteke, beraz, garai honetan diru kopuru handiak azpiegitura erraldoi berriak eraikitzen bideratu arren, produkzio espazio itxietan eta elkarte autokudeatuen bitartez antolatutako espazio artistiko alternatibo eta ez horren ikusgarria sustatu zela halaber. Politikariek eraikuntzei eta irudi global orokorrari arreta eskaintzen zieten bitartean, esparruko profesionalek edukiak garatzen zituzten, eta ekosistema bizia mantendu zen hamarkada horren bitartean ikus-arteetako esparruan, herrigintzako eta beste diziplinetako kultur proiektu herrikoiek, aldiz, berme falta sumatzen zuten bitartean.

Bigarren fasea (2001-2011): megamuseoaren hedapena

Ia Bilbon zentratuta garatzen ari zen egoera kulturala guztiz eraldatu zen ‘Guggenheim Bilbao efektua’ deritzona zabaltzen eta globalizatzen hasi bezain laster. Esan bezala, museoak eragindako aldaketa espero baino bortitzagoa izan zen, eta, artegintza beharrean, turismoa puztu zuen. Hortaz, ostalaritza-eskaintzaren zabalkuntza etorri zen, gentrifikazioa, eraikuntza proiektuen eztanda eta hirigintza megaproiektuen planteamendua. Bilbok krisian sartutako beste hirien arreta deitu zuen munduan zehar, eta fenomenoaren ugalketa bilatu zen nonahi.

Museo nazional handiek eman zuten lehen pausoa, eraikin berriak edo zaharren handitzeak arkitekto ezagunei eskatuz: Tate Modern-ek 2000. urtean ireki zituen ateak Londresen, eta Madrilgo Museo Centro de Arte Reina Sofíak 2001ean estreinatu zuen bere zabalkuntza. Ondoren, hiri txikiagoak saiatu ziren bakoitza bere ‘mirari’ propioa abian jartzen; adibide ederra, huts egindakoa, dugu Leongo MUSAC (2005), arte garaikideko testuingururik gabeko Gaztelako hirian aurrekontu erraldoi batez hornituta ireki zen museoa.

EAEn bertan ere utzi zuen Bilbok arrasto argia. Gero eta kultur azpiegitura gehiagoren beharra inposatu zen, be-

la Bilbon zentratuta
garatzen ari zen egoera
kulturala guztiz eraldatu
zen ‘Guggenheim
Bilbao efektua’
deritzona zabaltzen eta
globalizatzen hasi
bezain laster

ti eraikuntza proiektu handi eta garestiei lotuta, eta askotan luzerako ikuspegi iraunkor argirik gabe. Horrela jarri ziren abian Artium museoa (2001ean lehen plangintzak, 2003an irekitzeko), Tabakalerako lehen pausoak 2004an eta inoiz irekitzera iritsi ez zen Krea ekoizpen zentroarenak 2006an. Fase honetako lehen urteak –2001etik 2007ra,

alegia– zentro berrien planifikazioarekin lotzen dira batez ere. Urte horietan aurreko fasean definitzen ari ziren hainbat elementu finkatuz doaz, hurrengo urteetako politiketan oinarritzko eragina izango dutelarik.

Bisitarien kopuruaren garrantzia litzateke lehena. Guggenheimek eragin zuzena izan zuen horretan, EAEko sarre- rarik garestiena izan arren, milioi bisitaritik gorako markan mantendu delako urtetan zehar. Ordura arte gutxi ziren bisitari-kopurua zehatz-mehatz neurtzen zuten zentroak; 2000ko hamarkadan, aldiz, betebeharrak bihurtu zen. Javier Viarrek, 2004ko jardunaldietan, Arte Ederretako Museoan zentzu honetan instituzioen presioa pairatu zutela azpimarratzen du, bizilagunak horrenbeste jende erakarrita, haiengandik antzeko lorpenak eskatuz. Horrela, kalitatea eta kantitatea lotzeko lehen pausoak eman ziren. Guggenheimen erakusketa programa eta arte-inguruneari egiten zion balizko ekarpena aztertu gabe (izan ere, guztiz ilunduta geratu zen aldizkari espezializatuek ildo kontzeptual faltari eta motorren erakusketaren antzeko hit komertzialei egindako kritika zorrotza), komunikabideetan eta politikarien esanetan zabaldu zen bisitari asko izateak ziurtatzen zuela museoaren kalitatea.

Ekonomia izango da kalitatearekin lotzen hasiko den beste kontzeptua, kulturak inguruan sor dezakeen onura ekonomikoari zuzenean egotziz. Bisitarien tasa igotzeak sarreretan gehiago irabaztea suposatzen du, hala nola jatetxe, hotel eta dendetan gastu handiagoa. Guggenheimen eragin ekonomikoa matematikoki neurtzen hasiko da, eta kalitatearen ideia irabaziari lotuko zaio publiko zabalaren zein politikarien iruditegian.

Elementu sotila baina garrantzitsua izango da museo handiek pairatuko duten kudeaketa-sistemaren aldaketa. Izan ere, Guggenheim Bilbao Museoa, instituzio publiko beharrean, diru publikoa jasotzen duen fundazio gisa sortu zen. Hainbat patrono instituzioen ordezkariak diren arren, fundazioa ez da publikoa, eta estatus legal berezia du. Horrek, esaterako, bilduma osatzeko orduan, programazioa egitekoan edo

kontratuak eskaintzerakoan, instituzioek ez duten askatasun liberal handiagoa ematen die. Bada, Guggenheimen ereduari jarraituz, Bilboko Arte Ederretako Museoa 2002an publiko izatetik fundazio izatera pasatu zen, eta Gasteizko Artium museoa zuzenean osatu zen fundazio gisa. Azterketa sakonagoa beharko lukete eredu horrek ekarritako ondorioek.

Bukatzeko, bi puntu azpimarratu nahi nituzke. Lehenengo turismoari lotzen zaio, sektore horretan jarri baitzituen Erkidegoak bere itxaropen guztiak 2000ko hamarkadan. Iraunkortasunean pentsatu gabe, gero eta turista gehiago erakartzeko estrategiak landu ziren. Horren adibide ditugu Tabakalerako edukien zuzendaria izendatu zuteneko Santi Eraso Artelekuko zuzendaria ere zenari 2006an egindako elkarrizketako deklarazioak: «kontua ez da soilik Donostiako publikoarengan pentsatzea, beti hor egongo dena, nazioarteko sareetan barneratzea baizik», dio Erasok, elkarrizketan zehar hainbat alditan nazioartean erakargarri bihurtzearen ideia azpimarratuz (Moyano 2006). Are argiago mintzatzen dira urte berean Mitxel Ezquiagak *El Diario Vasco*-rako egindako Gipuzkoako turismoari buruzko erreportaje sortan elkarrizketatutako agenteak: «Turismo bila dabilzan hirien marketingean oinarritzkoa da ere gertakizun bereziak aurkeztea, kultur hiriburutza bat edo oihartzun mediatiko handiko erakusketa bat kasu, norakoa modan jartzeko», dio Espainiako Herri eta Herrialdeen Federazioaren Zuzendaria zen Violeta Matasek 2006ko adierazpen honetan, etorkizuna aurreikusiz. Eta aurreikuspen gehiago Victoria Álvarez de Sotomayor Iberian Escapades agentziako zuzendariaren esku:

Eskaintza gehigarriak faltan botatzen ditut, San Telmo eraberri-tua, izaera propioa duen kultur zentro bihurtutako Tabakalera edo Arteleku eraginkorragoa. Ostalaritza eta merkataritza lehia-korragoak ahaztu gabe, noski: ezin daiteke onartu jatetxe on guz-tiek astelehenetan ixtea, esate baterako (Ezquiaga 2006).

Beraz, 2000ko hamarkadaren erdialdean zehaztu zen ja-da kulturak turismo eta ekonomiarekin izan behar zuen

harremana, azken bi arlo horietan jarriz pisu handiena, eta horien eragina handitzeko plan estrategikoak planteatuz.

Prentsan topatutako eredu horiek bigarren puntura naramate. Izan ere, helburu horien proiektzioa ez zen soilik klase politikoan barneratu: aztertzeke dago komunikabideek publiko orokorrean sortutako kulturaren ideiaren aldaketan izandako eragina, eta ausartuko nintzateke aurreratzen, froga faltan ere, ikaragarria izan dela. *El Diario Vasco*-k eta *El Correo*-k, hala nola EITBk, Guggenheim egitasmoa onura ekonomiko eta turistikoari lotutako kulturaren irudi bikain eta eztabaidaekin gisa etengabe proiektatu dutela esango nuke, eta gonbita luzatzen diot oso beharrezkoa deritzodan ikerketa hori burutu nahi duenari. Edozein kasutan, begi-bistakoa da kultur politikan izandako aldaketak ez direla publiko orokorraren aldetik gaizki onartuak izan, kontrakoa baizik, eta onarpen horretan lagundu duten elementuen artean komunikabideak funtsezkoak izan direla.

Hala ere, aipatutako ezaugarri horiek finkatuz zihoazen bitartean, eta urte horietako ongizate ekonomikoaren eraginez orobat, oraindik egon zen ikus-artearen esparruan edukietatik abiatuta eta era profesional zein independentean lan egiteko aukera. Horrekin lotzen dira fase honetako azken urteak, 2007tik 2011ra. Urte horietan turismo eta ekonomiaren logikari ihes egiten zieten azken bazterren loraldia ikusi genuen, ongizate ekonomikoaren azken zertzeladek lagunduta.

Hiru dira zentzu honetan azpimarratuko nituzkeen instituzioak: Gasteizen, Montehermoso Zentroa Xabier Arakistainen zuzendaritzapean (2007-2011) eta Amerika Asanbladak kudeatutako hainbat udal areto (2008-2011); eta, Bilbon, Rekalde Aretoa, lehenbizi Chus Martínezen komisariotzapean (2004-2005) eta Leire Vergararen komisariotzarekin ondoren (2006-2009). Hiru espazio horiek aztergai dugun fasean sortu edo eraldatu ziren, ekoizpena eta erakusketa elkartzu eta eduki propioak sortuz. Hots, kanpoan komisariotutako erakusketak ekarri beharrean, Guggenheimek egiten duen moduan, euren erakusketa propioak garatu zituzten, lekuan

lekuko edota gai zehatz batzuei erantzunez maiz, eta artistei aurrekontu bat eskainiz lan berriak sortzeko. Horrekin batera, artelanak osatzen eta interpretatzen zituzten ekimenak antolatzen zituzten: Rekaldeko katalogoak edo Montehermosoko jardunaldi eta aurkezpenak, kasu.

EAEn ordura arte euren erakusketak ekoizten dituzten zentroak museoak ziren batez ere. Montehermoso, Amarika eta Rekalde, aldiz, ez dira bilduma batean oinarritzen diren museo handiak, aurrekontuaren atal nagusia bilduma osatu, mantendu eta kudeatzeko behar dutenak. Horren ordez, *Kunsthalle* sistema jarraitzen dute, tamaina ertainarekin eta errekurtsio guztiak edukien eta artelan berrien ekoizpenera bideratuz. Bada aurretik jada horrela lan egiten zuen espazio bat, Donostiako Koldo Mitxelena, alegia; baina sistema mota horri emandako oihartzun txikiaren eredu da, ikusgarritasun oso gutxi izan duelako beti, nahiz eta beste hiru horien aurrekari garrantzitsua izan.

Laburbilduz, esan genezake azken urte hauetan, nahiz eta kulturaren turistizatze eta espektakulu-irudi bihurtzearen bidea egina egon, ongizate ekonomikoak ahalbidetu zuela logika honetatik kanpo mantenduz ekoizpen eta gogoetatik lan egiten zuten egitura eta agenteek bizirautea. Hala eta guztiz ere, komunikabide eta politikariek etengabe erasotu zituzten hirurak, batez ere bisitari kopuru murrizak egotziz eta ustezko aurrekontu puztuez kexatuz. Bitartean garatzen ziren megaproiektuek (Tabakalera, Donostiako kultur hiri-burutzua, Azkuna Zentroa...) ez zuten, ordea, antzeko erantzunik jaso, askoz ere errekurtsio gehiago behar izan arren.

Hirugarren fasea: paradigma aldaketaren markak (2012-2016)

Fase honi sarrera 2012an emateko arrazoia hauxe da: 2011n Montehermoso zein Amarika proiektuak deuseztu zirela mugarri bezala hartzea. Hala ere, eman ziren pausoak data horren aurretik: esaterako, Rekalde Aretoko komisarioa

zen Leire Vergara kaleratu eta horrekin batera komisarioaren papera instituziotik ezabatu zutenean. Hain zuzen, garai honen ezaugarri nagusietako bat eduki-ekoizpena sortzeari uztea izan zen, lan horretan ziharduten agenteak baztertuz.

Horretarako aitzakia nagusia, noski, krisia izan zen. Horrekin ez da esan nahi krisi ekonomikoa egon ez zenik: jakina da 2011 eta 2012 artean EAEk krisiaren kolpea sumatu eta murrizketa anitz egin behar izan zituela. Hala ere, une aproposa izan zen lehentasunak mahai ganean jarri eta kultur politikak garbitzeko. Hau da, murrizketa horiek bultzatutako erabakiek erakusten digute zein diren politikak sustatu nahi dituen kulturaren balioak.

Esan bezala, ekoizpenerako zentroek sufritu zuten eragin hori azkarren. Publiko espezializatu eta murriztagoa erakartzeagatik batetik, eta beti erosoak ez ziren gogoetak bultzatzeagatik bestetik, Amari-ka Asanbladari diru-laguntza eta aretoen kudeaketa kendu zitzaion; Montehermosotik Arakistainek alde egin, taldea murriztu, aurrekontua bortizki moztu eta zentroa guztiz eraldatu zen; eta Rekalden, aipatu

bezala, komisarioaren figura ezabatu, taldea murriztu eta batez ere instituzio pribatuek (bankuen atal sozialek, esaterako) osatutako produktu aurrez eginak ekartzen hasi ziren. Aldaketa sakon eta osoagoaren erakusle izan ziren gertakizun horiek, hots, kulturaren homogeneousazioarenak.

Kulturaren ekonomizazioan du oinarri sendoa homogeneousazioak. Zalloren hitzetan:

[H]edatzeko joera horrek badu arriskurik. Batetik, kultura hutsaltzen du, bai eta etengabe berritzeko exijentziara murriztu ere, merkatuak eskatuta, eta, paradoxikoki, kultura-politiken gaita-

Krisia une aproposa izan zen lehentasunak mahai ganean jarri eta kultur politikak garbitzeko. Murrizketek bultzatutako erabakiek erakusten digute zein diren politikak sustatu nahi dituen kulturaren balioak

suna mugatzen du, ekonomiarekin lotutako erakunde-arloek sormenaren diskurtsoa bereganatu baitute, I+G+B-rekin gero eta nahasiago dagoen diskurtsoa, bada. Ondorioz, industria soilera murrizten da, eta kultur osagaia desagertzen joateko arriskua dago (Zallo 2016: 25).

Horren erakusle ederra izan da 2016ko uda honetan Smithsonianek Washingtonen antolatutako euskal kulturaren festibala. Proiektu horretan lan egindako Eusko Jaurlaritzako arloak industria, garapena, ekonomia eta turismoa izan dira; hortaz, Arantxa Tapiak egin zuen aurkezpena. Kultura arloko partaidetzarik ez da egon.

Festival horren oinarrian nazioartekotze nahia dago. Baina zelakoa? Gure kultura nazioartera eramatearen zioak argi izan beharko genituzke, ez baita berdina idazleak sustatzea haien liburuen itzulpenak bultzatuz, edo turistak erakartzeko irudi-estrategiak garatzea. Lehenak agente artistikoei onurak dakartzkien bitartean, bigarrenak, ikusiko dugunez, industriak bultzatzen ditu kultur ekoizpen kontzeptual eta askotarikoaren kalterako.

Homogeneizazioa, beraz, politikatik hobesten den kulturaren irudi bakar, bateratu eta salgarria bultzatzean datza, aisialdiarekin lotuta eta ez gogoeta, eztabaida, esperimentazio edo aniztasunarekin. Hori lortzeko, diru-laguntza sistema proiektu estrategiko batzuen inguruan blindatu da; esan beharrik ez dago Guggenheim dela horietako bat. Zulaikaren arabera, 2004an jada EAEko museo guztientzako adostutako aurrekontuaren %80 zeraman horrek (Zulaika 2007: 154). Zaila da egun proportzio hori mantentzen ote den jakitea, Guggenheimen inguruko informazio gehiena itxia eta ezezaguna delako, jarrera hori kultur arlotik oso kritikatu izan den arren.

Guggenheimen tankerako proiektuak lehenesteak eta laguntzak monopolizatzeak krisi garaietan bestelako proiektuen desagertzea ekar dezake, aipatutako hiru erakusketa-aretoen kasuan bezala. Horietan gertatutakoak beste instituzioen gaineko presioa areagotzen du, abisu gisa funtzionatuz. Horrela,

adibidez, bisitarien kopuruaren presioak eraman du Arte Ederretako Museoa kalitate artistiko murriztagoa baina erakarren popular handiagoa duten hainbat erakusketa –Fernando Boterorena, kasu– programatzera. Gero eta gutxiago dira pentsamendu kritikoa, eduki espezializatuak edota praktika ez-ekonomizatuak sustatzen dituzten instituzioak, eta mantentzen direnek eraso errepikatuak jasotzen dituzte komunikabide zein politikariengandik.

Hala ere, azken urteetako krisi ekonomikoak azpiegitura erraldoiak mantentzea garestiegia dela erakutsi du. Horren ordezko bihurtu dira ekimen puntual handiak, Donostiako kultur hiriburutza, esaterako. Lauzpabost urteko inbertsioa, kanpoko instituzioek ordainduta hein batean, puntualki hiri bat ikusgarritasunaren erdigunera eramateko, hurrengo urterako hutsaren hutsa utziz, ordea. Sareak eraikitzeke lekuan lekuko ekimen txikiak indartzea askoz merkeagoa litzatekeen arren, ez du erakargarritasun bera turismoaren ikuspuntutik. Adibide ederra BBK Live festibala da, 1,6 milioiko inbertsioa eskatzen duena, euskal panorama musikalaren sustapenean inolako arrastorik utzi gabe.

Ezaugarri horien guztien elkarketak hainbat ondorio kaltegarri dakartza. Lehena, nahiz eta ez ageriena, praktika esperimentalekiko susmoa sortzea da. Bortizki kritikatzten dira publiko txikiagoentzat pentsatutako proposamen esperimentalak; ebento espektakularren publikoa lortzen ez dutenean, dirua xahutzearen susmoa zabaltzen da. Esaterako, Madrilen ospatzen den ARCO: hain zuzen, bertako lanik zalantzagarri eta interes gutxienekoek euskal artistek egiten dituzten proiektu eta erakusketa handiek baino espazio zabalagoa izaten dute komunikabide askotan. Horrela, publiko orokorrak jarrera ezkorrez hartzen ditu halako praktikak, eta zaila da euren aurreiritzi hori hobetzea.

Arriskutsua da ere kulturgileen arteko isolamendua eta banantzea. Lehia zentzua zabaldu da kultur politketan (izan ere, Azuak jada teknika «*coopetitiva*» izena erabiltzen du kompetizioa eta kooperazioa elkartzen dituen sistema berria

definitzeko –Azua 2007: 79–), murrizketek igorritako mezua batzuek besteei laguntzak kentzen dizkietela izanik. Horrela, sektore desberdinen arteko elkarrizketa gero eta eskasagoa da, agenteen arteko elkarlana kaltetuz.

Lehia sektorearen prekarizazioarekin bat dator: sistema neokapitalistaren bortizkeriak arteak tresna modura erabiltzen ditu irudiak sortzeko, baina horiek esplotatuz, onura ekonomiko gutxi eskainiz salmenta tartean ez bada. Egun, gutxi dira EAEn profesionalki bizi daitezkeen artistak, eta antzeko egoera dago idazle eta arte eszenikoetako artisten artean. Kultur politikek, ordea, ez dute egoera hori hobetzeko inolako biderik abiatu, eta horrek egileak diru-laguntzen menpeko izatera eramaten ditu.

Asko elikatu dira ere profesionalki eta herrigintzatik dabilzan agenteen arteko susmoak, homogeneizazioarekin lotuta berriz ere. Politikek gero eta kontrolatuagoa dute kulturaren irudia: maila ertaineko turista erakartzeko, hiri garbia,

Egun, gutxi dira EAEn profesionalki bizi daitezkeen artistak. Kultur politikek, ordea, ez dute egoera hori hobetzeko biderik abiatu, eta horrek egileak diru-laguntzen menpeko izatera eramaten ditu

moderno eta globala eskaini nahi da, eroso eta lasaia. Horrek irudiarekin bat ez datozen eta lehen onartzen ziren bestelako kultur praktikak baztertzer darama, Kukutza eta Kortxoenearen kasuetan ikusi bezala. Kortxoenean, gainera, oso modu argian burutu zen itxiera Tabakalera ireki behar zen aste berean, osagarriak diren bi kultur aukera kontrajarri eta bateraezintzat aurkeztuz. Horrela, kultura bakar ba-

ten alde egitera bultzatzen gaituzte, benetako aberastasuna kultur praktika askotariko eta desberdinak izatea denean.

Esan genezake hiriaren zein kulturaren irudiaren bahiketaren aurrean gaudela, hori dela egungo paradigma berria: turismoari zuzendutako irudi homogeneoa sortu nahi da,

aisiarekin lotutakoa, izaera kritikorik gabekoa eta kontes-tualizazio gehiegirik behar ez duena. Irudi horrekin bat ez datozen eta irabazi ekonomikoak ez dakartzaten publikoak baztertzen dira (okupak, kasu) eta autogestioa eta herri-sa-reak zokoratzen dira. Identitatea, euskal identitatea geure kasuan, banalizatu eta komertzializatzen da: Frantzian ger-tatzen den moduan, non estatu gabeko nazioen ikurrinak trapuak dekoratzeko anekdota *régional*-ak bihurtu diren; euskal kultura gero eta gehiago da bazkari onez hornituta-ko opor lasai eta erosoan elementu osagarrietako bat, hondo kontzeptualik gabeko irudi hutsa.

Ihesa

Finkatutzat jo dezakegun paradigma aldaketa honen aurrean, zein dira euskal kulturako eragileok eman ditzakegun pau-soak, gure kultur identitateak ihes egin aurretik guk sistema honi ihes egin diezaiozun?

Polita litzateke printzipio kapitalistetatik at bizi den kultura sistema batez hitz egitea; fantasia litzateke, aldi berean. Hala ere, kulturgintza eta herrigintzatik pausoak eman daitezke behintzat eraldaketak bilatu eta hainbat joera geldiarazteko, eta erabakiak gure esku egon daitezen eskatzeko.

Lehena sareen sorketan datza. Aipatutako isolamenduak kalte handia egin dio kulturgintzari, taldearen bermea ez de-lako behar bezain indartsua. Zentzu horretan, eta argitalpen honen ideiarekin harira, itun bat lagungarria izango litzateke, hori adosteko eta eztabaidatzeko sor daitezkeen sareetan egongo delako benetako eraldaketaren aukera. Nahiz eta ituna sekula ez borobildu, elkarlan zehatzagoak sortuko di-ra, norabide desberdin baterako bideak, eta horrek institu-zioen aurrean indartuko gaituen posizio kritiko sendoagoa eskainiko digu.

Bestetik, oso beharrezkoa da eragin ekonomikotik alden-tzen diren kultura aztertzeke irizpide berrien proposamena. Estetikoak eta esperimentalak, batetik, gero eta leku gutxiago

dutelako. Aldi berean, sozialak, hizkuntzaren aldekoak edota genero ikuspegi ahalungarriak eskaintzen dituztenak proposatu eta zehaztu beharko genituzke. Irizpide horiek publiko orokorrari zabaldu beharko litzaizkieke, hezkuntzaren zein bestelako bideen bitartez, kultura irakurri eta gozatzeko baliabide berriak eskaintzeko. Gainera, irizpide horiek kolaborazioan oinarrituta egon beharko lirarteke, lehiaren ideia baztertuz eta bakoitzak sortzen duen jakintza besteontzat iturri gisa hartuz.

Azken urteotan kultura irudi-fabrika bihurtzera bideratu dute kultur politikak, publizitate sexi bat balitz legez, eta gogoeta, kooperazioa, sarea eta esperimantazioa baztertuz. Geure esku dago, elkarlanean eta egoeraz kontziente, joera horiek salatu eta eraldatzea, marfilezko dorre prekarioak alde batera utziz. 🌱

Oharrak

1. www.nytimes.com/1997/09/07/magazine/the-miracle-in-bilbao.html?pagewanted=all
2. Sailkapen hori egiteko erabiliko diren datak gutxi gorabeherakoak dira orokorrean, aldaketa-prozesuetan une zehatzak markatzea ezinezkoa izaten den heinean.

Bibliografia

- Azua, J. (2007): 'El Guggenheim Bilbao: estrategias 'cooperativas' para los nuevos espacios cultural-económicos', in Guasch eta Zulaika (2007: 77-100).
- Esteban, I. (2007): *El efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento*, Anagrama, Bartzelona.
- Ezquiaga, M. (2006): 'Los defectos del turismo guipuzcoano', *El Diario Vasco*, 2006-02-16 (www.diariovasco.com/pg060216/prensa/noticias/ALDia/200602/16/DVA-ALD-286.html; 2016-07-15ean kontsultatua).
- Guasch, A. M.; Zulaika, J. (argk.) (2007): *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*, Akal, Madril.
- Moyano, A. (2006): 'Santi Eraso, Director del Área de Contenidos del Proyecto Tabacalera: «Debemos trabajar con públicos locales, pero también y mucho con los internacionales»', *El Diario Vasco*, 2006-01-24 (www.diariovasco.com/pg060124/prensa/noticias/Cultura/200601/24/DVA-CUL-327.html; 2016-07-15ean kontsultatua).
- Viar, J. (2007): 'El Guggenheim, un socio para las artes: una visión desde el Museo de Bellas Artes de Bilbao', in Guasch eta Zulaika (2007: 101-116).
- Zallo, R. (2016): *Balio-katearen analisisa eta kultura-politikarako proposamenak. Kulturaren egoerari buruzko lehenengo txostena. EAE 2015*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- Zulaika, J. (2007): 'Bilbao deseada: el malestar desde la 'Krensificación' del museo', in Guasch eta Zulaika (2007: 153-178).

Bi gogoeta politikatik arteari buruz

Hedoi Etxarte

Itzulpengintzan eta Biolinean lizentziaduna

Sarritan, artearen eta politikaren arteko eztabaida autonomiaren inguruko eztabaidara murriztu ohi da. Ziurrenik, adierazpen askatasunaren kontzepzio liberala tarteko eta kapitalismo errealearen garaipenarengatik. Adierazpen askatasunaren kontzepzio horretatik eratorritako autonomiaren ideia aplikatzen da berdin sozialismo errealeko artea aztertzean, politikoki konprometitutako gizarte kapitalistetako arteaz aritzean, eta baita kapitalismo errealeko edozein arte adierazpen aztertzean ere.

Jarraian, bi kontsiderazio planteatu ditut aurreko eskematik kanpo. Kanpo, artearen autonomiaren eztabaida murriztaile delako: ekonomia –ekonomia kapitalista, gainera– naturalizat jotzen duelako, adibidez. Eta natural jota ez duelako bere existentzia eta eztabaidan duen eragina kontenplatu ere egiten. Aldi berean, politikaren irakurketa murriztailea egiten du: politika errepresentazio partidistaren, maila simbolikoaren eremura mugatzen duelako. Egindako bi kontsiderazio orokorrak adibide historikoetan kokatu ditut: bata, SESBen lehenengo urteetan, Boris Groysen irakurketetatik; bestea, Grezia eta Erroman Hannah Arendten sintesietatik. Artea, politika eta ekonomia tentsioan egon direneko uneen adibide gisa.

Jazza Moskun edo artea estatu afera denean

1937an 20 urte betetzen ziren Urriko Iraultzatik. Gainera, Puxkinen heriotzaren 100 urte betetzen ziren. *The New York Times*-en kazetariak erreportaje bat idatzi zuen mendeurrenaren kontura: «Mosku osoa dago Puxkinez zoratzen bere heriotzaren hungarren urteurrenean». Puxkinen mendeurrena estatu afera bat zen, Alderdi Komunistaren zuzendaritzarentzako gertakizun garrantzitsua zen, eta SESBen Batzorde Exekutibo Zentralarentzat, Herriaren Komisarioen Kontseiluarentzat. Kaleei, plazei, antzokiei, liburutegiei izenak aldatu zitzaizkien eta idazle dezenbristak hartu zuen udalerrietako kartografia. Otsailak 10eko *Izvestia* egunkarian irakur zitekeen mundu osoan zeuden itsasontzi sobietarretan errepresentatu zirela *Eugenio Onegin*, *Boris Godunov* edota *Poltava*-ren pasarteak. Puxkin burkide bihurtu zuten. Puxkinen lanetako pasarteak bihurtu ziren, baita ere, garaiko posizio politikoak zeharka libratzeko moduak (Schlögel 2014: 240).

1937a musikari sobietarrentzat izan zen bereziki ona. Nazioartean biolinistek, biolontxelistek, pianistek sari entzute-tsuak irabazi zituzten. Ondoren oso ezagunak izango ziren David Oistrakh, Busia Goldstein edota Rosa Tamarkina mundu mailako lehiaketetan famatu ziren. Ikuskizunen merkatuaren menpeko Europako musika klasikoa dekadentzia fasean zegoen, zahartuta. Sobietar Batasunak, politika zentroan jarrita, arteari zentraltasuna eman zion.

Hori zelako, eta delako, funtsean, mundua kapitalismo errealean edo sozialismo errealean antolatuta dagoen diferentzia funtsezkoa. Kapitalismoak ekonomia jartzen du zentroan eta horren gainean antolatzen du mundua. Sozialismoak politika jartzen du zentroan eta horren bidez eraikitzen du mundua. Politikaren zentraltasunak artearen eztabaida zabaltzen du, garrantzitsu bihurtzeko aukera ematen diolako.

Eta sobietarrek estatu oso bat jarri zuten martxan kanalak, eskolak, haur-eskolak eta unibertsitateak eraikitzeko, edota Puxkinen urteurrena ospatzeko. Mendebaldean, musika

klasikoko merkatuak, XIX. mendetik, birtuosoak nahi zituen. Eta Stalinen orientazioaren bidez, interprete sobietarrek «klasizismo musikal sobietar» bat eratu zuten, birtuosismoaren akatsak ekiditeko. SESB ez zen atzerritik iraultza teknologikoa egin zuen estatu gisa soilik ulertzen, musika klasikoa landu zuen estatu gisa ikusten zen. Musikari sobietarren arrakastak ekoizpenaren edo espian edo sabotaje troskisten albisteekin batera irakurtzen ziren sobietar prentsari. Herrialde analfabeto batetik herrialde kulturako bidean sortu ziren birtuosoak: bilatu gabe.

Gainera, 30eko hamarkadako sobietar Errusian kosmos akustikoaren aldaketa sakona gertatu zen. Zibilizazio berri hartan makinak zeuden, labe garaiak, burdinbideak. Alegia: makinaren durundi errepikakorrak, burdina urtuaren ibaien zurrumurrak, fabriketako sirenen txilioak. Asfaltoaren gainean autobusak entzuten ziren. Zinemetatik pianistak eta orkestrak atera zituzten eta filmen soinu bandek ordezkatu zituzten. Irratiak entzumen eremu nazionala sortu zuen. Parkeetan, plaza publikoetan, etxebizitzetan bozgorailuak zeuden edonon. Unibertso akustikoa erabat aldatu zen.

Eta 'garaiaren zurrumurru' horren parte zen musika ere. 1937ak hiru konpositore izan zituen, hiru generotan: Leonid Utiosov-en *jazzband*-a; Isaak Dunaievski-ren filmentzako eta abesti herrikoientzako musika eta Dmitri Xostakovitxen *Bosgarren sinfonia*.

1936 amaieran eta 1937 hasieran, *Izvestia* eta *Pravda* herrialdeko bi egunkari nagusietan eztabaida bizi bat egon zen jazzari buruz. Eztabaidotan kulturako funtzionario

Kapitalismoak ekonomia jartzen du zentroan eta horren gainean antolatzen du mundua. Sozialismoak politika jartzen du zentroan eta horren bidez eraikitzen du mundua. Politikaren zentraltasunak artearen eztabaida zabaltzen du

nabarmenenek parte hartu zuten. Stalinek ere zuzenean parte hartu zuen. Eztabaidaren funtsa, Karl Schlägelen aburuz, hala laburbildu dezakegu: jazz proletarioa existitu zitekeen? Ala jazza genero burges eta dekadentea zen?

Irudika ditzagun, analogia erabilia, gaur egun, *Moombah-ton*-ari buruzko eztabaida batean Euskal Herriko eragile artistiko, instituzioetako funtzionario, mugimendu sozialetako eta alderdi politikoetako kideak iritziak gurutzatzen. Ez. Hori politika zentroan jarri den leku batean gerta daiteke. Hemen hitz egingo dugu abestien edo poemen lizentziaz. Hitz egingo dugu taldeen aurrekontuez, udalek azpikontratatzan dituzten musika jaialdiez: ekonomiaz. Edo ze hitz dauzkaten taldeek, azaleko exegesiak. Baina ez dugu arteaz hitz egingo.

Itzul gaitezen 1937ko Moskura. Jazzaren gaineko eztabaidako azken hitza, lehenengo errondan, *Pravda*-k izan zuen, eta jazz proletario eta sobietar baten aldeko posizioa hartu zuen. Urte hartako Moskuko kultur ekitaldien agendari begiratuta, gaia ez zen bazterretako afera. Utiosoven kontzertuetarako txartelak, adibidez, gauero bukatzen ziren. 1937ko uztailean, Armada Gorriaren Moskuko Etxe Nagusian, Estrade Antzokian jo zuen kontzerturakoak ere amaitu ziren.

Uztailaren 19ko *Vetxernaia Moskva*-ko Labkovskiren iruzkinean irakur zitekeen argi geratu zela entretenimenduzko kontzertu hark «maila artistiko gorena» zuela eta kalitatea zuela. Musikariak garapen handia zuela, beste batzuek gauza bera egiten segitzen zuten artean. Bere musikak bazuela umorea, probokazioa, lirika.

Utiosov kupleak egiten hasi zen, operetetara pasa zen, antzerki minimalistan eta zinean bukatzeko. Entrenimenduzko musikari «nabarmena» zela zioen iruzkinak: «alaita, bizitzeko gogoekin, esna zegoela». Are gehiago, Labkovski kritikariaren arabera, Utiosoven konposizioek atzera bultzatzen gabe bide bat erakusten zuten: *tea-jazz*-etik musika dendara hedatuko zen kontua, gero jazz orkestretara, eta masentzako abesti alaiak kutsatuko zituen «bizitzeko gogoz beteta zeuden masak, odol sobietar purua zeukatenak».

Ez zen Estrade Antzokia jazza jotzen zen leku bakarra. Kafetegietan egoteaz gain, hotel ia guztiek zeukaten haien jazz taldea –hala jaso zuen *The New York Times*-en korrespondentsal batek 1935eko erreportaje batean ere–, langileen klubetan jazz kontzertuak eskaintzen ziren, traktoreen fabriketan, Maiatzaren Bateko Plaza Gorrian jazza jotzen zen, Kremlinako Urte Berriko galan ere bai.

Utiosovek zubi bat eraiki zuen AEBetako musika beltzaren, musika judutar herrikoia, ukrainarraren eta errusiarraren artean. Eta SESBeko jazzaren munduko beste hainbat bezala, hegoaldetik iritsi zen eta elite kulturalaren parte izatea lortu zuten. Utiosov eta bere banda SESB osoan ziren ezagunak. Frederick Starr-en arabera, «Stalinen ostean SESBeko pertsonarik ezagunena zen. Ez zegoen inolako artista klasikorik, ezta alor batean, Utiosovek bezainbeste jarraitzaile erakar zitzakeenik» (*idem*: 673-678).

Abangoardia: arteak politikak bezala jokatu nahi duenean

Beste modu batera esango dut gauza bera. Baina, abangoardia artistikoez hitz egin aurretik, abangoardia politikoei buruzko azalpen kontzeptual bat egin nahi nuke.

Zeren ezagutzen ditugun XX. mendeko abangoardia artistikoek haien jarduna alderdi komunistei kopiatu zieten. Alderdi komunistek egunkariak zituzten eta abangoardia artistikoek manifestuak –eguneratzen ziren manifestuak, alderdi komunistak egiten zuen bezalaxe–. Alderdi komunistek batzarrak egiten zituzten, etsaiak izendatu, estrategiak adostu, norabideak aldatu. Abangoardia artistikoek erakusketak eta erakustaldiak egiten zituzten, etsaiak izendatu, traidoreak, estrategiak adostu.

Baina, aldi berean, 1917ko Urriko Iraultzan eta I. Mundu Gerran eratu ziren langileen alderdiek inspirazio militarra izan zuten. Armadek dauzkate abangoardiak eta erretagoardiak. Eta bada Alain Badiouk 1917ko kuarteleko sozialismoari

ematen dion azalpen historikoki, eta estrategikoki, konbinzente bat. Esplikazio horren arabera Leninek politika militarizatu zuen.¹

Karl Marxek 1840ko Europako iraultzetan parte hartu zuen eta intsurrekzionalismorako joera zeukan. 30 urte beranduego jazo zen Parisko Komunaren frakaso tragikoa. Langileek hiria okupatu eta gobernatu zuten, baina, errepresio odoltsu baten ondorioz, bi hilabeteren buruan galdu egin zuten. Komunak intsurrekzio dezimononikoaren maila gorena eta muga erakutsi zuen. Bere errautsen gainean galdera handi bat sortu zen: «jarraitu behar dugu intsurrekzioa eredu eraginkor eta zilegi gisa erabiltzen proletarioen iraultzarako?». Eta batzuek ezetz esan zuten. Eta alderdiak muntatu zituzten eta parlamentuetara jo zuten. Han sortu zen gaur egunera arte iritsi den tradizio sozialdemokrata, kapitalismo parlamentarioaren tradizioa, praxia, filosofia.

Baina beste batzuek pentsatu zuten altxamenduak egitea bideragarria zela eta ezinbestekoa. Eta hor azaldu zen Lenin –Badiouren ustez, pentsalari eta aktibista politiko bat–. Eta Leninek, aurrez Marxek bezala, Komunaren frakaso aztertu zuen. Liderren arduragabekeria seinatu zuen. Baina zera adierazi zuen: akatsa, funtsean, antolakuntza falta dramatikoak izan zela. Eta hor eraiki zuen Leninek bere hipotesia: intsurrekzioa posible izango da baldin eta tresna espezializatu, militarizatu eta izugarri diziplinatua baldin badugu. Edo, Leninen hitzetan esateko, «intsurrekzioa arte bat da», eta arteak teknika propioak dauzka, artisautza, iruditeria, desira, komunikazioa. Edo Badiouren hitzekin esateko: «politika ezin da zientzia ekonomikoekin edo historiarekin nahastu, pentsamendu praktikoa independente bat da» (Badiou 2015: 48-49).

Eta zer gertatzen da 1917an? Bada Leninen hipotesiak arrakasta daukala. Leninismoaren historia da ia ezinezkoa zen hipotesi baten burutzea. 1917an –Badiouren hitzetan– Leninek politikari buruz zuen kontzepzioak irabazten du, aukeren eta egoeren arte gisa, subjektibitateak eta antolakuntzak

lehenetasuna izan behar duten politika ulertzeko modu bat gailentzen delako (*idem*: 50).

Garaile izan nahi duenak irabazleak imitatzen ditu. Eta mugimendu libertariora lerratu ez zen politika iraultzailea leninismora lerratu zen 1917tik aurrera. Eta arte iraultzailea egin nahi zutenak ere leninismoaren estrategietara lerratu ziren.

Terry Eagleton-en arabera, artean abangoardiak bi une izan zituen. Bata negatiboa eta bestea positiboa. Negatiboa izan zen *shock*-a erabili zueneko. Mona Lisari bibotea margotu zioteneko. Planteamendu horren gainean politika bat pentsatzea zaila zen. Abangardia negatiboak modernismo negatibo

bat bilatzen zuen, zentzuaren suntsiketa bat. Haren hipotesia zen burgesiak ezin zuela onartu zentzu falta. Eskandalua zuen funts. Gaur egungo *happening* mediatikoeak bezala. Esaterako, pentsatu al zuen Abel Azconak, bere artelanak egin aurretik, ze ondorio utziko zituen Iruñean bere performanceak? Ze ondorio zeuzkan langile atoen eta kristauen arteko bizikidetzan? Kristauen eta musulmanen artekoetan? Artearen zaleen eta artearekiko interesik ez dutenen artean? Hiriko eta Nafarroako erakunde ahulen eta Erregimenaren, *Corralito*-aren, artean?

Baina abangoardiak izan zuen –Eagletonen arabera– une positibo bat. Brechtena Dadaren parean. Brecht harritzen zen abangardia negatiboak kexatzen zirenean ‘Picassoak’ banketxeetako hormetan zeudelako. Nola zen hori posible? Halakoak ere egiten dira gaur egun, ultraezkerretik. Baina abangardia positiboak –Brechtetik, esaterako, haragitu zuenak– argi zuen: Picassoek banketxeetako hormetan bukatzea gutxienekoa zen. Artefaktu iraultzaileek banketxeetan bukatzen badute, horrek gauza bakarra esan nahi du: afera ez da

Eagleton-en arabera, artean abangoardiak bi une izan zituen. Negatiboa, *shock*-a erabili zueneko. Baina izan zuen une positibo bat. Brechtena Dadaren parean

artelanak ez zirela nahikoa ikonoklastak eta esperimantalak. Afera da ez zeudela nahikoa sustraituta mugimendu politiko iraultzaile batean. Eta sustraituta baldin bazeuden, masa mugimendu horrek huts egin zuela. Eagletonek dio idealismo handia dagoela uste bada *arteak* bakarrik, bere horretan, asimilazioa ekidin dezakeela. Apropiazioak politikarekin du zerikusia. ‘Haiek’ irabazten badute, gobernatzen jarraitzen badute, dena neutralizatu eta irentsiko dute. ‘Zuk’ irabazten baduzu, ezingo dute ezer xurgatu, zeuk erabakiko duzula-ko haiek esan nahi dutena. Burgesiak jasan ezin duen gauza bakarra bere porrot politikoa da.

Abangoardia negatiboa egun zinismoan bukatu duen posizio bat da. Eagletonek hala sintetizatzen du:

Egia gezur bat da; moraltasunari kiratsa dario; edertasuna kaka putza da. Eta noski, egia da. Eta egia Etxe Zuriko komunikatu bat da; moraltasuna gehiengoaren morala da; edertasuna emakume biluzi bat da lurrin bat iragartzen. Baina, hara, oker dabilta aldi berean. Egia, moraltasuna eta edertasuna garrantzitsuegiak dira etsai politikoari harrokeria horrekin entregatzeko (Eagleton 2011: 453-454).

Georg Lukácsekin polemikan, abangoardia artistikoaren honako *irudikapen koreografikoa* egin zuen Brechtek:

Afera ez da [artistak jendetzatik, langileen artetik] pauso bat atzera ematea. Afera ez da [artearen] garai on zahar horietara itzultzea, baizik eta garai txar berrietara etortzea. Gizakia ez da berriro gizaki bihurtzen masetatik pauso bat albo batera emanez, baizik eta pauso bat barrura emanez (Brecht 2007: 69).

Edo Brechtek berak erabilitako abangoardiaren *irudikapen militarrean* esateko: «Abangoardia batek eraman gaitzake errendiziora, edo amildegira. Abangoardia batek aurrean joan behar du, baina armada erregularrak ikus dezakeen azken punturaino, zeren ikusteari uzten badio galduko da. Irrealista baldin bada bere funtzioa galduko du. Gorputzaren enborretik bereizten bada» bere funtzioa galduko du. Beraz, «datz daitezke literaturako pasarte osoak, haien itxurengatik,

erradikalak direlakoan, baina funtsean erreformistak izan daitezke haien ondorio sozialak aztertuta» (*idem*: 72).

Baina, funtsean, Brechten erabaki artistikoen eta eztabaida estetikoen posizioak artetik pentsatuak zeuden. Alegia, politika partidistetatik. Ez antikapitalismo banal batetik –edonork egun besarkatu ditzakeen posizio batzuetatik–, baizik eta utopia batetik, identitaterik gabeko subjektu batetik eta batentzat, anti-identitatea diren proletarioek proletarioentzat.

Zentzu horretan, interesgarria da Lukácsekin eduki zuen eztabaidan, eta arte errealistari buruzko puntuan, Brechtek *herrikoi* kontzeptuari buruz eman zuen definizioa. Plastikotasun sozial handikoa delako, jerga politikoan dagoelako esana ia-ia:

Gure herrikoiaren kontzeptuak erreferentzia egiten dio [...] historia egiten duen jende bati, mundua eta euren buruak aldatzen dituen jendeari. Buruan daukagun jendea borrokalaria da eta horregatik *herrikoiaren* kontzepzio erasokor bat daukagu.

[Baina] herrikoik esan nahi du: masa zabalentzako ulergarria, bere adierazpideetako formak hartzea eta aberastea / haien posizioak geure gain hartzea, nabarmenduz eta zuzenduz / herriaren sektorerik aurreratuenak errepresentatzea, lidergoa hartzen has daitezen, eta horregatik, herriaren sektore ez hain aurreratuentzat ulergarria izatea / tradizioekin harremana izan dezala eta tradizioak gara ditzala... (*idem*: 81).

Politikak artistak erreskatatzen dituenean

Artearen eta politikaren arteko bataila aspaldikoa da.

Boris Groysek kontatzen du, *Gesamtkunstwerk Stalin* liburuan (Groys 2008), Urriko Iraultzaren ostetik 70 urtera SESBen estetikak, artistek eta politikak izan zuten lotura. Liburuaren helburuetako bat gaztelaniazko kontrazalean iragartzen du Groysek:

Urriko Iraultzaren ostean Errusian boterera iritsi zen mundu hark ez zuen soilik jendarte justuagoa ekarri nahi edota pertsonen ongizate ekonomiko handiagoa ziurtatu nahi: mundu hark, eta aurrekoa baino garrantzi handiagoarekin, ederra izan behar zuen.

AEBen eta SESBen arteko polarizazioa eraiki dezakegu puntu honetan. AEBek zorientasuna bilatzen zuten.² SESBek edertasuna.

Groysek aztertzen du Urriko Iraultza babestu zuten artisten, abangoardien eta Alderdiaren, zuzendaritza politikoen eta administrazio kulturalen arteko harremana. Eta liburuak, lerroz lerro, ondorio nabarmen bat uzten digu:

Artistek, poetek, idazleek eta abangoardietako publizistek [Gerra Zibila amaitutakoan] gero eta intsistentzia handiagoarekin konbinatzen zituzten akusazio estetikoak eta politikoak, estatuaren botereari itzulingururik gabe haien arerio [artistikoen] kontra errepresioa erabil zezatela eskatuz. Baina –eta hau da SESBeko artista idealizatuarekiko gerora izan dezakegun ironia handietako bat– erregimen sobietarra gero eta egonkorragoa egin zen neurrian, abangoardia artistikoaren oinarria murriztuz joan zen, besteak beste, hasieran boltxebikeekiko etsakorrek ziren zirkulu intelektualak erregimena babesten hasi zirelako. Ekonomia Politiko Berria abian jarri zenetik, merkatu artistiko berri bat sortu zen, eta EPBk sortu zuen burgesia berriari erabat arrotzak zitzaizkion abangoardiaren estetikak, eta are gehiago politika [fratrizida]. Hain justu, EPBren garaian, alegia, 1922tik aurrera, eta inola ere ez hogeita hamarreko hamarkadan, hasi zen abangoardien mugimenduen ilunabarra, eta hogeiko hamarkadaren amaierarako erabat galdu zuen bere eragina herrialdean, nahiz eta existitzen jarraitu zuen, nahiko modu apalean (Groys 2008: 62-63).

Baina, Ekonomia Politiko Berria bukatu zen –1928tik aurrera–, eta horrek

... arte pribatuaren merkatua likidatu zuen eta «arte sobietarren berebiziko troparen fronteari» eman zion bidea eskusiboki, estatuaren enkarguz. Eta kultura guztia «Alderdiaren kudeaketaren parte bat» bihurtu zen, Leninen formula ospetsua erabiliz, eta kasu honetan: populazio sobietarra mobilizatzeko baliabide bat bihurtu zen Alderdiak herrialdea berregituratzeko zituena programak betetzeko. Eta, hala, bete egin zen Maiakovski LEFeko [*Levy Front Iskusstv*, Arteen Ezkerreko Frontea] liderraren desira, bere bertsoak gobernuak eztabaida zitzala nahi zuen «langileen frontearenarekin» batera; idatzi zuen bezala, «pareka zezatela luma eta baioneta»; bera edozein enpresa sobietar bezalako zelako, kontuak eman behar zizkiola Alderdiari.

Artearen –eta politikaren– historiaren ironia hauxe izan zen: arte kolektiboa politikaren menpe jartzeko programa ez zuten hala amestu zuten Rodtxenkok edo Maiakovskik egin, baizik eta, metafora gisa, Stalinek. Rodtxenkok eta Maiakovskik proiektu politiko-estetiko batean sinistu eta hura garatzen lan egin zuten. Alderdia, aldi berean, estetizatu zen, baina artista taldeen inguruko polemiketan ez zen sartu ohi, baldin eta artistek ez bazuten posizio bat hartzera behartzen.

Jarraian, bi mila urte lehenagoko testuingurua ikusiko dugu. Baina, funtsean, antzinako Grezian eta Sobiet Batasunean antzekoa gertatzen zen. Groysen hitzetan:

Abangoardia [artistikoaren] pertsekuzio [politikoak] erakusten duena da, bere horretan, [artistek] boterearen eremu berean lan egiten zutela (*idem*: 83).

Poetaren destino petrala

Hannah Arendten 1958ko idazki baten arabera, «artelanak uki daitezkeen gauzetatik intentsitate mundutar handiena dutenak dira; haien izaera iraunkorrerengatik ez dira ia hitzartzen prozesu naturalen ondorio korrosiboengatik» (Arendt 2014: 33).

Urtebete beranduagoko testu batean, aisialdiaren industriari egindako kritika gogor batean –*Panem et circenses*-en kritika klasikotik abiatuta–, kulturaren eta kapitalismo parlamentarioaren arteko oposizio bat artikulatu zuen:

Bada ideia orokortu bat zeinaren arabera demokrazia kulturaren kontra dagoen –eta hemen uler dezakegu demokrazia politika gisa eta kultura arte gisa–, eta kultura soilik loratu daitekeela aristokraziaren artean, irakurketa zuzena da demokrazia ulertzeko badugu pertsonen eta munduaren sozializazioaren adierazpen gisa [...]. Kulturarentzako eraso dena, edozein kasutan, [masa] gizartearen existentzia da (*idem*: 44).

Funtsean, Arendtek adierazten zuen «kulturarekiko ezin negona» oso berria zela, masa kulturarekin zerikusia zuela, sozializazio omnipresentearekin zerikusia zuela.

Horregatik, eta gure garaian, Arendten hitzetan:

Esteta exijentzia politikoez ezjakina da, eta saiatuko da kulturaren alde egiten gatazka honetan; politikaria, ordea, ekoizpen kulturalaren beharren ezjakin, politikaren alde egingo du, alegia, kultur politiken alde.

Are gehiago:

Estetak filisteo kulturala ekarriko digu gogora, zeinak uste zuen 'balio' gorenak –alegia, kulturalak– politikaren esferara eramanda orbanduko zirela eta degradatuko zirela.

Eta kontrara esaten zuen, erregimen totalitarioetan politikak erabat suntsitua zuela kultura bera: politikatik (*idem*: 45).

Bere argudiaketak oinarritzeko, Arendtek atzera egiten zuen denboran. Garai klasikoari begiratzen zion, Antzinako Erroma zein Greziari. Garai hartan, kultura ez zen gaur egun bezala ulertzen; baina gaur egun artearen baitan kokatuko genituzkeen objektuak ekoizten ziren, alegia, baziren artisauak eta artistak. Eta artista horiek irudikortasunak sortzen zituzten. Jende askorengan horrenbeste etsaitasun sortzen zuten, ezen uste baitzuten ezin zirela artistak eta artisauak hiritarren eskubide guztien jabe izan.

Arendten esanetan:

Erromatarrek, adibidez, kulturaren eta politikaren arteko gatazka oso modu irmoan konpondu zuten politikaren alde, hainbeste ezen kultura Greziatik inportatutako fenomeno gisa ikusten bukatu baitzuten.

Alegia, abeslaria eta poeta ekilibristaren eta bufoiaren maila berean zeuzkatela. Arendten ustez, 'kultura' hitzaren jatorri erromatarrek ere horixe adierazten du: 'lurra lantzetik' datorrela, eta ez ekoizpenetik edota sormenetik, baizik eta zaintzatik –guardia egitearen eta zaintzearen bi zentzuetan–. Baina, zentzu horretan, erromatarrek politikarekiko zuten jarrera ere nahikoa antzekoa zen: ongi sustraitutako printzipio jakin batzuk babestu eta zaindu nahi zituzten. Printzipio horiek sakratuak ziren.

Egungo mendebaldeko gizarteetan, 'kultura' esan nahi deanean, esaten dena ez da gehiegi aldatu erromatarren garaitik. Nahiz eta Erromaren garaian kulturaren eta politikaren arteko harremana ez zen bereziki emankorra izan. Arendten hitzetan:

Erromatarrek ez zuten serio hartzen inolako gertakizun kultural zaintza merezi zuen objektu bat zela kontsideratzen zuten arte, *res publica*-ren parte izan arte. Lehenengo garaian, ez zuten uzten artistek eta poetek inolako proiekturik aurrera eraman zezaaten, uste baitzuten haur joko horiek ez zirela ongi uztartzen *gravitas*-arekin, hiritarraren solemnitaterik eta duintasunarekin. Uste zuten ekoizpen mota horrek ez zuela inoiz sortuko esfera politikoak sortuko zuen ekintza batekin parekagarria [...] izango zen zerbait. Eredu greziarraren ekoizteko ahalmena aztertuta, ordea, esan daiteke Atenasen behintzat politikaren eta kulturaren arteko gatazkak ez zuela inoiz nabarmenki aldeetako baten onura ekarri, eta ez zela ere interlokuziorik egon bien artean, erabateko indiferentzia baizik (*idem*: 47).

Grezian, kultura esfera politikotik ikusten zenean, entzuten zen *polis*-a, politikoa, jakintzarekiko maitasunari eta edertasunarekiko maitasunari mugak jartzen zizkion eremua zela. Gehiegikeriak ekiditearen beharra bertute politiko bat zen. Greziarrek euren buruak barbaroen gainetik ikusten zituzten politikarengatik. Edo Arendten hitzekin esateko:

[Greziarrek] ez zuten inolaz ere uste haien kultura-maila gorena zenik hain zibilizatuak ez ziren herrien aurrean bereizten zituen ezaugarria, are kontrakoa: polisa zen kulturala zen hori guztiori mugatzen zuena.

Arendtek Perikles politikariarengana jotzea gomendatzen digu, garaian zeuden eta egun gertukoak ditugun gogoetak jasotzeko: egiaren eta edertasunaren artean sortzen direnak, batetik, eta pentsamenduaren eta ekintzaren artean sortzen direnak, bestetik. Arendtek dio filosofiaren historiaz egiten dugun irakurketa infantila dela. Baldintzatua dagoelako Platonek eta bere osteko filosofoek errepublikan Homero eta poetak debekatu nahi zituztelako gezurrak esateagatik.

Arteak eta politikak jakintzaren eta ekoizpenaren beste eremu batzuek baino gehiago egiten dute elkarren artean talka. Bataila fratrizida bat daukate bizitzak zer esan nahi duen definitzeko

Ordea, ez zen Platon filosofoa «Homero eta bera bezalako jendilajea» bere lekuan jarri nahi zuena. Periklesek, politikariak, gauza bera egin zuen, modu esplizituan esanez Atenasen handitasunak ez zuela Homerorik eta poetarik behar *esan diren eta egin diren gauzak* –hori baita politikaren esentzia– hilezkorrak izan daitezzen. Periklesen ustez, polisaren boterea ekintzaren bidez

nahikoa handia zen poetek eta artistek gertakizunei ematen zieten ospe hilezkorren beharrik ez izateko (*idem*: 48).

Arendtek, arrazoi estrategikoez gain, arrazoi espazial bat aurkitzen du garai klasikoetan jada artearen eta politikaren artean zegoen talka azaltzeko.

Politikaren eta kulturaren arteko gatazka bakarrik gerta daiteke ekintzak (antzeztea eta ekoiztea) eta esfera bakoitzaren produktuak (egitateak eta jendearen lanak) espazio publikoan gertatzen direlako. Afera da erabakitzea ze printzipio aplikatu behar diren jendea bizi zen espazio publikoetan: ekintzaren printzipio komunak edo ekoizpenaren printzipio komunak, zentzu funtsezkoenean politikoak direnak edo espezifikoki kulturalak direnak (*idem*: 49).

Alegia: arteak eta politikak jakintzaren eta ekoizpenaren beste eremu batzuek baino gehiago egiten dute elkarren artean talka. Bataila fratrizida bat daukate bizitzak zer esan nahi duen definitzeko. Eta, lehen aipatu bezala, bizitzaren osteko bizitzak zer esan nahi duen eta nola.

Politika gailendu zen Atenasko eszenario horretan, arazo funtsezko bat zegoen: erabakia. Alegia, nork erabaki behar du, ekoizten duenak edo antzezten duenak.

Gizakiaren handitasuna da –Arendten hitzetan–, hilkorra bada ere, hilezkorrak izatea merezi duten hitzak esan eta gauzak egi-

teko gai dela [...]. Gizakiek soilik duten hilezkortasun hori, eta lurtarra dena bakarrik, 'ospe' gisa ezagutzen dugu, eta bere helburua ez da soilik hitzak eta ekintzak desagerpenetik gordetzea [...], baizik eta, gainera, iraunkortasun hilezkor bat eskaintzea.

Beraz, Periklesen galderak berregiten ditu Arendtek:


Nor ote da egokiagoa [ospeaz eta hilezkortasunaz arduratzeko]? Polisaren antolaketak –espazio publikoa ziurtatzen du eta bertan handitasuna agertu eta komunikatu daiteke, eta bertan etengabe dago jendea begiratzen eta jendea ikus daiteke, hitz egiten da eta entzun daiteke– betiereko oroimen bat segurtatzen du? Edo poetek eta artistek, edo orokorrigo esateko, ekintzak eta ekoizpenak egiten dituztenek ziurtatzen dute [oroimena], zeren politikaren antolakuntzak eta ekintzak baino berme handiagoa eskaintzen baitute, haien funtzioa natura iragankor eta iheskorra duten gauzekin gauzak permanenteagoak eta iragangaitzagoak egitea delako?

Eta hemen dator, nire ustez, Platonen edota filosofiatik eta politikatik artea zentrotik atera nahi zutenen tragedia:

Poesia izan zen, Homeroren bidez, greziarrei ospea zer zen eta zer izatera irits zitekeen erakutsi ziena. Eta, nahiz eta poesia den, musikarekin batera, materiari gutxien lotutako artea, ekoizpen bide bat izaten jarraitzen du zeina gabe ezingo genukeen hilezkortasuna eta iraunkortasuna objektibatu (*idem*: 50).

Hori du artistaren obrak eta politikaren obrak: hilezkortasunaren inguruko bataila bat, bizitzaren esanahiari buruzkoaz gainera.

Horregatik kokatu behar da, Arendten aburuz, kulturaren inguruko 'edozein' gogoetaren abiapuntuan artelana. Greziako artearen eta politikaren arteko harremanaren bere azterketaren abiapuntua ere hori izan zen:

Artelanez dutelako, bere horretan, gainontzeko objektuek baino harreman estuagoa politikarekin, eta haien ekoizteko modua intimoki dago erlazionatuta ekintzarekin, bestelako edozein ekintza baino gehiago. Eta hori hala da artelanez esfera publikoa behar dutelako errekonozimendua jasotzeko; eta afinitate hori nabaritzen da, artelanez ere [politikak bezala] izaera espiritual eta intelektuala dutelako (*idem*: 52). 

Oharrak

1. 1962an Carl Schmitt-ek hitzaldi bat eskaini zuen Iruñean. Bertan, Leninen ezagutza militarra nabarmendu zuen. Lehen Mundu Gerran, 1915ean, Leninek Clausewitz-en *Vom Kriege* «sutsuki ikasi» zuen. Eraldaketa politikorako tresna funtsezko gisa garatu zuen «gerra zibil sozialistaren» estrategia, Schmittek *Partisanoaren teoria*-n azaltzen duena (Schmitt 2013: 62-72).
2. «Eusten diogu honako egiok sakratuak eta ukaezinak direla: gizaki oro dela berdina eta independentea, sortzetik berdina delako eratortzen zaizkiola berezko eskubide besterenezinak, eta eskubideon artean daude bizitza eskubidea, askatasuna eta zoriontasunaren bilaketa» (Thomas Jefferson: *Independentziaren deklarazioa*, 1776).

Bibliografia

- Arendt, Hannah (2014): *Más allá de la filosofía. Escritos sobre cultura, arte y literatura*, Trotta, Madril.
- Badiou, Alain (2015): *¿Qué hacer? Diálogo sobre el comunismo, el capitalismo y el futuro de la democracia*, Edhasa, Madril.
- Brecht, Bertolt (2007): 'Against Georg Lukács', in Askoren artean: *Aesthetics and Politics*, Verso, Londres, 68-85.
- Eagleton, Terry (2011): *Estética como ideología*, Trotta, Madril.
- Groys, Boris (2008): *Obra de arte total Stalin*, Pre-Textos, Valentzia.
- Schlögel, Karl (2014): *Terror y utopía. Moscú en 1937*, Acantilado, Barzelona.
- Schmitt, Carl (2013): *Teoría del partisano. Acotación al concepto de lo político*, Trotta, Madril.

Kultura politikaren lehen lerrora

Eider Rodriguez

Idazlea eta UPV/EHUko irakaslea

Kultura, identitatea, eta gatazka

Behar-beharrezkoa da kultura politikagintzaren lehen lerrora ekartzea. Izan ere, ezagutzaren aroan, kultura arlo estrategikoa da edozein herrialdetan, edo, behintzat, teknologia eta berrikuntza mailan kokatzen den arloa izan ohi da. Hamaika menpekotasunen baitan bizi den Euskal Herria bezalako estaturik gabeko herri bategan, kultura funtsezko ez ezik hil ala bizikoa da, identitate kolektibo zein indibidualari loturik, baina baita aro digitalean behar bezala txertatzeko edota historikoki euskara sarraskitzen ahalegindu den Estatu-nazioaren kultura hegemonikoak irents ez dezan ere.

Arlo honen garrantzia *funtsezkoa* da herri burujabeago eta ondorioz justuago, duinago eta askeago baten eraikuntzan. Aldiz, politikagintzak erabat bazter utzi du kultura, apaindura soil gisa erabiliz. Proiektu politiko baten baitan, ordea, guztiz estrategikoa izan daiteke eta beharko luke izan.

Identitate kolektiboa

Kulturarik ez balego, herri guztiak bat eta bakarra ginateke. Toki ezberdinetan biziko ginateke, baina ez ginateke geure artean ezberdin izango. Kapitalismoaren zuztarrean dagoen

homogeneizatzeko nahiak kultur aniztasunaren desagertzea dakar. Eta printzipio hori indartzen dugun geure kultura bazterrean uzten dugun bakoitzean, kulturari behar duen babesa ukatzen diogun bakoitzean eta sortzaileak axolagabeki tratatzen ditugun aldiro. Gaur egun euskara bizirik egotea eta, geroz eta apalagoa izanagatik, herri nortasuna mantentzea (baita nortasun horretan ardazturiko egitura politiko bat ere, Eusko Jaurlaritza eta sail guztiak hortik eratorritzen dira eta) pertsona askoren ekarpenari zor diogu. Milaka izan dira kulturaren lehen leerroan ikastolak harriz harri eraiki dituzten boluntarioak, euskara plazara eramanez dutenak, euskarazko komunikazio baten alde egin dutenak... Joko-zelai horretan, orain arteko Jaurlaritza guztiak harrigarriki aparte ibili dira, batzuetan ekimenak ozta lagunduz eta beste batzuetan trabatuz, beti errezeloz, beti berandu eta ia beti eskas.

Kultura ondasun bat da, baina ez zaio tratatu hori eskaintzen. Kultura eskubide bat da, baina kapritxo bat dirudi. Ez dago kulturarik gabeko herririk. Kulturarik gabe ez dago herririk.

Kulturak hizkuntz normalizazioan izan lezakeen eragina handia da eta ez da behar beste baliatzen. Kulturak herri baten kohesioan eta autoestimuan izan dezakeen eragina, gehienetan, oharkabean pasatzen zaigu.

Mundu mailako esperientzia askok adierazten digute, kulturari merezi duen balio estrategikoa aitortzean, herri baten askotariko baldintzak hobetu litezkeela.

Ikus ditzagun hiru adibide. Lehenik, *Quebecoko Iraultza lasaia* delakoa. Ingelesen hegemoniaren eta Elizaren boterearen kontrako borroka izan zen, eta Quebeci modu nabarmenean eragin zion, hura kulturaren aldera lerrokatu zuelako, eta bere nortasuna sendotu zuelako. Izan ere, lasaia izan zen, baina ez isila, besteak beste musikak gidatutako hegal kulturalak herriaren bozgorailu lanak egin baitzituen, inolako lotsarik gabe.

Ikus dezagun 1992ko Quebecoko kultur politikak zer dioen:

Kultura oinarrizko ondasun bat da, eta, jendartean bizitzeko giza dimentsioa eta dimentsio ekonomikoa ezinbestekoak diren heinean, dimentsio kulturala ere ezinbestekoa da:

- Sorkuntza burujabea eta askea adierazpen askatasunaren funtsezko balio dira gizarte demokratiko batean.
- Estatuak ahalik eta biztanle kopuru handienari erraztu behar dio kulturara sarbidea.
- Estatuak, bere bazkideekin elkarlanean, jendarteko dimentsio kulturala babestu eta garatu behar du.

Hiru ardatz:

- Herri nortasunaren baieztapena.
- Sortzaileei eta arteei babesa.
- Herritarren parte-hartzea eta sarbidea erraztu bizieta kulturalean.

Bigarrenik, handik hiru urtera, 1995ean, *Braveheart* filma ekoiztu zuten. Hollywoodeko estandarretan egin zen, baina abertzaletasun berri bat sortzen lagundu zuen, herriari herriak berak ikustea lortzen ez zuen estimulu bat eman ziola. Handik etorri da, neurri batean behintzat, gerora burutu den erreferendumen arrakasta. Kultura izan zen, zinemaren bidez, itzali gabeko su txikia hauspotu zuena.

Eta, hirugarrenik, *Medellingo (Kolonia) Liburutegi-parkeak*. Auzo bazterrekoenetan eraiki diren Kultur Etxe gisako horiek jendarteko geruza txiro eta zaurgarrienak babestea dute xede, hezkuntzaren, kulturaren, parekidetasunaren eta inklusioaren bidetik. Era berean, goi mailako teknologiaz hornituta dauden eta itxura estetikoa izugarri zaindua duten eraikinok klase sozial zigortuenen ingurune fisiko eta kulturala hobetu eta nonbaiteko izatearen ideia indartzen dute.

Identitate indibiduala

Izaki kolektiboak gara, eta kulturak ezartzen ditu elkarrenganako loturak. Kultura sendo baten sehaskan gaudenean, elkarrenganako elkartasuna, enpatia eta begirunea handitzen dira. Lehen ere aipatu dugun hitz bat ekarri behar dugu hona, autoestimua, pertsona ororen osasunarentzat eta ongizatearentzat ezinbestekoa dena, nahiz eta oso gutxi zaintzen eta elikatzen den. Horren ifrentzuan, norberaren nortasuna (kultur adierazpena, hizkuntza...) zaintzen ez duten herriak

leudeke, azpiratuak daudenenak, eta, nahi gabe, autogorrotu eta autolotsa mekanismoak martxan jartzen dituztenak. Bai kolonietan, eta bai frankismo garaian ere, hala izan zen: elkarren arteko ezinikusiak ikaragarriak ziren, eta, kasu batzuetan, belaunaldiz belaunaldi igaro dira. Orain eta hemen, ostera, geroz eta gehiago, autogorrotu 2.0 garaian gaudela esan genezake: kulturalki azpiraturik, nortasun sendorik gabe, iparririk gabe eta zeri eutsi jakin gabe. Horrek, halaber, zerikusi handia dauka etorkinak geurean integrazteko izan dezakegun ahalmenarekin; izan ere, integrazioa gerta dadin, ezinbestekoa, are, hil ala bizikoa baita bertako kultur nortasun sendoa. Horregatik baita ere, eta norabide bikoitzean, immigranteen kulturarekiko begirunea eta adierazpen artistiko eta kulturaleri bide ematea elkarbizitzarako eta inklusiorako gako izan daitezke, hala nola immigranteei euskal kulturaren eta hizkuntzaren ateak zabaltzea ere. Kulturara sarbidea izatea herritar oroaren eskubide da, eta hala bermatu beharko litzateke.

Alienazioaren kontrako txerto gisa

Kulturaren sustapenak, hein handi batean, alienazioari –krisi sistemikoari, globalizazioari, diskurtso hegemonikoari, ka-

Kulturaren sustapenak
jendarte kritikoagoa
eta burujabeagoa
ekarriko luke, burujabea
bizitzaren arlo guztietan.
Kulturak demokratizatu
egiten baitu

pitalismoari...– aurre eginez, jendarte kritikoagoa eta burujabeagoa ekarriko luke, burujabea bizitzaren arlo guztietan (elikadura ohituretatik hasi, softwarearen aukeraketatik pasa eta boto ematean buka). Kulturak demokratizatu egiten baitu. Kultura maite, ezagutu eta bizi duen herria justuagoa, borrokalariagoa, askotarikoagoa,

arduratsuagoa, irudimentsuagoa, zorrotzagoa, inklusiboagoa, ameslariagoa, feministagoa, internazionalistagoa,

irekiagoa, abegitsuagoa, duinagoa... izango da; beraz, kultura aldaketa sozialerako giltzetariko bat da.

Adibide pare batekin argiago ikusiko dugu. Batetik, Venezuelan, 'El sistema' sortu zuen Antonio Abreu ekonomialari eta musikariak. 11 gazterekin hasi zen eta egun 200 orkestratik eta 330.000 interpretetik gora eman ditu. Mundu osora zabaldu den sistema da. Venezuelan, parte hartzen duten haur eta gazteen %90 pobreak dira (onak suertatuz gero, diru-laguntza bat jasotzen dute lan egin behar izanagatik klaserik ez galtzeko). Bertan aldaketa sozialerako estrategia gisa aurkeztu da: «haur batek pobre izateari uzten dio musika-tresna bat jotzen ikasten duen momentuan. Aurrera egiten ari den pertsona izaten hasten da, eta gerora hiritar izatera pasako da».

Bestetik, Ixcan (Guatemala) herritik Mexikora alde egin behar izan zuen jende askok, batez ere emakumeek, barne gatazka armatuaren ondorioz. Han, ikasteko aukera izan zuten. Haien herrialdera itzuli zirenean, askok ikasten jarraitzeko gogoia agertu zuten, baina Ixcanetik irten gabe. Handik tarte batera, azpiegiturak hobetzeko laguntza moduko bat heldu zen herrira. Agintariek pentsatu zuten emakumeek harraska bat, bide bat edo putzu bat eskatuko zutela, baina ez, liburutegi bat eskatu zuten. Oihan-oihanean inauguratu zuten 2012an, «udalerraren garapen sozial, akademiko eta zientifikoaren alde» lan egiteko helburuarekin. Ongizaterako tresna bat da kultura.

Gatazka/Elkarbizitza

Kohesiorako, dialogorako edo elkarbizitzarako tresna izan daiteke kultura, eta hala enfokatu beharko litzateke, ez bakarrik, baina bai parte batean.

Erabiliaren erabiliz hitzak higatu egiten dira. Hitzarekin lan egiten duen sortzaileak distira berria ekar diezaike hitzei, mundua errelatatzeko eta mundua sortzeko, kulturak indar performatiboa baitauka. Hitzak eta mintzairak behar duten zabaldua ekar dezake kulturak.

Kulturak balio beharko luke baita ere politikariek, kazetariak edo bestelako herritarrek esan ezin dezaketen hori esateko. Baina baliabideak behar dira horretarako, eta ez daude. Hitzak askatzeko garaia da.

Adibidez, Ipar Irlandan, gatazka ostean garrantzi handia eman zaio Youth Music programari, eta elkarbizitza bide onetik aurrera eramaten lagundu duela diote.

Kulturaren alderdi baikor eta ezkorrak

Kulturaren egungo egoera aztertuz gero, alderdi baikor zein ezkorrekin egin genezake topo. Alderdi baikorren artean aipatu beharrekoak dira:

- Sinergiarako eta elkarlanerako gogo eta ohitura
- Kultura propio eta bereizgarria
- Kultur eskaintza esanguratsua
- Ondare singularra
- Heziketa maila altuko jendartea
- Kultura kontsumo koxkor bat biztanleko
- Jendarte ohitura indartsuak
- Amateurtasun bizia

Euskal Herrian, kultur politika sendorik ezean, hamaika dira kultura normalizatzen ez ezik egurasten lagundu duten eredu askotariko herri ekimen kultural eta espazio eragileak. Kohesioa, identitatea, eztabaida, transmisioa, elikadura, komunitatea, kritikotasuna, sormena, ekoizpena... akuilu, gisa batera edo bestera, kultura bizirik mantentzen eta partekatzen laguntzen dute, tokian tokiko ikuspegiarekin zein ikuspegi nazionalarekin.

Alderdi ezkorren artean, aldiz, hauek aipa genitzake:

- Heziketa-eskaintza kultural eta artistiko baxua
- Sormen eta ekoizpenerako pizgarri gutxi
- Euskarari dagokionez, ezagutza eta erabileraren arteko alde handia dago (horrek dakarren guztiarekin euskarazko kultur ekoizpenaren kontsumoari dagokionez, besteak beste).

- Kultura hegemonikoez irentsita dago.
- Administrazioak ez du kulturaren aldeko apusturik egiten (horren adierazle ikusgarriena, aurrekontu orokorretik Kulturara bideratzen diren papurrak).

Kultur politikaren gakoak

Gaur egungo kultur politikaren protagonista jendarte askotariko eta orotariko agentez osatutakoak (kultur kolektiboaren subjektu) behar du izan.

Kultura partekatu bat behar dugu, sorkuntza prestigiatuko duen politika bat, lanpostuak sortuko dituen eta daudenak mantentzen lagunduko duena, ekoizpen kultur propioaren bitartez sortze eta ekoizpen prozesuetan bizitasuna txertatuko duena. Komunitatearen eraikuntzaren prozesu gisa ulertua, barne aniztasuna errespetatuko duen kultura, euskal kultura eta euskara indartzeko

Kultura partekatu bat behar dugu, sorkuntza prestigiatuko duen politika bat. Komunitatearen eraikuntzaren prozesu gisa ulertua, barne aniztasuna errespetatuko duen kultura

eta biziberritzeko giltza izango dena, trukera zabalik egongo dena, geruza, adin, genero... guztiek sarbidea izango dutena.

Kultur kudeaketaren gobernantza demokratikoa eta ekimen autogestionatuen garapena bateragarri izango dituen kultur politika bat, finean.

Ildo horretatik, literatura, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, bertsolaritza, dantza, musika, antzerkia eta bestelako kultur adierazpideak babestu eta sendotzeko hainbat neurri proposatzen dira jarraian:

Kultura ez da fenomeno isolatu bat, baizik eta arlo eta azpi-arlo ugari zeharkatzen eta gurutzatzen dituen eta transbertsalki landu beharreko arloa (hizkuntza, hezkuntza, memoria,

ekonomia, fiskalitatea, parte-hartzea, komunikazioa, harremanak, lurraldetasuna, enplegua, feminismoa, hirigintza...).

Eusko Jaurlaritzaren organigramak, ordea, ez du horrelakorik jasotzen, ezta orain arteko jarduera politikoak ere: Kultura saila sistematikoki izan da baztertua. Hori saihesteko, batetik, Hezkuntzatik aparteko Kultura saila ezartzeko aukera aztertu beharko litzateke atzera; bestetik, sail guztiak ez bada gehienak zeharkatuko lituzkeen *organoa sortu* beharko litzateke, sailean saileko jakintza, aurrekontua eta bestelako eskuduntzak erabakigarriak lirateke-eta kultura biziberritzeko apustuan. Sailen arteko organo hori (X biztanletik gorako) udal eta aldundietan ere ezarri beharko litzateke. Zeharkakotasun horrek, halaber, kultura interes partikularretatik aparte eta gobernu aldaketek ekar dezaketen erabilera politikotik babestuta mantentzeko lezake hein handi batean. Horretaz gain, Kultura eta Ondare digitalerako azpisailaren sorrera beharrezkoa litzateke.

Hezkuntza

- Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitarte, *euskal kulturaren* irakaspen curriculurra ezarri beharko litzateke. Hezkuntzan euskal munduko erreferenteak sustatu behar dira, curriculum propioarekin eta zirrikitu oro baliatuz (Euskal Herriaren txikitasunak artista ugariarekin bertatik bertarako saioak egitea ahalbidetzen du, esate baterako). Hartara, belaunaldien arteko transmisioaz gain, kulturaren kontsumoan trebatutako jendar-tea bultzatuko litzateke. Zein xedekin?
 - Herritarren eta sortzaileen arteko sinergiak baliatzea, hezkuntza integralago bat eta enpleguaren sustapena helburu.
 - Kohesio soziala eta identitatea indartzea.
 - Industria sendotzea.
 - Etorkizuneko kultur erabiltzaileak trebatzea.
 - Kulturak hizkuntz normalizazioan izan lezakeen eragina handia da eta ez da behar beste baliatzen (adibidez, egungo batez besteko gazte zein adin

ertaineko euskalduna ez da euskarazko nobela irakurterraz bat dezifratzeko gai, zer esanik ez euskarara itzulitako lan bat; esan gabe doa arazo hori ez dagokiola literaturari soilik).

- *Orotariko kultur eta adierazpen artistikoen sorkuntza* sustatzea hezkuntzako zehar-lerro gisa.
- *Eleaniztasunaren eta kulturantzatasunaren* bidetik, kultura sustatzea eskolako gainontzeko bi hizkuntza curricularretan gutxienez.
- Eskola-kirola sustatzen den bezala, eskola-kultura sustatzea, sinergiak bilatuz tokian tokiko ikastetxe eta edozein kultur adierazpen lantzen duen talde, elkarte zein eskolekin (izan bertso-eskola, txaranga, musika-tailer, irakurle klub, rock talde edo eskulan tailer).

Enplegua. Sortzaileen bizi baldintza prekarioek zuzenean eragiten diote kultur sorkuntzari eta horren kalitateari. Horrenbestez, artistaren bizimodua duintzeko bidean, hainbat neurri proposatzen dira:

- Euskal sortzaileen egoera aztertzeke mahai bat osatzea sektoreko eragile guztiekin, artisten egoera sakon aztertu eta ekimenak adosteko. Euskal sorkuntzak duen berezitasuna kontuan hartuz, *Artistaren Estatutua* sortzea, prestazio bereziak aurreikusiz alor honek maiz berezkoak dituen aldizkakotasun egoerei aurre egiteko, besteak beste.
- Proiektu artistiko batek eskatzen duen lana enplegu ikerketa berritzaile kontsideratzea eta diruz laguntzea.
- Gazteen enplegua sustatzea kultur arloan.
- Ekimen artistikoari dagokionez:
 - Kultur enpresa txikien marko juridikoa *ad hoc* lantzea.
 - Ekimen artistiko berriak bultzatzea, mikrokredituen bitartez eta material eta ekipamendurako laguntzak emanez.
 - Artisten laguntzarako zerbitzuak sustatzea.

Aurrekontua eta fiskalitatea. 2014ko EAeko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokor osotik %0,5 bideratu zen kulturara; 2015eko aurrekontuaren %0,52; 2016ko aurrekontuaren %0,49. Zenbaki horiek ez dute malabarismotarako tarterik uzten, eta, beraz, handitu egin behar da bai ala bai aurrekontu orokorretik kulturara bideratzen den partida. Lehen neurri gisa proposaturiko zeharkako kultur organoarekin batera (zeinari esker sail ezberdinetako aurrekontuetan kulturara bideraturiko partida gordeko litzatekeen), *komunikazio elektronikoa zerbitzatzen duten operatzaileei zerga* bat ezartzea proposatzen da, Katalunian aurrera eramane den lege proposamenaren uberan. Kontratu bakoitzetik 0,30 zentimo kultur industriara bideratuko lirateke, ikus-entzunezko sektorera, musika sektorera eta literatur eta testu ekoizpenaren sektorerara, hurrenez hurren eta beheranzko proportzioan. Hartara, aurrekontu orokorraren ezegonkortasun eta eskasiatik babestuko litzateke kultur arloaren alor handi bat.

Bestalde, BEZ kulturala %4koa izan dadila eskatu behar litzateke.

Gizarte politika. Kultura ez arautua eta amateurtasuna (maitasuna) sustatu behar lirateke. Musika, dantza eta antzerki *antieskolak* eta sormen laborategiak bultzatu behar lirateke eskualde orotan haur, gazte zein helduentzat, eta horretarako bidea eman (hutsik dauden etxebizitza eta lokalak horretarako baliatu, irakasleak bermatu...).

Hirigintza-plangintza. Arlo honetan, kultur behar/balibideak aintzat hartu behar lirateke, beti ere, gentrifikazio arriskua begien bistatik galdu gabe. Kulturaren Euskal Behatokiak autogestionaturiko esperientziak behatzea eta aztertzea interesgarria litzateke, berregokitutako fabrikak, gatzetxeak... Euskal Herrian funtzio sozial, kultural eta politiko handia betetzen dute, eta, haien funtzionamendua aztertzeaz gain, egin dituzten eta egiten dituzten ekarpenak aintzat hartu behar lirateke, munduan zeharreko eredu-ekin erkatuz, adibidez, eta haiek laguntzeko politikak sustatuz,

beti ere trukean berezi eta aberats egiten dituen autonomian murrizketarik ezarri gabe.

Berrikuntza eta I+G+B. Onartezina da aro posfordistan txertatu asmoz teknologia, industria eta berrikuntzari begira I+G+Bren alde egin den apustu historikoaren beste garroa, kualitatiboa, ez izatea kulturari loturikoa (kultur transmisioari begirakoa, baina baita kultur berrikuntza eta parte-katzeari begirakoa ere).

Ondarea, liburutegiak, artxibategiak eta museoak

- Ondare kulturalaren legea eguneratu eta ondare kultural immaterial biziaren zein kultura herrikoien inventarioa osatu beharko litzateke. Horri lotuta, lehenik frankismoak (1936tik aurrera) eta ostean Alderdi Popularraren gobernuak (1998-2015 artean) emandako baliabideei esker Eliza katolikoak immatrikulatu eta bereganatu duen herri ondarea (elizak, basilizak, hilerriak, apetzexak, lurrak...) herriari itzuli beharko litzaioke, mende luzeetan ondare publiko izan baitira.
- Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin elkarlanean, argitalpen bibliografiko, musikal eta audio-bisualen bibliografia sortu beharko litzateke, hala nola euskal nolakotasun kulturalari aipamen egiten dieten baliabide digitalena.
- eLiburutegia garatzen jarraitu.
- Artxibategiak euskal ondare dokumentaltzat hartu eta Dokumentu Publiko eta Artxibategiaren Legearen araberako arautu (digitalak barne).

Banaketa/zabalkunde/ikusgarritasunari begirako bide berriak aztertu. Euskal sorkuntzak duen arazoetako bat Euskal Herrian ezezaguna izatea da. Hori konponbidean jartzeko, sorkuntza lanen promozioa eta zabalkunde indartu beharra dago, adibidez *komunikabide publikoei* kuotak ezarriz bertako kultur adierazpideei eskainitako denbora gehitu dezaten. 🌟

Predeterminazioak eta indeterminazioak

Maika Etxekopar

Kantaria eta antzezlea

Eta kultura autodeterminatuko balitz?

Erran behar dut, hasteko, galdera horrek ondoez bategan sartu nauela, kulturaren autodeterminazioa ideal bat bezala pausaturik zela sentitzen nuelako, eta nire burua autodeterminazio horren ekile bezala ez nuelako ikusten. Ikusle bai, jarraitzaile ere bai, baliatzaile eta parte hartzailearen arteko zerbait, baina ekile ez. Beti-danik uhin baten gainean surfeatu banu bezala, eta horrek euskal kultura autodeterminatu baten bidean ezarri banindu bezala, bai kantu eta bai antzerki munduan bizitzea eskaini izan zaizkidan esperientzietan zehar.

Gainera, autodeterminazio hitz horri pentsatzean, kopeta aitzina helburu bati buruz tematsuki aitzinatzen den norbaiten irudia heldu zitzaidan burura, ene praktikaz nahiko irudi barreiatua dudalarik. Eta praktika barreiatu horri ordena edo zentzu amiñi bat eman nahi banio, autodeterminazioa baino organizazioa nuke helburu, egiten dudan guztia organikoa izan dadin, eta beste sorkuntza dinamika batzuekin harreman organiko batean sar baledi, hainbat hobe.

Orduan, zer asmatuko dut? Zer kontatzen ahalko dut? Ene lan esperientzietan ikusi eta bizi dudana, hori bai, dudarik gabe, euskal arte munduaren autodeterminazioa eraikitzen dabilzan artistekin lan egiteko xantza ukan dudalako. Baina

baita ere ni naizena, ene predeterminazio eta indeterminazioekin, barnean ditudan eta sorkuntzarako balio didaten euskal eta frantses kulturekin... Zeren eta bai, uste dut euskaraz sortzea partez politikoa dela, eta erran behar dut politikoa izateak, nortasun baten afirmatzeak, beti sortzen ari garen herriari harri bat gehiago ekartzeak, pindar eta plazer zerbait gehitzen diola sorkuntza lanari; baina bi kultureta-koak diren ene sortzaile lagunek eta bi kulturetan ene burua adierazi ahal izateak ekartzen didana ezin ukatua da.

Oharkabean, hausnarketa horrek artearekin lotutako 'gurea' eta 'arrotzaren' arteko dialektikara eraman nau; beraz, saiatuko naiz sentitzen dudana hortaz ere zerbaiten azaltzen.

Ene predeterminazioak

Euskal kulturari handitu naiz eta batez ere zuberotar kulturari hazi, kantuan eta dantzari, gure lurraldeko bizia erritmatzen duten antzerki forma desberdinetarik edanez, bai eta etxe-koek duten sorkuntzarako grina betean. Jendea batzen duen kultura baten babesa, gurea den horren maitasun eta praktika zabala bizi izan ditut txipidanik, eta bere burua aktiboki defendatzen duen komunitate baten parte nintzela sumatu dut. Nahiz eta amaren aldetik familiaren erdia frantsesetat jotzen nuen (berantago ohartu naiz alde horretatik ere euskaradunak ez zirela hain urrun eta amañik berak bazuela Maule-Gaineko auzoan ikasi eta bizitzak bazterturiko euskara bat ederra), enetako argi zen ni euskaldunen aldekoa nintzela, hori gehiago banuela, eta arlo horretan ene parte hartzea balioztaturik zela.

Gero, Zuberoako euskaldun izatetik euskal herritartzeko lehen urratsa 11 urtetan Lapurdira euskaraz ikasten jarraitzera joatea izan zen, ber mementoan sortu zen Amaren alabak taldeko kide izatearekin. Amaren alabak Euskal Herriari plazaz plaza ibili gara urte askotan gure zuberotar nortasuna kantuen bidez partekatuz eta, bide batez, gure zuberotar eta euskal herritar izateak uztartuz. Alde batetik, ibili garen

leku gehienetan zuberotar kantuak ez ziren ulerturik, eta gu oso atxikirik ginen deskubritzen ari ginen Etxahun Barkoxe ala Beñat Mardoren herrietako kronika zaharrek kontatzen zutenari, Attuliren bertsoei... Bestetik, gure lehen kantutegia Zuberoako kultura askotako emazteek guri erakatsitako kantuz ere osaturik zen (aragoiar, portuges, italiar), eta historia horretatik edateak zuberotarrago egiten gintuen, zuberotar nortasun askotarikoaren adierazle.

Horrez gain, Euskal Herriko beste probintzietako kantuak ere bagenituen, gu ikastolan izateak dakarren militantzia puntuarengatik egiazko zuberotarrak ez ginela ziotenei ozenago kantatuz erantzuteko bezala. Hitzen garrantzian bermatutako euskal kantuaren praktikak bere haurrei euskara erakatsi ez zion edozein zuberotar bezain ala zuberotarrago, euskaldunago egiten gintuen, eta harrotasun puntu hori ere bagenuen.

Azkenik, neska talde bat izateak jendearen ikuspuntutik zerbait gehiago bezala ekartzen zigula uste dut, nahiz eta guretzat oso naturala izan. Gu sortu ginen munduan neskak kantuz aritzea ez zen inolaz ere arazo bat, batez ere gu bezalako neskatxa batzuk, oraindik emazte bati ematen zaizkion arduetatik urrun ginenak; beraz, ez genuen gure burua aitzindari bezala ikusten. Nortasun femenino baten defendatzeaz zerbait galdetzen zigutenei, ezer ez balitz bezala erantzuten genien: neskak ginen, kantuz ari nahian, ez genuen gizon abesbatza bat sortuko; beraz, neska talde bat sortu dugu, eta kitto.

Gure kantuan emazte istorioak plazaratzea, azaleratzea maite dugu, besteen artean, baina ez kantatzeko eskubidearen aldarrikapen bat bezala, batzuek guban proiektatzen zuten bezala. Hor dut lehentze sentitu artearen bidez aldarrikapenetik hara jotzea, natural zaiguna naturaltasun handienarekin egitea, oztopatzen gaituenaren aurkako borroka gaindituz, indartsu eta probokatzailleagoa izaten ahal zela. Adibide baten emateko, Zuberoako beste neska talde batek kantu bat sortu zuen harrotasunez kontatzeko nola astearte arratsez

haien senarrek zuten afaria prestatzen eta etxea txukuntzen, haiek kantu errepika zutelako. Gu osoki beste ikuspuntu bate-tik ari girela uste eta espero dut: plaza hartzekotan, ez dadin emazte garela errateko izan, baizik eta gure emazte ahoetatik edozein gaiez aritzeko.

Aurtengo maskaradetako buhaminek ber etsipena piztu didate, ahoa irekiz geroz haien itxura airez hustu balitz beza-

Gure kantuan emazte istorioak plazaratzea, azaleratzea maite dugu, besteen artean, baina ez kantatzeko eskubidearen aldarrikapen bezala, batzuek guran proiektatzen zuten bezala

la: gaur egun emazte gazte bat plazan ager dadin bere gizonaren menpeko etxeoandre baldintzaren salatzeke triste iduritzen zait. Alde batetik, haien egoera hori baldin bada, negargarria delako; baina, bestetik, eta uste dut hortik doala, nahiz eta etxean ez hori bizi, uste dutelako Zuberoan jendeari eskaini behar zaiona hori dela, pentsatu gabe plaza

hartearen ekintza aldarrikapentxo kontserbatzaile eta kontsensual horiek baino askoz azkarragoa izanki, plazan erraten dutena askoz urrunago joan daitekeela. Aldarrikapen horiek aspaldidanik onartuak dira, eta, horiek plazaratzean, urrats bat gibelerara egiten da ene ustez, 'betiko' ordena mantenduz: gizona horrelakoa da eta emazteak egin dezakeen gauza ausartena publikoki pleinitzea da. Ausarkeria faltsu bat da, gure kultura tradizional *iraganistaren* adierazle, eta azkenean herri eta jende gisa frenatzen gaitu.

Ene indeterminazio hautatuak

Euskal eta frantses kulturak oso intimoak ditut betidanik, bietan oso goiz anitz maite ditudan gauzak aurkitu ditudalako. Praktika batean dugun lehen sartzeak bizi osorako bide bat zabaltzen digu: enetako antzerkiaren praktikan sartzea, nahiz eta pastoral eta maskaradak txipidanik ikusi ditudan,

frantsesez egin da, eta bide horretan aurkitu ditudan lagunak, eta zeinekin lan gogoak piztu zaizkidan, frantsesdunak ere dira.

Kantuan, aldiz, kasik ezinezkoa zait euskara ez den hizkuntza batean gauzak sortzea, antinaturala bezala. Baina, orain, Zuberoan kantu hirukote bat badugu beste bi neskekin, HorHor izenekoa; eta hirukote hori, gu hiruren nortasunen batasuna izanki, errotik elebiduna da, nortasun elebiduna du eta bi kulturen arteko zubi edo nahasketarekin jostatzen gara, bai eta entzuleen ulertu eta ez ulertzearen artean ere.

Gaur egun, beraz, erran dezaket ene praktika artistikoaren parte handiena euskaraz egiten dela, Battitt Halsouet txotxongilolariarekin sortu dugun *Ilargi arrantza* haurrentako ikusgarria ere hartzen baldin bada. Baina euskaraz baizik aritzearena ez dut badaezpada helburutzat jotzen, Frantzia aldeari eta frantses hizkuntzari diedan atxikimendu eta erakarpenarengatik. Sorkuntzarako kideak aurkitzen ditudanean, euskalduna naizela naturalki jokoan sartzen bada ere, haiek euskaradun izatea ez da sekula baldintza bat izan. Baionako jardunaldietan egin dugun eztabaidan, Anarik erran dit adin kontu bat zela, adinarekin euskaraz lan egiteko hautu hori nabarmenago egiten zitzaidala; beraz, ez dakit. Momentuz badakit bien artean izate hori agradatzen zaidala, eta aitortu behar dut batzuetan Hegoaldeko jendearekin euskara batuan lan egin behar izatea frantsesez lan egitea baino arrotzagoa zaidala.

Herri kultura eraikitzen

Amaren alabekin ezagutu dugun elkarte sarea kulturaren autodeterminazioaren alde bat dela erranen nuke, horren oinarri sendo bat. Euskal Herri osoan kurritu gara, gehienetan elkarteek gonbidaturik eta etxeetan lo eginez, bertako jendearekin jan eta mozkortuz. Uste nuen euskal kulturaren praktika horrelakoa zela, instituzioetatik kanpo eta jendearen gogo eta indar batuez osaturik, eta hori oso ederra zitzaidan. Gero, antzerki profesionalaren munduan sartu naizenean,

ohartu naiz besterik ere bazela, eta beste sare instituzionalago horretan ere arte ekile batzuk herri kultura baten eraikitze-ko lanean ari zirela, euskarazko arte sorkuntza profesionala sustatzeko eta Euskal Herri mailako dinamika artistiko bat sortu nahian.

Artedrama (Bizkaia), Dejabu (Gipuzkoa) eta Le Petit Théâtre de Pain (Lapurdi) taldeek eramandako elkarlan batean parte hartu dut, *Hamlet*, Ximun Fuchsen zuzendaritzapean. Aurten berriz ere azaro hastapenean elkarlan horretatik sorkuntza berri bat aurkeztuko da, *Francoren bilobari gutuna*, eta aldi oro antzerkilari berri batzuei taldean sartzeko aukera ematen zaie, Euskal Herri osoan itzuli eder bat eginen duen ikuskizun batean parte hartzea eskainiz. Antzerkilari gazte gisa, esperientzia azkarra izan da, eta ikusgarri horretan lotu gintuen harremanetatik Ander Lipusek zuzendutako *Etxekoak* obran ere aritu naiz, eta azken hilabete hauetan Miren Tirapu nafarrarekin *Atte hil aurretik* izeneko obraren lantzen ari gara 2017ko urtarrilean estreinatzeko.

Hiru taldeen arteko lan horietan, erran daiteke euskal antzerkilari gazteen formakuntza lan bat eramaten dela; euskarazko antzerkigintzan jarraitzeko asmoak ereiten eta jarraitu ahal izateko azpiegituren sortzen ere badabilta Artedrama eta Le Petit Théâtre de Painekoak. Hala nola, Zubi sarea sortu dute, urtero euskal antzerki egitasmo bati sorkuntzarako laguntza eskaintzen dion Euskal Herriko zortzi egituren arteko sarea (sorkuntza lanerako gelak utziz eta ondoko urteko programazioan emanaldi bat segurtatuz).

Ximun Fuchsek, duela gutti, *Atte hil aurretik* obraren sorkuntza aipatzen genuela, galdegin dit ea zuzendaritza lana maite nuenez, eta nik baietz erantzutean poztu da, zuzendari guttiegi direlako bere ustez euskal antzerkian. Ez nuen behin ere egiten ari nintzen zuzendaritzako lehen esperientzia hori euskal antzerkiaren paisaiaren eskalan pentsatu, baina hura ikuspuntu orokorrago, politikoago horretatik mintzo zen.

Ander Lipusek ere bere ibilbide artistikoaren une batean euskara soilean lan egiteko erabakia hartu du, apustua eginez

Euskal Herri euskaldun honetan bazela zer egin, zer erran, zer konta, zer antzez eta zer eraiki. Geroztik hala jarraitzen du, gure zorionerako.

Azken denbora hauetan musika aldetik ere esperientzia polita egiten ari gara, Tolosako Euskal Barrokensemble taldearen *Euskel Antiqua* proiektuan parte hartzen baitugu aitak eta biok. Enrike Solinis musikariak Euskal Herriko Erdi Aro eta Berpizkundeko aztarnak ikertu ditu testu eta musika partizio zaharretan; hortik kantutegi bat sortu eta aro horretako sormen handia iturritzat duen Zuberoako kantu eta musika tradizionalarekin uztartu nahi izan du, gu gonbidatuz. Proiektu hori Euskal Herritik kanpo ere mugitzen da, musikak antzerkiak baino errazago ahalbidetzen duena. Herriaren gauzatzeko bi manera, beraz: bata, herri barnean, euskal antzerkia sustatuz eta euskal antzerkirako ikuslegoa hedatuz, ber ikuskizuna Euskal Herriko punta batetik bestera eskainiz; bestea, barnean eta kanpoan, euskal kultura ondare unibertsal baten ezaugarri berezi bezala ezagutaraziz, eta gaur egun euskal kultura deitzen dugun hori herri eta kultura desberdinen arteko gurutzatzeen historian kokatuz.

Antzerkian edo kantuan aritzerakoan betidanik plazerra ematen didana hau da: gureak diren gauzetan postura arrotz batetik sartzea, eta postura horretatik agertzen zaidanetik gauza horiei forma berri baten ematea

Herriaz, arteaz eta arroztasunaz

Arroztasunarekin jokatzeko ibilbide artistiko eta pertsonalaren oinarritzako parte bat da, eta, bide batez, zeinahi esperientzia artistikoren parte ere badela uste dut. Antzerki edo kantuan aritzerakoan betidanik plazerra ematen didana hau da: gureak diren gauzetan (gure gizartearen, gure kantuak, gure

sentimendu ‘unibertsalak’...) postura arrotz batetik sartzea, eta postura horretatik agertzen zaidanetik gauza horiei forma berri baten ematea, forma hori ikuslego bati proposatzeko. Hori lortzen denean, artista bere ikuslegoaren parte dela argi da, interpretatzen dituen gauzak partekatua direlako; baina, partekatua den hori galdezkatzeko unean, arrotzasun postura batean jartzen da, barnetik arrotz egiten da. Hori oso azkar sentitzen dut ene antzerki konpainia txipiaren sorkuntzak ene sorterrian ematen ditudanean, herriko plazan, txipidanik ezagutzen nauten herritarren eta familiakoen aitzinean. Alde batetik, biluzik bezala agertzen naiz, ene arrangura intimoenak plazaratzen baititut (emazte izateaz eta amodioaz mintzo dira gure azken bi ikusgarriak); eta, bestetik, arrangura horiek ene ezagun hurbilenekin partekatzea eta barnetik intimoa den zerbaiten zirikatzea lortzen baldin badut, hori egitera ausartzeko arrotz bat ere izan behar dut. Intimoki arrotz izatea maite dut, jendearekin harreman berri horren sortzeak dakarren eszitazio eta beldurrarekin.

Bestalde, betidanik bizi dudan barne-arrotzasun kulturala ere aipatu behar dut: Zuberoan (eta Iparraldean orokorki, nik uste) arrotzasun zerbait bada bakoitzaren baitan: ber etxean, amañi bat eta bere euskara ulertzen ez duen arraseme bat elkarren arrotz dira. Kanpotik jinik den euskaldun berri bat eta bere lehen auzo euskalduna elkarren arrotz dira. Horrez gain, ni sortu naizen aro honek gure lurrian bertan arrotz egiten gaitu: ezinago gutxitu diren bi munduren paisaietan bizi gara, hau da, laborantza mundua eta industria mundua. Maulen paseatzen den norbait gaurko jendetza baino anitzez handiagoa den jende kopuru batentzat eginiko hiri batean ibiltzen da, eta lehengo jende kopuru horrek suposatzen duen biziaren aztarnetan (taberna eta denda itxiak, plaza hutsak...). Eta Mauletik kanpo herri txipietan paseatzen denak hamar etxalteren lurretan etxalte bakar bat atzemanen du, etxe eroriak eta oporretarako baizik betetzen ez diren auzo osoak. Nihaur ere, nahiz eta mendien artean hazi, lurrarekin harreman handirik gabe handitu naiz. Bi bizimolde horiek

(laborantza eta industria) zerbait moztu da, bai eta euskal munduarekin ere, Zuberoa anitz frantsestu delako. Oso denbora gutxiko aldaketa nabarmen horiek gure lurraiekiko, ingurumenarekiko ere arrotz sentiarazten naute.

Zuberoan aro industrialak utzi digun mundua oso frantsesduna da; nahiz eta bere denboran kultura anitzekoa izan den (portuges, italiar, aragoiar, nafar), gaur egun horiek guztiak frantsesera lerratu dira, berdintasun pobreago batera. Bestalde, gero eta haur gehiago eskolan euskara ikasten ari baldin bada ere, Zuberoan mintzatzen zen euskara iraganari loturik egoten da, anitz gutxitu eta aldatu den laborantza mundu horrekin partez desagertzen baita, eskolako zuberotar bat sortzen ari delarik. Hala ere, iraganetik datorkigun kulturaren aztarnak bizirik dira eta zuberotarrek harroki bizirik mantentzen ditugu, gureak sentitzen ditugulako. Eta askotan kontserbatismora ere lerratzen gara, horrek arteari ateak hetsi ahal dizkiolarik. Gauzak betirako finkatu nahi dira, asmatzen da gauzak betidanik horrela izan direla, eta ez dira bizitzen uzten. Ene sorterrian antolatzen den Xiru arte sorkuntza jaialdia hartzen baldin bada, adibidez, euskaragabe frustratuentzat euskaldunegia da (arrotza, beraz), euskaldun beldurtientzat kanpotarregia (arrotza, beraz), kulturazale bantzuentzat sortzaile eta arraroegia (arrotza, beraz)... Arroztasunaren aurrean jendeak duen aihergoak ikusle kopurua murrizten du; baina arroztasunak den mendrena erakartzen duenak, aldiz, bere kontua aurkitzen du, eta horrelako unetan bizitzen eta partekatzen denak uste duguna baino askoz gehiago izan gaitzkeela erakusten digu. Sinesten dut arroztasunarekiko gogo zabaltasun eta erakarpen gaitasun hori herri baten sendotasunaren adierazle dela eta arteak gaitasun horren garatzen bere zeregina baduela, barne-arroztasuna beti iratzaririk eta agerian mantenduz. 🌿



Tabakalera

Ane Rodriguez (Tabakalerako Kultura zuzendaria)

Tabakalera Donostiako tabako fabrika zaharra da, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gune bilakatu dutena. Eraikuntza bat eta kultur egitasmo bat da. Hainbat lagunek kultur proposamen askotarikoekin partekatzen duten eraikuntza bat. Xedetzat ekoizpen zentro izatea eta bere lan ildoen bitartez egitarau publiko bat eskaintzea duen kultur egitasmo bat.

Bi ardatz horien artean planteatzen dugun egitasmoak, beraz, kultura prozesu gisa eta gizartea eta inguratzen gaituen gutzia ulertzeko giltzarri gisa irudikatzen du. Prozesuak azpimarratzen ditugu. Izaera publikoagoa duten jarduera, erakusketa eta egitarauz gain, gure lanaren zati handia egunerokoaren alde ikusezinagoan ardatzen da: sortzaileei beren egitasmoen edozein fasetan babesa eta laguntza eskaintzea. Halako ezaugarriak dituzten zentroek epe luzera izan dezaketen eragina garrantzitsua da ehun artistiko profesionala elikatzekeo testuinguru lagungarriak sortzerakoan, eta baita publiko orokorrarentzako sorkuntza lanabesak eskura jarri edo pertsonen egunerokotasunean ikus-hizkuntza txertatzerakoan.

Eraikuntza

Eraikuntzari buruz dihardugunean, kultur ekosistemaz eta plazaz ari gara. Edo auzoaz eta espazio publikoaz, auzo txiki baten antza baitu, bere kale eta enparantzekin, bizitzaren iragatearen lekuko. Erakunde eta ekimen pribatuen bizikidetzaren bitartez, aukera ugari dituen kultur ekosistema bat sustatzen dugu. Eraikuntzan, Tabakaleraren berezko kultur

egitasmoaz gain, beste hainbat erakunde publiko ere bizi dira elkarrekin: Zinemaldia, Euskadiko Filmategia, Etxepare Euskal Institutua eta Zineuskadi, Kutxa Fundazioarekin eta beste ekimen pribatu batzuekin batera –Impact Hub, NON Gallery, Arteuparte, Niko, El Sekadero eta Nana, eta baita Tabakalera osalaritza zerbitzuak ere–. Bizikidetza publiko-pribatu horrek zentroaren eredu ekonomiko jasangarriari erantzuten dio, kulturaren izenean publiko ezberdinei zuzendutako proposamen askotarikoetarako leku bat bilakatu duguna, hain zuzen.

Tabakalera bizikidetza horri egokitutako egitura oso bat daukagu, leku praktikoenetik, eraikuntzan gertatzen den guztia koordinatzera bideratutako beste erlazionalago batera, askotariko eskaintza bat ahalik eta modu artikulatuenean aurkeztzen saiatuz. Erakundeen arteko topaguneak sortzen ditugu, hain zuzen ere erakundearteko komunikazio eta harremanak errazteko asmoz.

37.000 m²-ko eraikuntzak tarteko espazio edo gela ugari sortzen ditu, hainbat plaza txiki; batzuetan geu saiaten gara horien erabilera definitzen, eta beste batzuetan erabiltzaileei beraiei uzten diegu leku horien erabilgarritasuna zehaztu dezaten. Erdiko plaza nagusiak agora gisa funtzionatzen du: egun batean azoka batekin harrituko gaitu, beste batean kontzertu txiki batekin, edo lagunaren arteko topaketa batekin.

Mestizajea interesatzen zaigu, belaunaldien arteko harremanak, ongi pasatzea, ikastea, aspertzea, publikoen nahasketak, zinemara datorrena pasa dadila lehenago kafe bat hartzera edo tailer batean izena ematera, eta izan dadila guztiok elikatutako leku bizi bat.

Egitasmoa

Egitasmoak hainbat xede ditu, sortzaileei laguntza eskaintzea edo hiritarrak sorkuntza prozesuetan sartzera, besteak beste. Egiten diren proposamen guztiak publiko objektibo ezberdinengana bideratuta daudelako da egitasmoa hain aberatsa eta konplexua.

Abiapuntuko testuingurua ezagutzea funtsezkoa da neurri honetako egitasmo bat abian jartzerakoan, eta zentroaren atea ireki baino lehenago heldu genion eginbehar horri. 2013an jarri genuen abian, adibidez, bitartekaritza egitasmo bat Egia auzoa –hortxe baikaude– eta bertako ehun asoziatiboa ezagutzeko, eta hortik abiatuta interes komuneko puntuak aurkitzeko lanean hasteko. Denboraren poderioz, bestelako testuinguru batzuei –hezkuntzaren esparruari, esate baterako– helduz joan gara, xede berberarekin.

Bitartekaritza egitasmoa funtsezkoa da, orobat, arte garai-kideko egitarauen edukiak publiko orokorrari hurbildu eta ikus-hizkuntza garaikidearekin trebatzeko gako nagusiak emateko orduan.

Egitarau orokorrari lotutako hezkuntza egitasmoak sortzetik harago –ikaskuntza taldeak, erakusketen bisitaldiak edo familientzako tailerrak, esate baterako–, bitartekaritza sailetik ehun sozialera hurbilduko gaituzten egitasmo autonomoagoak ere sustatzen ditugu. Tabako fabrika zaharreko langile ohien multzo batekin garatutako *Mañana Goodbye* bezalako prozesuek, hain zuzen, leku ezberdin batera igotzen dituzte arazoak edo egoerak, kultur ekoizpenaren mailara, landutako gaiak ikuspuntu artistiko batetik aztertzen baitira. Arte garaikidearen balio sinboliko bisualaz gainera, gure ingurunea auzitan jartzeko erreminta-kaxa modura uler dadin interesatzen zaigu.

Tabakaleraren moduko arte zentroek artistei eta beren sorkuntzei begira egon behar dute; horrenbestez, gure betekizuna da horien lana gizarteratzea eta ezagutaraztea, ikusgarri bihurtzea, eta baita horien sorkuntza prozesuak laguntzea ere. Horregatik, egitasmoaren osagarri garrantzitsuenetakoa

Mestizajea interesatzen zaigu, belaunaldien arteko harremanak, ongi pasatzea, ikastea, aspertzea, publikoen nahasketa, eta izan dadila guztiok elikatutako leku bizi bat

sorkuntza zentroa da, *Sortzaileen Gunea*, non sektorearen profesionalizazioa indartzen duten egitasmoak eta programak eta artisten ibilbideen garapena sustatzen ditugun.

Horixe da egitasmoaren atalik ikusezinenetakoa publiko orokorarentzako; baina, hala eta guztiz ere, horixe da garrantzitsuenetakoa, orobat, ehun artistiko osasuntsu eta indartsua edukitzea eta nazioartean lekua hartzea bermatu ahal izateko.

Sortzaileen Gunea, ekoizpen zentroa, egitasmoaren DNAn txertatuta dago; hortik jartzen ditugu komunitate artistikoaren eskura egitasmoetan lan egin, horiek garatu eta formalizatzeko hainbat baliabide eta zerbitzu. Tabakalerak erreferentziazko lekua izan behar du inguruko artistentzako, baina, horrez gain, artisten arteko elkarriketak eta trukeak sortzeko erantzukizuna ere badugu; horretarako ditugu egoiliar programak, formazio programak eta tailerrak, elkarrekiko garapen eta ikaskuntzarako testuinguru mistoak sortzen saiatzen baikara. Diziplina zein lurralde jatorri ezberdineko artisten bizikidetzak, izan ere, egitasmoen garapenari laguntzen dion sorkuntza eremua eragiten du. Beren egonaldian zehar, egoilietan, Tabakaleran taxututako kultur ekosistemaren baitan sartzen direnez, *Hirikilabs* edo *Ubik* sorkuntza liburutegia bezalako baliabideetan jardun daitezke teknikarien ezagutzaren laguntzarekin, edo egitarau publikoetan eta zentroaren egitarau orokorrean parte har dezakete.

Zentroaren egitaraua oso zabala da, eta publiko objektibo ezberdinei erantzuten die. Zinemak eta ikus-entzunezko egitarauak osatzen dute zati nagusia, Zinemaldiarekin eta Filmategiarekin dagoen harreman zuzenaren ondorioz. Tabakalerak, hiriaren eskaintza osatzeko asmoz, zinema jaialdien zirkuituko eta autore ez komertzialen filmek osatutako egitaraua eskaintzen du. Hauxe da ikus-entzunezko egitarauen gakoetako bat: tailerren, topaketen, aurkezpenen eta egileei zuzendutako egonaldien bitartez, testuinguru kritiko eta sortzailea sustatzea, sortzaileen espazioari edo publiko berrien sorrerari begira, beti ere.

Programa publikoen bitartez, foro kritikoen eta ezagutzaren sorrera sustatu nahi dugu. Hainbat alor dira interesatzen zaizkigunak, baina gaur egun bitan jartzen dugu indarra. Espazio publikoan, batetik, hiri eta hirigintza mailan zein esparru publiko mailan ulertuta. Bestetik, kafea, azukrea, kakaoa eta tabakoa bezalako estimulatzailerik modernoek gure gizartearen osaera politikoan izan duten eragina ikertu nahi dugu.

Erakusketak, bestalde, zentroaren espiritu eta filosofiaren erakusleho garrantzitsu bilakatu dira. Horien bitartez, artisten obra berriak sortzen eta beren ibilbideak ezagutarazten laguntzen dugu. Bestaldetik, iker-lerro artistikoak gauzatzekoan, pentsamendu eremu ere bihurtzen dira. Tabakalera nazioarteko arte zentroen panoraman kokatzeko ere giltzarri dira, horiekin batera aurrera eramaten ditugun lankidetzekin. Era horretan, erakusketa kolektibo edo indibidualen bidez, jatorri ezberdineko artista eta komisarioen lanarekin, kultur ekoizpenaren ikuspuntutik hainbat auzitan sakontzea ahalbidetzen digun erakusketa egitaraua osatzen dugu.

Hirikilabs teknologia eta kultura digitalaren inguruko hiritarren laborategia da, eta hainbat dimentsio ditu. Batetik, teknologiaren erabilerari eta horren gizarte aplikazioari buruz gogoeta egiten duten lantaldeentzat irekita dagoen laborategia da. Bestetik, gure zein besteen egitasmoen garapenerako baliabide eztabaida ezina da. Egitasmoen deialdiaren bitartez, hiritarrek teknologiari lotutako egitasmoetan lan egin ahal izateko lanabes eta ezagutzak eskaintzen ditugu. *Hirikilabs* kultura librearen filosofian oinarritzen da, eta bere baliabideen erabilerak sortutako ezagutza berria partekatzeko konpromisoari heldzen dio. Laborategi batek bezala funtzionatzen du, bere zentzurik hertsian, prototipoen sorkuntzarekin eta publiko zabalari bertan parte hartzeko aukera emanez.

Ubik, bere aldetik, egitasmo osoaren filosofiaren laburpena da nolabait, sorkuntza, ezagutza eta ikaskuntza eremu gisa. Sorkuntza liburutegiak kultura garaikideari buruzko funts

espezializatua du, kultur egitasmo osoaren interes eta lan-ildo guztiak islatzen dituena. Leku honetan, kultur egitarauan gertatzen den guztiari beste dimentsio bat ematen zaio, eta, bestalde, eremu ezberdinetarako sarbide gisa jokatzen du, horietara sartzeko funtsezko lanabesak eskainiz. Bibliotekan zehar, teknologiari, ikus-entzunezkoari, soinuari, autoedizioari eta bideo-jokoei eskainitako bazterrak aurkitu ditza-kegu, diziplina horiek publikoari hurbildu eta sorkuntzaren parte hartzaile bihurtzeko asmoz. Gozatu, ikasi eta sortzeko espazioa da, garrantzi handikoa kultur egitasmoaren barruan.

Tabakalerara iristen dena berehala ohartzen da eskaintzaren oparotasunaz eta espazioaz egin ditzakeen erabilera anitez. Hainbat eta hainbat aukera daude, eta horien intentsitatea 0tik 100era igaro daiteke erabiltzaile bakoitzaren interesen arabera: espazioa autobus geltokitik Egia auzora igarotzeko erabiltzetik, beste erabilera ugariara. Gauza bakarra behar da: jakin-min pixka bat eta denbora librea. 🌿

[Erredakzioan euskaratua]



Astra

Leire Lopez Ziluaga • Oier Plaza
(Astra Koordinadorako kideak)

Gernika 16.000 biztanleko herria da, baina eskualdeko herri txikietako pertsona askok hara jotzen dute hainbat kontutarako (eskualdeak 64.000 biztanle ditu). Orain dela 20 bat urte, Gernika-Lumo Bakearen eta Kulturaren Hiria omen zen eta herriko agintariak inbertsio ekonomiko handiak egin zituzten kultura mota jakin batean; baina herriko hainbat beharrian, oinarrizko kultur baliabideekin lotutakoak, ahaztu egin zituzten. Belaunaldi bat 'kulturaren hiri' horretatik kanpo sentitu zen eta berea eraikitzen hasi zen apurka-apurka. Orain, Iparragirre Rock Elkarteak, Trinkete antixokoa, tabernekin antolatutako kontzertuak, bideogileek egindako hainbat lan... ditugu herrian, 80ko hamarkadako mugimendutik geratzen diren hainbat ekimen ezinbestekorekin batera. Eta Astra ere badaukagu.

Kontakizunak behar ditugu, gertakariak. Batzuetan gauzak azkartzen dira eta denbora luzean elikatuko gaituen iruditeria sortzen da. Horrelako uneak behar ditugu, baina arriskutsuak dira, noizbait gertatutako zerbait handi bati lotuegiak gera gaitzkeelako betiko. Astra okupazioak elikatzen du oraindik ere neurri batean. Hain zuzen ere, 2005eko abenduaren 24an okupatu zuten Astra gazte asanbladan biltzen ziren 60 bat gazteek. Gazteek gaztetxea nahi zuten, musikariak entsegu lokalak, talde sozial eta kulturek biltzeko espazioak. Horrez gainera, inguru horretan proiektu espekulatiboak egitea saihestu nahi zen. Okupatu eta berehala, Astra Gernikarentzako plataforma sortu zuten gazteek nahiz kultur eta gizarte eragileak, eta hiru eskari plazaratu zituzten: Astra publikoa izatea, erabilera sozial-kulturala edukitzea, haren etorkizuna herriko gazteek eta eragile sozial eta kulturek modu parte-hartzailean erabakitzea.

Proiektuaren dibertsitateak garrantzi handia izan zuen hasieratik. Ibilbide, ikuspegi eta toki ezberdinetatik etorritako pertsonak bildu ziren, eta hasieratik geratu zen argi ekarpen eta pertsona asko falta zirela proiektuan. Dibertsitate horretan espazio komun bat bilatzea, adostasunak eraikitzea izan da proiektuaren alde garrantzitsuenetako bat. Astra espazio komun horren bilaketa da, neurri handi batean.

Ordutik aurrera, laburtzeko zailak diren gauza asko gertatu dira. Besteak beste, udalak eraikina erosi zuen eta herritarrek antolatutako hainbat parte-hartze prozesu egin dira Astra zer izango den elkarrekin erabakitzeko. Une honetan herritarrek autogestionatzen dugun proiektua da.

Badago proiektua espazioarekin lotzen duen kontu garrantzitsu bat. Astra eraikin sinbolikoa da herrian eta ez da gauza bera proiektua Astran egitea edo sinbolismo hori ez duen toki batean. Astra, izan ere, Gernikak Eibarko enpresariei oparitutako lurretan eraiki zuten, eta herriko aurreneko langile grebak han egin ziren. Bonbardaketaren ostean zutik iraun zuen eraikin bakarretakoa da, herriko eraikinen %85 baino gehiago suntsitu zutenean. Herritar askok eta askok egin dute lan han, eta herri bonbardatuan arma lantegia izatearen kontradikzioa agerian uzten duen eraikina da.

Astra 2.600 metro koadroko eraikina da. Hiru pisu ditu, baina hirugarrena bukatu gabe dago. Beheko solairuan eszenatoki bat, *backstage*-a, umeentzako txokoa, barra, lantegia eta sukaldea daude, eta kanpoaldean ortua. Lehen solairuan, gorpuzte faktoria, komunikazio eta bilera gunea, hacklaba, hitzaldi eta bideo emanaldietarako gunea eta erakusketarako gunea. Bigarren solairuan gazte asanbladaren gunea, irratia eta biltegia. Dena dela, Astrako espazioak multifuntzionalak izateko daude pentsatuak, eta beste erabilera asko ere izan ditzakete.

Proiektuaren filosofia

Astra tresna konpartitua da, inguruan duen komunitateak autogestionatzen duen espazioa. Astrak ezin du funtzionatu

jendearen energiari gabe, hau da, auzolanari esker funtzionatzen du. Praktikek eta egiteko moduek dute garrantzi gehien. Gauzak nola egiten diren da garrantzitsua; bidea, helmuga baino gehiago.

Astra proiektuaren filosofia 0 km parte hartze prozesuan adostu zen:

- Gizarte parte hartzea sustatuko duen espazioa
- Autogestionaturiko espazioa
- Kultur sorkuntzarako espazioa
- Kulturaz gozatzeko espazioa
- Euskara sustatzeko espazioa
- Irabazi asmorik gabeko espazioa
- Belaunaldi arteko espazioa
- Kultura arteko espazioa
- Garapen jasagarria helburutzat duen espazioa
- Antimilitarista
- Oroimenerako espazioa
- Genero berdintasuna sustatuko duen espazioa

Funtzionamendua eta gobernantza

Astra Koordinadora da Astra kudeatzen duen asanblearen izena. Ez dute pertsona edo talde jakin batzuek osatzen. Nahi duenak parte hartzen du, nahi duenean, obligaziorik gabe. Bertan parte hartzen duten pertsona batzuk asanblea gehienetara joaten dira eta beste batzuk agian asanblea bakarrera joango dira. Denek dute balio bera. Batzuek herriko kultur edo gizarte taldeetan parte hartzen dute eta beste batzuek ez. Ez da Astran biltzen diren taldeen asanblea bat, eta, beraz, talde bereko lau kide egon daitezke lau ahots

Astra Koordinadora da
Astra kudeatzen duen
asanblearen izena.
Ez dute pertsona edo
talde jakin batzuek
osatzen. Nahi duenak
parte hartzen du, nahi
duenean

ezberdinekin, parte hartzen dutenek ez dutelako haien taldea ordezkatzeko.

Beraz, Koordinadora Gernika-Lumoko herritarrek osatzen dugu. Herritarrok konpromiso ezberdinak hartzen ditugu, egin nahi dugunaren eta egin dezakegunaren arabera, eta denak dira garrantzitsuak: astero biltzen diren lantaldeetan parte hartzen dutenak, lantzean behin barrako txandak egiten dituztenak, babes ematen dutenak...

Astra elkarrekin lan egin, pentsatu eta erabakiak hartzeko gunea da. Esate baterako, auzolanean egiten dira espazioa atontzeko lanak eta garbiketa txanda bidez egiten da, parte hartzen duten taldeen eta lantaldeetako kideen artean. Aldi berean, bertan parte hartzen duten taldeek autonomia dute haien balioen arabera funtzionatzeko. Adibidez, Astrak ez du diru-laguntzarik eskatzen, baina horrek ez du esan nahi taldeek ezin dutenik eskatu, hala erabakitzen badute.

Koordinadorak asanblea bidez hartzen ditu erabakiak eta, horretarako, hainbat erabakigune ditu, guztiak irekiak. Astra proiektuaren oinarrian dauden erabaki nagusiak kilometroak izeneko parte-hartze prozesuetan hartzen dira. Hain zuzen ere, Parte Hartuz ikertaldea eta Joxemi Zumalabe Fundazioa izan ditugu bidelagun prozesuotan, haiek diseinatzen laguntzen, dinamizatzen... Orain arte lau kilometro egin dira. 0 km-n Astra proiektuaren zirriborroa adostu genuen: filosofia, hiztegi komuna, funtzionamendua, finantziarioa, jarduerak, espazioak; 1 km-n proiektu arkitektonikoa eta espazioen banaketa landu genituen; 2 km-n funtzionamenduan sakondu genuen, besteak beste, finantziarioaz eta liberazioez hitz egin genuen; 3 km-n filosofian sakondu, zainketa kolektiboak landu eta bigarren solairuaren etorkizunaz hitz egin genuen.

Astra Koordinadoraren urteko erabaki nagusiak urtaro bakoitzean egiten diren lau asanbleetan hartzen dira. Horrez gainera, bi astean behin biltzen den kudeaketa lantalde bat dago, asanbleetan hartutako erabakiak kudeatzeko eta egunerokotasunean sortzen diren beharrez, arazo eta proiektuei irtenbidea emateko.

Dena dela, Astra Koordinadoraren egunerokotasuna lantaldeetan kudeatzen da, asanbleak erabakitakoaren barruan, autonomia baitute haien lana egiteko. Une honetan, lantalde hauek ditugu: egitaraua, komunikazioa, diruzaintza eta azpiegiturak. Lantalde horiek martxan egon ohi dira beti, baina unean uneko beharrizanen arabera indar gehiago edo gutxiago izan dezakete. Horrez gainera, une jakin batzuetan lantalde gehiago sor daitezke, beharrezkoak badira; esate baterako, okupazioaren 10. urteurrena antolatzeko lantalde berezia izan dugu azken urtean.

Diruzaintza lantaldea diru kontuez arduratzen da, jakina. Koordinadorak ez du diru-laguntzarik eskatzen eta barra da bere diru iturri nagusia. Udalak eraikinari dagozkion gastuak hartzen ditu bere gain, gainontzeko udal eraikinetan egiten duen bezala: argia, ura, berogailua, igogailua... Gainontzekoa Koordinadorak ordaintzen du. Astrak ordaindutako gastuak 85.000 euro ingurukoak izaten dira urtean, eta udalak ordaindutakoak 20.000 euro ingurukoak. Koordinadorak irabazten duen diru gutzia Astran bertan inbertitzen da berriz: azpiegiturak eta baliabideak hobetzeko, langileen soldatak ordaintzeko, komunikaziorako...

Astrako egitarau lantaldeak ez du egitaraua antolatzen, koordinazio lanak egiten ditu. Beraz, egitaraua herriko eta, neurri txikiagoan, herritik kanpoko talde eta norbanakoek antolatzen dute, eta lantaldea proposamenak jasotzeaz, egitarauan lekua egiteaz, antolaketa errazteaz... arduratzen da. Hala ere, kasu batzuetan salbuespenak egiten dira eta lantaldea proaktiboa da, bereziki dirua behar denean edo interes komunekoak diren arloetan hutsuneren bat dagoenean. Urtean 200 ekimen inguru egiten dira, eta lantaldeak %10 baino gutxiago antolatzen du.

Komunikazio lantaldearen zeregin nagusia transparentzia bermatzea da, informazioa ez dadin gutxi batzuen esku egon. Izan ere, pertsona guztiek parte hartzeko aukera izateko, denok izan behar dugu informazio ahalik eta gehiena. Astraren webguneaz, sare sozialez, kartelez, esku orriez...

arduratzen da. Modu ahalik eta zabalenean komunikatzen saiatu behar da.

Astrako espazioa, proiektua bezala, etengabe birdefinitzen da; horregatik erabaki zen espazioak moldagarria eta multifuntzionala izan behar duela. Azpiegitura lantaldea arduratzen da lan horretaz eta, orain, 2. solairuaren inguruan egiten du lan gehien. Une honetan, biltegi moduan erabiltzen da batez ere, eta etorkizunean gainerako solairuak bezainbeste erabiltzea aurreikusten da.

Lantaldeez gainera, soldatapeko bi langilek egiten dute lan Astran: bitartekaria eta barrako arduraduna. Bitartekaria

Euskara da hizkuntza nagusia komunikazioan, espazioan bertan nahiz sare sozial, kartel eta abarren bidez. Dena dela, Gernika-Lumon hitz egiten diren gainontzeko hizkuntzei leku gehiago egin nahi genieke

herriaren eta Astraren arteko zubia da. Herritarrei harrera egiten die, zalantzak argitzen ditu, Astrako harreman sareak zaintzen ditu, interes komunak dituzten talde eta pertsonak harremanetan jartzen ditu eta baliabide komunak zaindu eta erabiltzen laguntzen du. Ezin du bere gain hartu lantaldeena den lanik, ez baita lantaldeei lana arintzeko pertsona bat. Barrako arduraduna, berriz, barrarekin lotutako

kontuez arduratzen da, esate baterako, eskariak egiteaz; eta barra irekitzen du igandetik ostegunera, eta ostiral nahiz larunbatetan txanda bidez irekitzen da. Barrako produktuak gertukoak eta ekologikoak izan daitezen saiatzen gara.

Euskara eta euskal kultura

Astra proiektuaren filosofiaren parte da Astra euskalduna dela. Hizkuntza nagusia da komunikazioan, espazioan bertan nahiz sare sozial, kartel eta abarren bidez. Asanbleak euskaraz egiten dira eta aldi bereko interpretazioa egiten da

hizkuntza ulertzen ez dutenentzat. Dena dela, leku gehi-
go egin nahiko genieke Gernika-Lumon hitz egiten diren
gainontzeko hizkuntzei, badakigulako pertsona asko falta
direla oraindik proiektuan, bereziki Euskal Herritik kanpo
jaiotako gernikarrak.

Euskal kulturaren inguruan ez dugu erabakirik hartu. Ez
dakit euskal kultura zer den berdin ulertzen dugun ere. Eus-
karaz egindako kulturaz ari bagara, Astrako ekimen gehienak
euskaraz egiten dira. Indar gehiago jarri behar dugu agian
jatorri errumaniarreko pertsona batek ekimenak bere hiz-
kuntzan egin ditzan Astran, adibide bat jartzearen. Gure
kulturaren zati bat falta zaigu.

Kultur sortzaile eta eragileekin harremana

Ez dugu gainerako herritarrekin dugun harremanarekiko
berezia den harremana kultur sortzaileekin. Horrek ez du
esan nahi sortzaileekin harremanik ez dugunik edo Astran
sortzaileek parte hartzen ez dutenik, baizik eta ez dugula
herritarren eta sortzaileen arteko bereizketarik egiten. As-
tran sorkuntza dago eta herrian sorkuntza lanetan dauden
pertsonekin harremana du proiektuak, jakina: musikariak
–bereziki Iparragirre Rock Elkarte–, bideogileak, antzez-
leak, idazleak, margolariak, argazkilariak... Pare bat adibide
jartzearen, literaturaren inguruan aritzen diren hainbat per-
tsonak Literazkura proiektua sortu dute, eta herriko hainbat
margolariren artean panel handi batzuk sortu zituzten Astran
margolanak erakusteko. Dena dela, esanguratsua da hasiera
batean espazioetako bat arte faktoria izateko pentsatu izana
eta erabilera hori inoiz eduki ez izana.

Kultur eragileek ere Astran parte hartzen dute, herriko gai-
nerako elkarte eta taldeek bezala. Lehenago esan dudan be-
zala, ekimen gehienak ez ditu egitarau lantaldeak antolatzen;
beraz, ezinbestekoa da herriko kultur eta gizarte eragileek es-
pazioa erabiltzea. Besteak beste, ikusi dugu baliabide egokiak
dituen eta erraz erabiltzen den espazio bat edukita, eragileek

ekimen gehiago antolatzen dituztela eta, are gehiago, eragile gehiago ere sortzen direla. Gainera, espazio autogestionatua izanik, ikasketa prozesua izaten da ekimenen antolaketa bera, eta, beste eragile asko izanik inguruan, hasieratik beste batzuen laguntzarekin ikasteko aukera ematen du.

Erakunde publikoekin harremana

Ieup gazte asanbladak eta Astra Koordinadorak hasieratik izan dute udalarekin harremanen bat. Hasieran, eskariak egiteko baino ez zen izan, baina herritarrek 0 km parte-hartze prozesuan Astra proiektua onartu ostean, Astra batzordea sortu zen, udalak herritarrek asanblea bidez erabakitakoa onartu zezan. Batzorde horretan udalean ordezkari zuten alderdi guztiak eta Koordinadorako kideak bildu ginen, ez baikenuen une horretan udalean zeuden alderdiekin soilik hitz egin nahi. Herritarrek adostutakoa ahalik eta ordezkari gehienek onartzea nahi genuen.

Sei hilabeteko hizketaldien ostean, udalbatzak Astra proiektua onartu zuen, baita Astra berreraikitzea eta berreraikuntza nola egingo zen modu parte-hartzailean erabakitzea ere. Berreraikuntzarako dirua udalak eta Koordinadorak elkarrekin bilatuko genuela erabaki zen, eta azkenean Eusko Jaurlaritzaren Sormen Lantegien proiektutik heldu zitzaion dirua udalari eraikina biziberritzeko.

Gaur egun Astra Koordinadorak hitzarmen bat du Gerrika-Lumoko Udalarekin, eraikinaren erabilera eta kudeaketa Koordinadorari lagatzen diona, eta eraikinean Astra proiektua martxan jarriko dela onartzen duena, hau da, Astra asanblea bidez kudeatuko dela onartzen duena, Astraren inguruko erabakiak herritarren esku uzten dituen. Horrez gainera, udalean ordezkari zuten alderdiak eta Koordinadorako kideak Astra batzordean biltzen dira oraindik ere. 🌱



Azpeitiko Kultur Mahaia

Izaro Zinkunegi (Azpeitiko Kultur Mahaiko teknikaria)

Harira. Azpeitian kultur komunitatea artikulatuta dago: Kultur Mahaian. Eta bilgune hori bada nor herriko bizitza sozio-kulturalen. Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultatearen *Euskal kulturgingintzaren estrategiak garatzeko oinarriak* (2010) lanak bazekarren Kultur Mahaia berri ere: «herri ekimenetik» sortu izana azpimarratu zuen, eta «kultur ordezkariak eta udalekoak berdinetik berdiner» aritzen direla. Izan ere, Kultur Mahaia ez da udal organo bat, baina udal ordezkariak ere parte hartzen dute; baita Azpeitiko kultur talde guztiek eta norbanako batzuek ere. Talde-lana da haren lan estiloa, erabakigunea gizartean kokatuta. Berme bat da hori, zaindu beharrekoa.

2006an eman zituen lehen pausoak Kultur Mahaiak. Ordea, lehenago du sorburua: Uztarria Kultur Koordinakunde (1998). Aurretik aipatutako ideia hori Ezequiel Ander-Egg argentinar soziologoaren esaldi batean pausatzen da: «No estar en algo, sino decidir en algo» («Ez egon zerbaitetan, baizik eta zerbaitetan erabaki»). Uztarriak berak aipatu zuen 2011n Huheziren Euskal Kulturgingintzaren Transmisioa graduondoko hitzaldi batean, eta osatu: «Guk gure proiektua abiatu genuenean 1998an, ez genuen aholkulari izan nahi, ez nonbait egon, baizik eta geuk egin, geuk erabaki. Elkarlanean bazen, hobeto». Hala gertatu zen. Hala gertatzen ari da Kultur Mahaiarekin.

Herri mugimenduak sortu zuen Uztarria Kultur Koordinakunde, euskara, komunikazio eta kultura arloak jorratzeko, eta, ondorioz, Azpeitiko bizitza soziokulturalaren erdigunean kokatzeko eta eragiteko, beti ere demokraziaren funtsezko balioekin arituz: informazioa, parte hartzea, gardentasuna,

eztabaida, elkar ulertzea, errespetua... Azken batean, ordea, ardura hartu eta erabakitzeke, eta egiteko. Bazen egitekorik, hiru arlo haietan minimoaren azpikoa baitzen Azpeitiko egoera, eta lortu edo sortu ziren hamaika proiektu eta ekinbide. Baina: «Kultura politikoari ematen diogu guk garrantzirik handiena. Parte bakoitzak egindako lanari esker, gauzak beste era batera egiten dira orain Azpeitian», esan izan du Uztarriak bere agurraren ondotik.

2008ko martxoan desegin zen Uztarria Kultur Koordinakundea, sortu eta justu hamar urtera, eta harrezkero komunikazio taldea da. Kulturaren alorrean, nolabait esanda, Kultur Mahaiak hartu zuen lekukoa, pixka bat lehenago eta hark baino askotariko eragile gehiagorekin.

Esan bezala, 2006an egin zituen lehen urratsak Kultur Mahaiak. Oso noizean behin biltzen zen, udalak deituta eta haren erara. 2007 bukaerako batzar batean, kultur taldeetatik planteatu zen beste funtzionamendu bat behar zela, iraunkorra eta egituratua, udaletik kanpo baina udalarekin ere bai, helburuak, norabidea eta ardatzak ezarriz, proiektuak egiteko, baliabideak eskuratzeko eta egitasmoak gauzatzeko. Guztion artean. Kultur proiektua eta kultura politikoa.

Ez ginen hutsetik abiatu, aurreko urteetako lanagatik eta talde bakoitzaren aberastasunagatik. Talde bakoitzak segitu zuen bere arloa jorratzen eta udalaren kultur ekinbideak ere errespetatu ziren –kontu horiez denez ere hitz egin zen batzarretan, gauzak garbi geratzeko–, baina baziren hutsune edo gabezia orokor handi batzuk –kultur azpiegiturak, komunikazioa, egutegi koordinatua...–, eta guztien artean jorratzea deliberatu zen, bilgune eta erabakigune herritar bat osatuz.

Kultur mugimenduak ezin du unean uneko testuinguru politiko-instituzionalaren arabera jokatu edo haren menpe egon. Nor izateko, ezinbestekoa da autonomia izatea. Salbuespenak salbuespen, administrazioa nahikoa itxia da oraindik ere; uste du eremurik sozialenetan ere berak agindu behar duela, berak erabaki eta berak kudeatu. Gertatzen da,

eta hemen ere salbuespenak badira, erraz egiten zaiola hala jardutea, gizartea arloka ez baitago artikulatua. Arlo bakoitzean eragileak bere kasa ari dira lanean, ez dute sektorea antolatua, ez dituzte adosten lehentasunak, ez dute modu kolektiboan indar egiten administrazioan eta gizartean, eta, ondorioz, ez dira gai nor izateko.

Batzea eta artikulatzea izan zen Kultur Mahai *berritua* eratzeko ideia. Orduan ere garrantzitsua zen herriko kultur mugimendua: hogeitaka talde, 1.000-1.500 lagun taldeetan, urtean berrehunen bat ekitaldi –denak ez kultur taldeek antolatuak–, antzerki topaketak bezalako ekinbide inportanteak... Baina pauso bat harago ematea falta zen, etorkizuneko oinarriak jartzeko. Eman zen. Halako urratsak egitean sortu ohi dira desadostasun batzuk, baina, lana lehen aipatutako balioekin eginez gero, gainditu daitezke arazoak. Era berean, garrantzi handia eman genion antolaketari.

Kultur mugimenduak ezin du unean uneko testuinguru politiko-instituzionalaren arabera jokatu edo haren menpe egon. Nor izateko, ezinbestekoa da autonomia izatea

Antolaketa

Ondorengo orrialdeetan datoz Azpeitiko kultur mugimendu artikulatuari buruzko azalpen nagusiak.

Kultur Mahaia

Kultur Mahaia. 2006ko otsailean sortu zen Azpeitiko Kultur Mahaia, baina 2007ko abendutik du martxa iraunkorra eta egituratua. Herriko kultur talde denek –22ek–, udal talde guztiek, udal eta Kultur Mahaiko kultur teknikariek, norbanako batzuek eta mahaiaren beraren Kulturaz kooperatibako langileek osatzen dute. Guztiak euren borondatez daude.

Elkarte juridikoa. Kultur Mahaiak Kulturzale kultur elkartea sortu zuen 2009ko martxoan, tresna juridikoa izateko diru laguntza publikoak eskatzeko, deialdi publikoetara aurkezteko, teknikaria kontratatzeke... Harrezkero, Kultur Mahaiaren elkarteak urtero aurrekontu bat izan du, eta, besteak beste, teknikaria –egun erdiz–. 2016ko aurrekontua: 18.000 euro. Estatutuek agindu bezala, elkarteak lehendakaria, idazkaria eta diruzaina ditu, baina kide figuratibo gisa. Bilgunea da subjektua, ez elkarre juridikoa.

Talde Eragilea. Operatiboagoa izateko, Kultur Mahaiak Talde Eragilea du 2007ko abendutik. Mahaiaren osaeraren isla da: kultur taldeak daude –txandakako sistema bat jarri zen–, langileak, udal taldeak, eta norbanakoak –horien artean nahi duena da kide, baina konpromiso bat agertu behar du.

Tarteka, Talde Eragileak Talde Txikia sortu izan du, bertako kide batzuek euren borondatez osatua. Une jakinetan lan bolumen handia izandakoan egon da Talde Txikia; adibidez, Sanagustin kulturgunearen proiektua egitean.

Bazkideak. Kultur Mahaiak babes soziala ere izateko, bazkideak ditu, Kulturzale elkarte juridikokoak. Gaur egun, 380 dauzka. Urteko kuota: hamar euro. 22 bazkide, kultur taldeak dira –ez dute kuotarik ordaintzen–. Urtean bazkideen ohiko batzar nagusi bat egiten da.

Barne araudiak. Gardentasuna eta funtzionamendu egokia izateko, Kultur Mahaiak barne araudia du, eta haren Talde Eragileak ere badu berea. 2008ko batzar nagusi batean onartu ziren biak. Kultur Mahaikoaren ezaugarri batzuk: mahaiaren izaera eta osaera zehaztuta daude, bilguneak urtean gutxienez hiru batzar nagusi egiten ditu, batzar bakoitzeko akta egiten da, mahaiaren batzarretan botoa kultur taldeek baino ez dute eta erabakiak gutxienez %60ko gehiengoan izan behar du.

Talde Eragilearen barne araudia antzekoa da izaeran, eta bere ezaugarri propioak ditu: bilera maiztasuna hamabostetokoa da, boto sistema ponderatua du –norbanako denen

artean gehienez bi boto, udal taldeek botorik ez...-, Talde Eragileak deitzen ditu mahaiaren batzarrak, aktak egiten ditu...

Kultur teknikariaren lanak ere zehaztuta daude, idatziz.

Erabakiguneak. Kultur Mahaian, haren Kulturzale elkarte juridikoaren bazkideen batzar nagusia da organo gorena. Ofizialki, han hartzen dira erabaki nagusiak, bozketa bidez. Bazkide bakoitzak boto bat du. Udalari ez diogu eskatzen hango erabakiak betetzeko, baizik eta kontuan hartzeko –aintzat hartu behar da udal taldeak Kultur Mahaiko kide direla, eta, beraz, haiek ere parte hartzen dutela erabakien prozesuetan.

Ondorengo organo nagusia Kultur Mahaiko batzarra da: bazkideen batzarreko erabakiak gauzatzen direla egiaztatzeko gunea da, urtean zehar sortzen diren proposamenen-eta eztabaidarako ere bai, bazkideen batzarra prestatzen da han, Talde Eragilearen jarraipenerako gunea da...

Kultur Mahaiaren azpitik Talde Eragilea dago: operatiboa da. Bertan ere hartzen dira erabakiak, mahaiak aitortzen baitio autonomia bat, baina haren erabakiak ez dira, jakina, estrategikoak; baditu organoak goitik.

Prestaketa lana. Talde Eragilea da Kultur Mahaiko motorra, baina erabakiak lehenik mahaian eta gero, ofizialki, bazkideen batzarrean hartzen dira. Makineria martxan egoteko, Talde Eragileak etengabeko harremanak dauzka Azpaitiko kultur taldeekin eta udalarekin. Herriko beste elkarteekin ere badu hartu-emanik, baita Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Euskal Herriko beste entitate batzuekin ere. Ideiak aurkezteko eta hobetzeko –edo egokitzeko edo aldatzeko–, proposamenak jasotzeko edota funtzionamenduari dagozkion iritziak biltzeko dira bilera horiek. Asmoa izaten da kultur komunitatea osatzen dugula ikusaraztea, hura sendotzeko. Eta zentralitate funtzio bat betetzen jarraitzea ere bai. Hots, denekin ditugu harremanak, denen artean egin nahi ditugu pausoak, azkenean bakoitzak bere senti ditzan proiektuak eta bideak.

Kultur Mahaia ez da kultur elkarte *arrunt* bat. Kultur diziplinak jorratzen dituzten taldeak badaude Azpeitian. Kultur Mahaia ez zen beste bat izateko sortu, denontzako proiektuak denon artean egiteko baizik

Barne komunikazioa. Guretzat funtsezkoa da barne komunikazioa. Kultur Mahaiaren batzar bakoitzeko aktak egiten ditugu –eta zabaldu–, eta bazkideen buletina ere egiten dugu bi hilero. Bestelako bideak ere urratzen ditugu proposamenak-eta zabaltzeko edo biltzeko, langileak hartzeko, deialdiak hedatzeko...

Kanpo komunikazioa. Sinesgarritasuna da kontuan hartzen dugun beste balio bat. Hala, kanpora begira gauzak zabaltzean, *esan eta egin* dugu ipar. Hau da, ekinbideen eta proiektuen kasuan, esaten duguna egin egingo dugula

barneratzea jendeak. Beraz, tentu handiz komunikatzen ditugu gauzak, bakoitza bere garaian eta arestian aipatutako prozedura bete ostean. *Uztarrria.eus* Azpeitiko webguneko komunitatearen atalean Kultur Mahaiak badauka bere profila: uztarrria.eus/komunitatea/KulturMahaia. Han argitaratzen ditugu gure berriak eta. Horrez gain, bestelako bideak jorratzen ditugu: hedabideetara prentsa oharrak, agerraldiak, edota ekitaldien kasuan kartelak, Sanagustineko karteldegi elektronikoa eta sareko hileroko agenda.

Egitasmoak. Kultur Mahaia ez da kultur elkarte *arrunt* bat. Kultur diziplinak jorratzen dituzten taldeak badaude Azpeitian, eta Kultur Mahaia ez zen beste bat izateko sortu, denontzako proiektuak denon artean egiteko baizik. Hor dugu, barne mailako lanez gain, Sanagustin kulturgunea, Soreasu antzokia, kultur egutegi aldetik pauso handiak eman dira koordinaziorako-eta, transmisioa landu da, komunikazio euskarriak... Baina, estrategia orokorra laguntzeko, mahaiak urtean zehar antolatu izan ditu edo antolatzen ditu ekinbide

zehatz batzuk, horietako zenbait, elkarlanean: ohorezko bazkidea izendatzeko ekitaldia, solasaldiak, Txiki Biran, Kulturaldia, *Gartxot* ikuskizuna, kultur bonoa, Azoka Herritik... Ekinbideok ez dira kultur taldeen lana ordezkatzeko, baizik eta proiektu orokorra sendotuz joateko. Eta, beti, Talde Eragileak aurrez mahaiko kideei azaldu eta haien onespenearekin egiten dira.

Kulturaz Kooperatiba Elkarte

Kultur Mahaiak kudeatzen ditu Azpeitiko bi kultur eraikin handienak: Sanagustin kulturgunea eta Soreasu antzokia, Kulturaz Kooperatiba Elkartearen bidez. Biak ere, udalaren lehiaketak irabazita. Sanagustinen kudeaketa 2011ko uztailan hartu zuen mahaiak, eta, horrelako proiektu handi bat gestionatzeko Kulturzale elkarte juridikoa nahikoa ez zenez, kooperatiba bat sortzea erabaki zuen: *Sanagustin* izenekoa.

2014ko urritik aurrera Soreasu antzokia ere kudeatzen du Kultur Mahaiak, eta 2016ko uztailean arte Sanagustin kooperatibaren bidez gestionatzen zuen. Proiektuaren osotasuna eta handitasuna kontuan hartuz, kooperatiba egokitzea erabaki genuen, eta izena ere aldatu genion, *Kulturaz Kooperatiba Elkarte* izena jarritz.

Kooperatibak bere kudeatzailea, komunikazio eta harreman arduraduna, teknikari koordinatzailea eta bestelako langileak –ostalaritzakoak, teknikariak, unean uneko laguntzaileak...– dauzka. Guztira, 20-25 langile dira.

Nahiz eta Kultur Mahaiak sortu zuen kooperatiba, eta horrek urteko jarduera, proiektuak eta kontuak mahaiaren batzar nagusian azaltzen dituen eta hari ardatz nagusiak batzarrak jartzen dizkion, kooperatibak funtzionamendu espezifikoa du, bere enpresaren, proiektuen eta kudeatzen dituen azpiegituren dimentsioagatik –Sanagustin kulturgunea eta Soreasu antzokia–. Hala, kooperatibak bere organoak dauzka: Artezkaritza Kontseilua, baita kontseilu soziala, ekonomikoa, administratiboa... ere.

Kooperatibak, urteko ohiko batzar nagusiaz gain, beste bi edo hiru batzar egiten ditu, eta bertan kooperatibaren lan ildoak, proiektuak eta hobekuntzak xehe-xehe lantzen dira. Kultur Mahaian parte hartzen dutenak egon daitezke batzarrean, baita proiektua babesten duten entitateak ere –enpresak...–, eta erabakiak hartzeko boto portzentajea zehaztuta dago: Kultur Mahaiko taldeek batzarreko botoen %49 dute, mahaiko bazkide norbanakoek %32,99, bazkide langileek %18 eta bazkide laguntzaileek –enpresek, administrazioak...– %0,1. Multzo bakoitzak bloke gisa hartu behar ditu bere erabakiak.

Sanagustin kulturgunea

Aurtengo uztailean bost urte bete dira Kultur Mahaiak Sanagustin kulturgunea kudeatzen duenetik –aretoa 2010eko abenduan ireki zen, artean ostalaritzarik gabe–. Udalaren eraikina da, eta haren lehiaketa publikoa irabazita lortu zuen Kultur Mahaiak kudeaketa. Eliza zen lehen, eta orain kultur erabilera dauka. Horrelako birziklapenak ere garrantzitsuak dira.

Herri ekimenetik sortu zen Sanagustin kulturgunea, eta herri mugimenduak gestionatzen du, administrazioarekin eta bestelako entitate batzuekin elkarlanean.

Herriko plaza bat da, uneoro dago irekita, eta parte hartzea, elkarlana, aniztasuna, oreka –diziplinak, adina, generoa, egutegia...–, euskara, herriko elkarten ekitaldiak eta sortzaile berriak sustatzen ditu. Plaza nagusian dago Sanagustin –650 metro koadro ditu–, eta horrek ere laguntzen du. Ostalaritza zerbitzua ere badu, eta ahalmen ekonomikoaren bidez kultur ahalmena handitzen dugu. Antolaketari ematen diogun garrantziaren seinale da eguneroko funtzionamendurako estilo liburua eduki izana. Udalarekin hitzarmen bat du kulturgunek.

Dinamika handia dago Sanagustinen. 2015ean, esaterako, 149 ekitaldi antolatu ziren, 31.010 ikus-entzule bilduz.

Ekitaldien %81 elkarlanaren eta parte hartzearen ondorio izan ziren, eta %90 baino gehiago euskaraz.

Eragile ekonomiko handia da kooperatiba –zuzeneko eta zeharkakoa–, eta bere oinarri nagusia elkarlana eta autonomiaren arteko oreka da. Kulturaren arlotik ekonomia soziala jorratzen du; ardatz ditu parte hartze sistematizatua eta autofinantziazio maila –%80tik gorakoa–. Erakunde publikoen ekarpen ekonomikoa proiektu zehatzetara bideratuta dago, ez dator diru laguntza soil modura.

Bosgarren urteurrenaren aurretik, Sanagustin kooperatibak eskatuta, *Kulturmetria* izeneko azterketa bat egin zuten kanpoko bi enpresek: Kultibak eta UPRk. Hiru arlo jorratu zituzten: ekonomia, kultura eta gizartea. Azterlanak egitasmo berritzailetzat jo zuen Sanagustin, eta azpimarratu, besteak beste, autofinantziazio maila, proiektuaren autonomia, parte hartzea eta elkarlana. «Kultur Mahaia eta Sanagustin kultur-gunea asko hazi dira, baina hori jendearekin eta jendearentzat eginez lortu dute. Hori da arrakastaren gakoa», dio Kulturmetria azterlanak.

Dinamika handia dago Sanagustinen. 2015ean 149 ekitaldi antolatu ziren, 31.010 ikus-entzule bilduz. Ekitaldien %81 elkarlanaren eta parte hartzearen ondorio izan ziren, eta %90 baino gehiago euskaraz

Soreasu antzokia

Garai batean zinema zen Soreasu, baina 2006an hura bota, eta antzokia ireki zuen udalak 2011n. 2.200 metro koadro ditu. Ez da bakarrik zinema areto edo auditorio bat; beste hainbat lokal ere baditu, baina ia guztiak hutsik eta egokitu gabe daude oraindik. Ireki baino urte batzuk lehenago –2005ean–, udalak proiektua jendaurrera atera zuenean, Uztarria Kultur Koordinakundeak parte hartze prozesua kritikatu zuen.

2011ko ekainean zabaldu zenetik 2014ko ekainera arte, udalak enpresa baten esku utzi zuen antzokiaren gestioa. Ondoren, lehiaketa publikora ateratu zuten kudeaketa; Kultur Mahaia aurkeztu egin zen, eta irabazi egin zuen. Kultur mugimenduari bizia eta jarraipena eman nahi bazaio, kultur mugimenduak eskura izan behar ditu azpiegiturak eta haien kudeaketa. Gainera, lehiaketara aurkeztean uste genuen Sanagustin eta Soreasu bateragarriak eta osagarriak direla, baliabideen optimizaziorako aukerak sortuko zirela, eta finantziario bide berriak ere bai. Sanagustineko balio berak ditu Soreasuk.

Oraingoan, ekitaldietarako auditorioa baino ez da erabiltzen: zinemarako, dantzarako, antzerkirako, agerraldietarako... 600 ikusle sartzen dira. Eta lokalen artean, abesbatzak eta musika bandak erabilitako bat baino ez dago egokitua, eta beste bat egitasmo sozial bateko elkarteak erabiltzen du.

Kulturaz kooperatibaren bitartez Soreasu kudeatzen segitzeaz gain, antzokiari bultzada bat ematea erabaki zuen iaz Kultur Mahaia. Kulturmetriarekin batera egin zen Azpeitiko Kulturaren Argazkia barne azterketa sakonean, nabarmen geratu zen herrian badirela ekitaldiak-eta antolatzeak azpiegiturak, baina ez, talde bakoitzak duen lokalaz gain, haien eta publiko orokorarentzat sormenerako gunerik. Hala, udalarekin elkarlanean, Soreasun sormen prozesuak garatzeko eta sortzaileen komunitatea osatzeko proiektu bat egiten gabiltza. Urte honen bukaeran hasiko da Soreasu sormen gune berri bezala, proiektuei, elkarlanari eta belaunaldi arteko transmisioari lehentasuna emanez.

Arte eszenikoak, hitza, irudia eta soinua hartuko dira sorkuntza eremu bezala, eta haiek euren espazioa izango dute. Sortzaileei lanerako baldintza egokiak eskaini nahi dizkiegu, eta formazioan edota aholkularitzan ere egingo dugu indarra. Erabilera anitzeko areto bat ere izango dute sortzaileek Soreasun.

Proiektu honek ere kultur komunitatea hazten eta sendotzen lagunduko duela uste dugu.

Azken hitzak

Oraindik asko dago egiteko Azpeitian kultur arloan. Elkarrekiko gertutasun handiagoa lortu nahi dugu, kritikotasuna areagotu, baliabide ekonomikoen optimizazio hobea erdietsi, kultur egutegia gehiago koordinatu eta orekatu, transmisio eta sormen aldetik sakontasun handiagoa izan...

Baina ideia berarekin jarraituko dugu: kultur komunitatea artikulatuta, herri ekimenetik eginez pausoak. Nor izaten segitzeko. 🌱

Azpeitiko Kultur Mahaia: azpeitikokulturmahaia.com

Kulturaz Kooperatiba Elkarte: kulturaz.eus

Uztarria Kultur Koordinakundea (1998-2008): uztarria.eus/azpeitia/taldeak/uztarria/index_html



Katakrak

Nerea Fillat (Katakrakeko asanbladako kide eta langilea)

Kultura eta ekimen politikoa astintzeko gailuak

Kultura eta politika nahastu eta elkar dantzaten duten muga horretan kokatzen da Katakrak. Mutur horiek igarotzeko tresna moduan pentsatu eta izendatu zen proiektua. Bidea luzea izan zen; lan teorikoa, eztabaida eta erabakiak hartzeko prozesua kontsentsuan oinarriturik zegoenez, hartutako erabakiek taldea osatu eta borobiltzeko borondatea zuten.

Ia hiru urte pasa direnean, ziklo politikoaren aldaketak eta esperientziak berak ikasketa eta eztabaidarako bide ezberdinak ireki dizkigute. Erronka berrien ateak zabaldu dira, hartutako erabaki batzuk zalantzan jartzen eta hamaika galdera gehiagori aurre egiten. Orain konplexuagoa egiten zaigu ekonomia sozial eraldatzailean oinarritutako proiektu baten bidez kultura eta politika eraldatzea.

Galdera gehiago ditugu orain. Eta zailagoa zaigu geure inguruan gertatzen denari erantzunak ematea. Guk egindako ibilbidea konpartitzeko aukera bat da testu hau eta sinatzailearena da esaten denaren ardura osoa, baina bidea eta ikasketa kolektiboak dira.

Nafarroa triste eta grisa

Iruindar eta nafarrok hamasei urtez gobernuan egon direnen erabaki politikoen ondorio latzak jaso ditugu. Ondorioak politika askatzailean, euskalgintzan, sorkuntzan edo kultura eraldaketa tresna gisa ulertu den esperientzietan.

Azken urte horietan garatutako kultur politiketek ertzetako kultura are gehiago baztertu zuten. Instituzioaren interesen

harira ibiltzen ez zirenak mapatik ezabatu nahi izan ziren, murrizketa latzak ezarri ziren gehiengoarentzat eta euskaraz egiten zen edozer desagertu egin zen elkarlan horretatik. Ez zen kultura zabaldu eta sendotzeko politikarik egin. Gizarte zibilari ez zitzaion sorkuntzarako tokirik utzi. Bi iruditan esateko: arte diziplina kontserbadoreek eta Erdi Aroko baseliza eta elizek besterik ez zuten tokirik izan UPNren kultur politikan.

Horren eskutik, demokraziak politika publikoetatik ihes egin zuen Nafarroan. Urte hauetan, higiezin zikloa posible egin zuten makina eta tresnez baliatu ziren edozein ekimen politiko ezabatzeko; UPNk mugimendu sozialen proposamenak akabatzea zuen helburu. Iruindarron memoria kolektiboan garaipen gutxi ditugu, nahiz eta bide aberats eta eman-korrak jorratu ditugun elkarlanean urte horietan guztietan.

Urte horietan goitik behera aldatu zen Nafarroa. Ustelkeriak eta M15ak ziklo horren amaierari hasiera eman zioten. Hortik aurrera 'aldaketaren' diskurtsoaren oinarriak ezarri ziren nahitaezko elkarlanaren ondorioz. Hala ere, UPNren alternatiba oso, iraukor, adoretu eta beldurgabea oraindik ez da sortu, ez eta 78ko erregimenaren kontsentsua hausten duen ezer ere.

Bat. Abiapuntuko hipotesiak: liburuak eta zentro sozialak

Nafarroa gris eta triste horretan piztu zen zentro sozial eta liburu denda bat sortzeko asmoa. Liburuaren botere eraldatzailea zentzu zabalean ulertuz, Iruñean pentsamendu eta eztabaida politikoa garatzeko ezinbesteko tresna izan zitezkeela ikusiz, La Hormiga Atómica Liburuak (LHA, hemendik aurrera) irekitzea erabaki genuen. Liburuaren boterearen errebindikazioa egin nahi izan zen, liburuak eztabaida, ideia berri, mintegi eta irudimen iturri direlako.¹ Liburuak hipotesi bihurtu ziren.

Hala ere, ez zen ohiko liburu denda bat, espazio soziala ere bazen, zentro sozialaren hipotesiari eutsiz. Zentro sozialak

hiriaren eskubidea garatzeko esparruak dira, hiriarekin gatazka dutenentzako lekua, hiria lantzeko eta aldatzeko leku bat. Zentro sozialek higiezin, kultur hegemonien, auzoen arteko talken edota gutxiengo baztertuen gatazkak azaleratu dituzte azken urteotan: Kukutza (Bilbo), Laboratorio (Madril), Can Vies (Bartzelona) edota La Invisible (Malaga) izan dira azken urteotako eredu ezagunenetarikoak. Hiriaren inguruko eskubideak garatzeko eztabaida eta diskurtsoetan oinarrituta, LHA Iruñean susma zitezkeen gatazkak lantzeko zentro soziala izatea nahi genuen.

2.0 zentro sozialetako eztabaidak ere agertu ziren LHA irekitzean: bertan enpresa politikoak zer ziren ikasten hasi ginen, militantzia-lana-bizitza polinomio horren eztabaida eta mugei aurre egiten.² Bide horretan, lan eremu eta esparru militanteak elkartzearen potentzia ikusi genuen, eta sakon lan egin ere. Sei urteren buruan,³ Curia kalean zegoen lokalean 7.000 liburu nahastan ziren etorkinentzako gaztelania eta euskara klaseekin, hitzaldi eta liburu aurkezpenekin, etxe langileekin egindako batzar eta topaguneekin.

Urte horietan guztietan, bi hipotesien zentzua ulertu eta aurrera salto egiteko aukera suertatu zitzaigun. Argi genuen inoiz baino beharrezkoagoa zela askatasunez funtziona zezakeen zentro sozial handi bat eraikitzea. Iruñeak birika baten beharra zuen. Aurrerapausoa eman beharra zegoen. Ardatz batzuk ezagutzen genituen eta berriak gehitu genituen: saiakera ardatz izango zuen liburu denda handitu genuen, elikadura subiranotasunaren aldeko apustuarekin ireki genuen kantina bat eta hamaika ekimen posible egiteko aretoa zabaltu genuen. Hor sortu zen Katakarak.

Argi genuen inoiz
baino beharrezkoagoa
zela askatasunez
funtziona zezakeen
zentro sozial handi bat
eraikitzea. Iruñeak birika
baten beharra zuen.
Aurrerapausoa eman
beharra zegoen

Bi. Ikuspuntu materialen garrantzia kulturalan

Abiapuntua: subentzio eza, LHaren esperientzia, lantaldea handitzearen nahia, ekonomia sozial eraldatzailea jorrazteko desioa. Horretarako egikaritu genuen irabazteko asmorik gabeko langileen kooperatiba bat. Komunitate bati eta umezurtz egon zitezkeen sektoreentzako leku batekin. Bost ildo horiek baldintzatu zuten bidea. Komunitatearen ezinbesteko parte-hartzearekin (lanaren banaketaren alde lan egiten zuten bi kolektibok ekarpen ekonomiko bat egin zuten pertsona batek urtebetez proiektua bultza zezan Katakrak zabaldu aurretik, eta ehun pertsona baino gehiagok parte hartu zuten auzolanetan), LHaren esperientzian oinarriturik (Iruñean saiakeran oinarri zuen liburu denda batetik 30.000 liburukora jauzia), irabazi asmorik gabeko langileen kooperatiba muntatu genuen bideari ekiteko (Nafarroan ekonomia solidarioaren eta elikadura subiranotasunaren inguruko taldeek lana erraztu ziguten).

Bide horiek guztiak jorrazuz, proiektu kulturaletan ezinbestekoa denari aurre egin genion: kontu materialei. Katakraken zentzu politiko eta kulturalaren inguruan luze eztabaidatu ondoren, ehun pertsonak baino gehiagok mailegu militantez proiektua ekonomikoki babestu zuten, mailegu hipotekario bat sinatu ahal izateko. Katakrak, gauza askoren artean, hipoteka bat ere delako.

Kulturaren munduko beste tabu baten inguruan lan egitera beharturik ikusi genituen geure buruak, antolakuntza ekonomikoaren inguruan, alegia; eta horrek enpresa politikoaren hipotesia sakontzera behartu gintuen. Inguruan eraldatzailea izan nahi duen esparruak barrutik ere eraldatzaile izan behar duelako. Estruktura horri bide emateko lan denboraren, militantziarako denboraren, diruaren eta sortutako plusbalioaren inguruan pentsatu genuen.

LHAN bezala, politika-lana-bizitza polinomioa mahai gainean jarri genuen, ez genuelako ohiko enpresa bat sortu nahi, ezta ohiko kolektibo bat ere. Lana politizatuz eta etekinak zentzu eraldatzailean birbideratuko zituen estruktura bat

bakarrenetakoa da Katakarak. Hizkuntz berdintasunetik urrun bizi den hiri baterako, aurrerapauso garrantzitsua da. Bestalde, emakumeok ere geure egin dugu espazioa, benetan nabaria baita Katakarakera gerturatzan diren emakumeen kopurua eta portzentajea,⁷ baita sare sozialetan daukan harrera eta babesa.

Gure hipotesien mugak pentsatuz: esperientzia konkretutik eztabaida orokorretara

Bat. Iruñeak espazio handi bat irekitzeko beharra zuela berehala ikusi genuen, eta gure bide motz honetan ehunka ekimen garatu dira. Baina, 2013ko abendutik hona, aldaketak gertatu dira gure hirian; udalaren lokalak askatasunez erabiltzeko aukera dago orain eta (zorionez) toki gehiago daude kolektibo, talde edo elkarten eskuetan. Geure agendaren inguruan birpentsatzeko parada paregabea suertatu zaigu horren ondorioz, eta kultura publiko eta kultura komunaren eztabaidan kokatu gara bete-betean.

Lotsarik gabe esan behar da konplexutasun handiagoz pentsatu behar dugula edukien inguruan eramandako politika; hau da, Katakraken ez dugu inoiz bertan ekimenik egiteko baldintzarik jarri (alderdi edo sindikatuenak ez baziren), eta ekimen kultural edo politikoen edukiontzi bilakatu garela-ko susmoa dugu (2015-2016 ikasturtean 241 ekimen burutu ziren). Esparru publikotik at dauden lokalen ohiko eztabaida da hau. Beraz, nola egin kultural eta politikoki emankor esparru bat? Nola bultzatu gure inguruak duen eztabaida emankorragoa eta eraldatzaileagoa izan dadin? Zein proposamen luzatu erosotasun marjinetan ez mugitzeko? Horra hor geurean lantzeko kezka. Horra hor geure inguruko esparru kultural zein militanteei planteatzeko galderak.

Katakraken egin diren ekimenen metaketan gure ahotsa topatzea zaila egin zaigu, eta hortxe konpondu beharreko zerbait dagoela uste dugu. Gure espazioan garatzen diren jardueretan zentzu konkretua egon beharko litzateke. Iruñea bilakatu zen basamortu kulturalen, esparru publikoek eskaintzen

ez zutena eskaintzeak zentzua zuen antzutasunean, baina ez aurrera begira.

Bi. Ereduen beharra dago, elkarlanaren premia. Lerro haue-
tan adierazi nahi izan da Katakarak bezalako toki bat irekitzea
erabaki zenean logika publiko eta pribatuetatik at zegoen
zerbait irudikatu, asmatu nahi zela. Gaur egungo antola-
kuntza ekonomikoak eta kapitalismoaren garapen faseak
horretarako aukera ematen du. Jakintza, komunikazioa eta
harremanak aspaldi jarri ziren ekoizpenaren mende, eta ho-
ri da ezagutzen inguruko ekoizpen fase honen adierazgarri.

Hala ere, bide propioa egitea oso zaila da. Gure antola-
menduak handik eta hemendik hartu ditu ideiak eta hau eta
bestea kopiatu izan du, baina ibilbidean lagun eta kideen pre-
mia sumatzen dugu. Egunerokotasunean erabakiak hartzeko
beharra dago, eta kapitalaren logiketatik ateratzea ez da erra-
za. Enpresa handi bat kudeatzea, ekonomikoki errentagarri
izatea eta taldea zaintzea erronka handiak dira. Urte hauetan
hartutako erabaki batzuekin ez gaude guztiz eroso eta ho-
rren jakitun gara, baina horiek gure mugek adierazle dira.

Katakarak bezalako dispositibo
batek hobe funtzionatuko lu-
ke halako dispositibo gehia-
go egonen balira. Zenbat eta
esparru gehiago, orduan eta
ideia eta erabaki bertutetsua-
goak, sofistikatuagoak.

Eta halako sare posible bat
sortu ahal izateko, hiru pau-
so eman beharko genituzke:

orain dauden espazioekin kolaborazioa garatu, toki berriak
sortzen lagundu eta kanpotik datorrenari begira egon, ongi
begira, gainera.

Bide propioa egitea
oso zaila da. Enpresa
handi bat kudeatzea,
ekonomikoki errentagarri
izatea eta taldea zaintzea
erronka handiak dira

Hiru. Taldea osatzea erronka handia da. Are gehiago bi-
ziaren orduak, pasioak, desioak eta irudimen guztia lanean

jartzen badira. Are gehiago generoaren eta horizontaltasunaren aferak badaude eta horiek pentsatu nahi badira.

Ez dago gizon eta emakumeak elkartu eta gatazkarik ez duen talderik. Adore eta lan handiz onartu beharreko baieztapena da hori, benetako aldaketa sakona bultzatu nahi badugu gizartean. Gurea esparru politizatua da, emakume eta gizonek osatua, harremanen inguruko zailtasunen jakitun, genero gatazkaren kolpeak bizi dituen.

Bestalde, kooperatiba eta kolektiboek horizontaltasunaren inguruan lan handia egin behar izaten dute. Teoriaz horizontalki antolatutako estrokturek egunerokotasunean agertzen dituzte bere mugak, teoriatzko ardura banaketek askotan ikusezinak diren ardurekin topo egiten dutelako.

Ezin esan bi gatazka horietatik urrun gaudenik. Hemen izendatzen ditugu, benetako bide berria bilatzeko lotsarik gabe agertu behar direlako afera komunak, kolektiboki pentsatzea izaten delako haien konponbidea bilatzeko modua. Hortxe, bada, bidean topatu ditugun bi harri koxkor.

Bidean jarraitzeko erantzun batzuk

Hemen aurkeztutako eredu eta galderak epe ertainean lantzeko pentsatu dira. Ez dago arazo konplexua moldatuko duen bide errazik, baina ibiltzen jarraitzeko beharra dugu. Horretarako, ikasturte berriarekin bi lan ildo berri ditugu gurean: argitaletxea eta kideak.

Katakarak argitaletxe berria sortuz, gaztelaniazko zein euskarazko saiakerari bidea eman nahi diogu, bai eta euskarara itzuliko den narratibari ere. Inguruan eragin dezaketen testuak argitaratzea dugu helburu, saiakera politikoa, feminismoa, hezkuntza... gaiak landuz, errusieratik, alemanetik, ingelesetik itzultitako lanekin. Bai eta bertan ekoiztutako laneei bide eman ere, hemengo ingurua pentsatzen laguntzeko.

Katakarak kideak sortzarekin, komunitatea sendotu eta handitzea gustatuko litzaiguke, hori ezinbestekoa baitzaigu bide eta ahots propioa bilatzeko ere. Kideek gurean bere tokia

izateko premia dugu, bide batez lan politiko eta kulturean eragin handiagoa izaten laguntzeko, hirian garrantzitsua-goak izateko.

Bukatzeko, argi esan behar da desiotik sortutako proiektu hauek ematen duten esperientziak eta ikasketak eraldaketarako bideak direla. Erreferente teorikoekin batera, esperientzia zehatzetatik pentsatzeak indarra eta edertasuna eskaini digu.

Katakarak, beste asko bezala, bertute handia duen proiektu bat da; baina XXI. mendean mendebaldeko hirietan kultura eragile izateko mugekin egiten du topo, eta hori komunitate guztiarekin landu beharreko kontu bat da. Bestela ezingo da afera hori konpondu. Zentzu berean, hipotesi politiko argi bat lantzeko premia daukagu, ordezkartzaren bidezko politikan astintze handiak gertatu badira ere, aldaketa sakonak egikaritzeko zailtasunak dauzkagulako. Horregatik, M15ak ireki zuen ziklo politikoa sakondu eta lantzeko premia dugu, hiritan toki bat izan eta erregimen aldaketa eragin eta eraikitzeko. 🌱

Oharrak

1. Momentu horretan, Bilboko *Likiniano*, Madrilgo *Traficantes de Sueños* eta Bartzelonako *Virus* ezinbestekoak izan ziren.
2. Eguzki Bideoak banatzailearekin hainbat galdera eta bide konpartitu genituen.
3. La Hormiga Atómica Liburuak 2007ko abenduan ireki zen eta 2013ko abenduan itxi.
4. Horren guztiaren berri izateko, ikus <http://katakarak.net/eus>
5. www.katakarak.net/eus/agenda/silvia-federici-iraultza-zero-puntu
6. <http://katakarak.net/cas/blog/maitane-unzu-en-el-parlamento-de-navarra>
7. Keinu estetikoari garrantzia kenduta, esparruak garatu dituen kodeekin eroso sentitzen direlako seinale dugu hori.



Euskal Herria Zuzenean

Pauline Guelle (EHZren koordinatzailea)

Proiektuaren filosofia

Euskal Herria Zuzenean elkarteak bide luzea egin du. 1992an Piztu elkarteak bultzatu zuen festibal baten proiektua. Horien helburua bikoitza zen; alde batetik, festibal bat egin nahi zuten barnealdearen eta kostaldearen arteko hausturarekin bukatzeko eta Nafarroa Behereko eta Zuberoako probintziak 'dinamizatzeko'.

Beste xede bat zen festibal bat antolatzea Euskal Herriaren erakusleiho bat izan zedin. Eraiki izan nahi zen Euskal Herriko irudi horrek 'folklorismo' edo frantses kolonialismoaren kalteei aurre egin nahi zien, euskal kultura bultzatuz. Horregatik, hainbat balioen gainean oinarritu zen EHZ, hala nola, euskal hizkuntza, kultura eta nortasunaren babesa eta sustapena, euskal presoekiko elkartasuna, diskriminazio forma guzien aurkako borroka (arrazakeria, sexismoa, homofobia), eskubide zibil, politiko eta giza eskubideen aldarrikapena, ingurumenaren defentsa, altermundialismoa eta internazionalismoa, kapitalismoaren eta gain kontsumoaren gizarite kritika, justizia sozialaren aldarrikapena, kontrakulturaren aldarrikapena eta gure oinarria, laguntzailegoa. Praktikan, EHZ festibalak mikrojendarte ideal bat nahi zuen sortu hiru egunez. Hastapeneko izpiriturarekin bat egiten du EHZ elkarteak.

Aldiz, urte guziz hausnarketa eta berrikuntzak proposatzen ditu festibalak; aurten 'burujabetzaren' inguruan lan egin dugu eta *Sorgin zelaian*, *gurea asma* leloa hautatu dugu. Burujabetzaren kontzeptuak euskal gazte jendartearen erronka laburbiltzen duelako, arlo guzietan: bai Euskal Herri libre bat lortzeko (burujabetza nazionala), baita askatasun soziala

eraikitzeko ere, euskaraz eta gure balio guziekin bat egiten duena. Festibaleko hiru egunetatik at joateko ekimen desberdinak proposatzen dira urtean zehar, Ipar Euskal Herri osoan. Iaz, adibidez, *Hegalaldia* proiektua abiatu zen Atabal musika gelarekin batera (Ipar Euskal Herrian antolatzen diren ez ohiko kontzertuak); aurtan, berriz, lau zinemaldi eta hitzaldiak proposatuak izan dira urte osoan, Yannis Yoluntas filosofoarekin, adibidez. Mikrojendarte idealetik bizi zabalerako mugimendua bilakatzen ari da Euskal Herria Zuzenean.

Funtzionamendua eta gobernantza

Elkartearen funtzionamendua borobiltsua da. Erran daiteke erabakigune zentral bat dugula, Administrazio Kontseilua deitzen dena; talde hori guti gorabehera hamabost kidez osatua da (bi langileak barne) eta urte osoan biltzen da, hilabetean bi aldiz. Talde eragile horren inguruan lantalde desberdinak badira, 'sateliteak' deitzen direnak; horiek lau ardatz nagusi bideratzen dituzte: teknika, komunikazioa eta harreman publikoak, proiektuen jarraipena eta administrazio kudeaketa. Organigramarekin bukatzeko, 'komisioak' osatzen dira. Lantalde horiek anitzenak dira. Beharren arabera biltzen dira haien lantaldea mobilizatzeko, berriz pentsatzeko eta proposamenak egiteko. Azkenik, komisioka biltzen da: brigada berdea, janaria, zirkulazioa, eztabaida, komunikazioa, brigada ubela, apainketa, gaueko programazioa, ikusgarri programazioa, haurren xokoa, ostatua, ttantto bilketa, ttantto kontaketa, dirua...

Lantalde guzien arteko koordinazioa lortzeko, urtean zehar bi biltzar nagusi egiten dira: lehena urteko proiektua eraikitzeko eta baieztatzeko, bigarrena festibala prestatzeko. Horien artean egun batzuk antolatzen dira komisio desberdinen arduradunekin, jarraipena eta elkarlana bultzatzeko. Orotara berrogeita hamar bat jende biltzen da, urtean zehar, Euskal Herria Zuzenean elkartearen baitan. Aldiz, hiru eguneko

festibalean 600 laguntzaile inguru behar izaten dira antolakuntza lan guzia aurrera eramateko.

Antolakuntzan parte hartzen duten pertsona guziak EHZren laguntzaileak dira. Horrez gain, partaide diren elkarte guziak laguntzaile bezala kontsideratzen dira. Hain zuzen, auzolana garatzen eta baliatzen da. Euskal Herri guzitik eta mugimendu militanteetatik etortzen den jende guzia ongi etorria da elkartean, puntualki edo epe luzerako elkarlana eramateko.

Euskara eta euskal kultura

Euskara EHZren hizkuntza da. Barne mailan eta publiko zabalari proposatzen zaizkion ekimenak euskaraz egiten dira. Beste hizkuntza bat baliatzen delarik elkartean, bat-bateko itzulpena egiten da. Gehienetan frantsesetik euskarara, gazteleratik euskarara eta ingelesetik euskarara egiten dira itzulpenak. Euskararen erabilpena sostengatzen da, euskaraz funtzionatuz; konparazione, bilkurak zein hitzaldiak, tailerak zein antzerkiak euskaraz egiten dira.

Komunikazioari dagokionez, euskara hizkuntza nagusia da. Sare sozial desberdinetan erabilpen ezberdinak ditugu. Facebooken euskaraz idazten da, baina frantsesezko itzulpena bermatzen da. Instagram, Snapchat eta Twitterren euskaraz idazten da; Twitter kontu bereizi bat existitzen da frantsesez, baina guti erabiltzen da. Prentsaurrekoak euskaraz egiten dira, eta frantsesezko itzulpena eskaintzen da kazetari erdaldunentzat.

Euskal taldeak sostengatzeko xedearekin antolatzen dira EHZren baitan gertatzen diren ekimenak. Horren egiteko

Antolakuntzan parte hartzen duten pertsona guziak EHZren laguntzaileak dira. Partaide diren elkarte guziak ere laguntzaile bezala kontsideratzen dira. Auzolana garatzen eta baliatzen da

ez da kopuru zehatzik bermatzen, programazio taldeak autonomoki kudeatzen du. Berdin hizlari, ikusgarri, antzerki, tailer eta eskaintza guzientzat.

Euskal kultura zer da? Antolakuntzaren baitan iritzi askotarikoak egonen dira. Euskal Herria Zuzenean festibalean gune aske bat eraikitzen du, urtero, Euskal Herrian, laguntzailez osatuta. Nahasketa hori guzia da egiten gaituena, kultura egiten duguna, proposatzen den euskal jendarte aske hori.

Kultur sortzaile eta eragileekin harremana

Euskal eragileekin lan egiten da gehienbat, horiek dira EHZren partaide nagusiak. Denok dira kultur sortzaileak, laguntzaileetatik hasi eta artistak arte. Horregatik programatzen eta antolatzen den guzia kultur sortzaileekin egiten da, elkarlanean. Euskal Herriko eragile desberdinekin elkarlanaren bidez eraikitzen da EHZ, adibidez, lantaldeetan aurkitzen diren laguntzaileekin. Bestalde, artista, tailer emaile edota hizlariak programatzen dira festibal denboran. Ber gisan, urtean zehar antolatzen ditugun ekimenak hainbat kultur sortzaileekin egiten dira. Lehen aipatu bezala, *Hegalaldia* proiektua Atabal musika gelarekin batera antolatzen da. Momentuko, hiru leku desberdinetan izan dira eta tokian tokiko elkarteek parte hartzen dute antolaketan: Usopop festibalarekin, Moï Moï kolektiboarekin, Garaziko Gaztetxearekin eta Basaizea elkartearekin batera auzolanean eraiki ziren *Hegalaldia* proiektuaren gualdiak.

Oro har, Ipar Euskal Herriko gaztetxe guziekin harreman tinkoa izan da betidanik. Duela bi urte, Gaztetxe Tour bira antolatu zen eta gaztetxe guziek parte hartu zuten gualdi bat antolatuz EHZrentzat.

Bestalde, Hego Euskal Herriko elkarte batzuekin elkarlanean segitzen du EHZk; adibide zehatzena da Donostiako Piratekin sortua izan den harremana. Urtero Piratak festibalera etortzen dira eta EHZko laguntzaileak Donostiako Aste Nagusira hurbiltzen dira esku kolpe bat ematera. Egun

bereziak antolatu izan dira filosofia eta praktikaren inguruko trukaketak garatzeko elkarte eta mugimendu horien artean.

Bukatzeko, euskal hedabideekin lan egiten da komunikazio eta prentsarentzat. Horietan, Kanaldude Herri Telebista, *Ipar Euskal Herriko Hitza*, Euskal Irratiak eta Kazeta.info ataria. Kanaldudek festibalean ekoizten ditu bideoak eta laguntzailak deitzen ditu proiektuan parte hartzeko. Euskal Irratien kasuan, festibala sortu zenetik elkarlan bat bururatu zen.

Erakunde publikoekin harremana

Euskal Herria Zuzenean elkartearen politika da aurrekontuaren %15 baino gehiago ez jasotzea diru laguntzetan. Horregatik, partaidetza instituzional guti atzematen ahal dira. Elkarteak diruz laguntzen dutenak bereziki dira Euskal Kultur Erakundea (EKE), eskualdea, Kontseilu Orokorra eta Hazparneko Herri Elkargoa. Politika hori abian jarri genuen instituzioen menpe ez izateko.

Gainera, joan den urtean festibal anitz bukatu ziren diru laguntzarik gabe geratzen zirelako, horien artean Baionako Black & Basque festibala. Frantses estatuan mugimendu azkar bat izan zen murrizketa horiek salatzekeo.

Alde batetik, pentsatzen ahal da EHZ festibala eta elkarteak ez zela gelditu ez zelako %100 diruztatua izan enpresa edo instituzio desberdinei esker. Diru laguntzak ez dira lotzen gaituen bakarra erakunde publikoei. Lekorneko herrian garenetik, Herriko Etxearekin elkarlanean ari da EHZ. Urtean zehar bilkura publikoak antolatzen dira Lekorneko hautetsiak eta herritarrak informatzeko, proiektuan parte har dezaten. Horrez gain, Lekorneko Herriko Etxeak materialki eta teknikoki proiektua laguntzen du, adibidez, belarra moztuz edo herriko langileak eskuragarri izan ditzan festibala prestatzeko momentuan. 🌱



Hala Bedi Irratia

Gaizka Amondarain (Hala Bedi Irratiko kidea)

Streaming kulturala. Edo tribuarekin komunikatzeko manierak

Kulturak autodeterminatzen gaitu, dudarik ez horretan. Jaten duguna bezainbeste garelako, entzun, ikusi, irakurri eta erreproduzitzen duguna ere. Kultura autodeterminatzeko, hortaz, kultura hori osatzen duten norbanakoak dira, alde zurretik, eta komunitate baten baitan, autodeterminatzeko hautua egin behar dutenak. Kultura horrek osatzen duen komunitateak, gero, baliabide eta tresna propioak beharko ditu autoeraketa horretan sakontzeko. Bestela, erreserba batean irautera kondenatuko du bere burua eta desegin egingo da denborarekin, historiak berak sarritan erakutsi digun moduan.

Guri buruz bestek kontaktzen dutena ere bagara, noski. Zeresanik ez, mundu globalaren sasoian, estaturik ez duen kultura minorizatu baten parte zarenean. Kasu horretan, batez ere, bestek zuri buruz kontaktzen duten hori barneratu eta zeure egiteko aukerak arriskuan jartzen du komunitatearen izatea bera. Sistema oso bati aurre egin beharrean ikusten du minorizatuak bere burua, etengabe lehiatu beharra dauka, baldin eta asimilatua izan nahi ez badu. Garaian garaikora egokitzen asmatzen du, edo akabo.

Hizkuntza batek bizirik irauteko hiztunak ezinbesteko dituen modu berean, kultura batek ere, bizirik iraungo badu, bozgorailuak behar ditu. Kontaktzen ez dena ez delako existitzen. Edo beste modu batera esanda: izan nahi duenak komunikatu beharra daukalako nahitaez. Ez komunikatzea, izan ere, ezinezkoa da. Itsuak eta gorra bai, baina muturik

ez baita existitzen. Izatekotan, hitz egiteko gaitasuna garatu ez duten pertsonak dira, eta ez mundura mutu jaiotakoak.

Historia borroka da eta borroka horren emaitza ere bai, aldi berean. Etenik gabeko asimilazio ahalegin eta erresistentzien arteko talka eta tirabiren segida. Eta Historia, letra larriz, beti, garaileen hizkuntzan kontatua izan da, ez garaituenean. Menderatuari, kasu honetan, mutua dela sinetsarazi dio menderatzaileak, ez daukala beste aukerarik isilik egotea baino. Menderatuari ez dio inork esplikatu hitz egiteko gai ez bada hizketarako gaitasuna garatzea ukatu diotelako dela.

Izan nahi duenak komunikatu beharra dauka

Jakinetik –UEUrekin batera– Baionan antolatutako jardunaldietan parte hartzeko gonbita jaso genuenean, Hala Bediko bost lagun Idomenin ginen, Greziari buruz dokumental bat grabatzeko asmotan. Apiril bukaera zen Grezia eta Mazedonia arteko mugan, eta, beraien herrialdeetatik ihesi zetozen 10 mila pertsonak, artean, muga zeharkatzeko esperantzari eutsiz hesiaren kontra pilaturiko kanpin dendetan jarraitzen zuten, handik alde egiteko aginduei entzungor.

Egun hartan bertan, refugees.tv-ko lagunak ezagutu genituen Idomeniko kanpamenduan zehar dokumentalerako elkarrizketak grabatzen ari ginela. Han zebiltzan, bideo kamera bihurtutako egurrezko enbor bat sorbaldan hartuta eta puntan galtzerdi bat zuen mikrofono itxurako makil bat eskuetan. Boluntario batek oparitutako benetako kamera batekin kanpamenduko egunerokoa Facebookeko orrialde batean kontatzea helburu zuten hogeitaka urteko hiru gazte siriar. Europarako bidean ezagutu zuten elkar, Turkiatik itsasontziz Greziako irletarako bidaiari. Bi hilabete zeramatan ordurako ezleku hartan, ez aurrera ez atzera. Baina Facebookeko orrialdea irekitzeko ideia ez zen kanpamenduko asperduratik libratzeko bakarrik sortu: mugaren kontra bizitzen zeramatan bi hilabete haietan, nazioarteko komunikabideak egun batean agertu eta hurrengoan desagertzen zirela ikusita, eta

kazetariak alde egitearekin batera beraiek ere munduarentzat existitzeari uzten ziotenez, han gertatzen zena lehenengo pertsonan kontatzeko beharrak eraman zituen pauso hura ematera. Eskura zituzten baliabide apurrekin, pentsaezina zaigun egoera prekario bati aurre eginez, ironia baliatuz eta umorea galdu gabe, trenbide inguruan barreiatutako jatorri askotariko haiei aurpegia eta ahotsa jartzea zen beraien egiteko nagusia egunean zehar.

Gau hartan bertan, kanpamendutik bueltan, gazteei egindako elkarrizketatik ateratako hiru minutuko bideo bat igo genuen sarera. Biharamunean, berriro Idomeniko kanpamendu inprobisatura bidean gindoazela, Alemaniako DW telebistatik dei bat jaso genuen, bideo hura beraien eguerdiko albistegian emititzeko baimena emango genien galdezka.

Refugees.tv Facebookeko orrialdeak, uneotan, 15 mila jarraitzaile ditu, eta Siriako hiru gazteek Tesalonika ondoko kanpamendu batetik jarraitzen dute munduari beraiekin egiten ari direna kontatzen.

Salda dago ala salda badago?

Gasteizen gertatzen ari zena lehenengo pertsonan kontatzeko beharretik sortu zen Hala Bedi ere 1983an. Kanean nagusitzen hasia zen kontrakulturak bozgorailuak behar zituen. Hiriko sektore baten autobaieztapen ariketa kontzientea zen. Ez delako gauza bera salda dagoela esatea edo salda badagoela baieztatzea. Autoafirmazio horren ondorio da Hala Bedi ere.

Gasteiz izan zen, portzentajeei erreparatzen badiegu, 1950-1975 urteen artean Europa osoan demografikoki gehien hazi zen hiria. Hazkunde horrek gerora berezko izan duen aniztasuna eta aberastasuna ekarri zion hiriari. 1976ko langileen mobilizazioek eta, batez ere, martxoaren 3ko hilketek arrastoa utzi zuten hiriburu artifizialeko biztanleengan. Diktaduraren akaberan izan ziren gertaera haiek bat egin zuten 80ko hamarkadan trantsizio osteko belaunaldien frustraziotik sortutako kontrakulturarekin eta Europa mailan loratzen

hasiak ziren mugimendu berriekin. Mendea eta bigarrena gurutzatzen ziren lekua zen Gasteiz. Frankismo ostean oraindik bere horretan mantentzen zen eredu soziopolitiko eta kulturalarekin apurtzeko nahi eta beharrak ideologia askotariko jendea elkartu zuen. Ezinegon bat zebilen airean, eta gasteiztarren zati batek, behintzat, militarren eta apaizen hiri izateari utzi nahi zion nola edo hala. Gerora bizirik mantendu den sentimendu kolektibo baten hastapenak ziren. Halaber, etengabeko sortze prozesu batean bizi zen belaunaldi berri bat bere lekua okupatzen hasia zen hirian ordurako. Gazte ero haietzat, Hertzainak taldeak abestu zuen moduan, aita hiltzeko unea ailegatu zen.

Ezagunak dira garai hartan elizaren aurka antolatzen ziren manifa ateoak edo blusen tradizioarekin bat egiten ez zuten gazteek antolaturiko jai alternatiboak. Hertzainak, Cicatriz, Potato edo Korroskada bezalako taldeak agertzearekin batera, ugaritu egin ziren Alde Zaharrea –Zapa, Pinto eta Kutxi kaleetan batez ere– talde berri horien musika jartzen zuten tabernak ere. Mugimendu antimilitarista eta antinuklearra asko indartu zen urte

Mugimendu
autonomoa, asanblada
eta autogestioaren bidez
antolatzeko joera,
beste leku batzuetan
baino gehiago garatu
zen Gasteizen

haietan zehar. Gasteiz euskalduntzen hasia zen ordurako, eta AEK, Hala Bedi bezala, hirian antolatzen ziren ekimeneetan parte hartzen zuen eragile bat gehiago zen. Kontaezinak dira argitara eman ziren fanzine eta aldizkariak ere: *Resiste* eta *TMEO* izan dira, gerora, publikazio haien artean sona

handiena izan dutenak. Mugimendu autonomoa, asanblada eta autogestioaren bidez antolatzeko joera, beste leku batzuetan baino gehiago garatu zen Gasteizen. 70eko hamarkada bukaerako langile asanbladak antolakuntzarako eskola bat izan ziren zentzu horretan. Eta horrek Nazio Askapenerako mugimenduan ere eragina izan zuen.

Baldosapeetatik agertutako identitate kolektibo berri horrek, jatorri eta ideologia askotariko jendea biltzen zuen misturak, bozgorailu bat behar zuen. Kanean gertatzen ari zen guztia lehenengo pertsonan kontatuko zuen norbait. Baina ez hori bakarrik, baita, ezberdintasunak ezberdintasun eta eztabaidak eztabaida, inposatutako eredu grisarekin apurtzea helburu zuten haientzat guztientzat elkargune izango zen espazio bat ere. Denak bilduko zituen ahots kontestatario baten beharrianetik sortu zen Hala Bedi. Eta komunitate hark beharrezko zuen elementu kohesionatzailea izan da urte hauetan guztietan.

80etako baby booma

Hala Bedi, dena den, ez zen Euskal Herrian sortutako lehen irrati librea izan. Donostialdean, Iruñean edo Tolosan, esaterako, beste irrati batzuk martxan zeuden, 1983ko abuztuaren 4an, bi pertsona walkie-talkie pare batekin eta Alde Zaharreko ganbara batean ipinitako emisore baten bidez Zeledonen jaitsiera kontatzera abiatu eta atxilotuak izan zirenerako.

Frankismo osoan zehar komunikabide hegemonikoa izandako irratiari 70eko hamarkada bukaeran telebista nagusitu bazitzaion ere, hiritar gehienek sukaldeetan bere lekua mantentzen zuten irrati aparatuek oraindik. Italian eta Frantzian, ordurako, ohikoak ziren irrati libreak. Inbertsio ekonomiko xume bat eta oinarrizko baliabide teknikoak (emisore bat, mikrofonoak eta kasete bat) nahikoa ziren hiritarren gehiengoarengana ailegatzeko. NATOren kontrako kanpainan edo hamarkada osoan zehar antolatutako greba orokorretan, adibidez, irrati libreak funtsezkoak izan ziren kanean gertatzen ari zena zuzenean kontatzerako orduan, eta baita errepresioaren kontrako salaketak zabaltzeko ere. Irrati anti-autoritarioen garaia zen. Mikrofonoak uneoro irekita zeuden poliziarekin, elizarekin edo arduradun politikoekin sartu nahi zuenarentzat. Okupatutako frekuentziak, neurri handi batean, terapia kolektiborako baliatzen ziren. Baina,

horrez gain, beste irrati batzuetan entzun ezin ziren musika taldeak entzuteko aukera bakarra ziren dialean.

1986rako Euskal Herriko hiri, herri eta auzoetan irrati libreak agertzea normala bihurtu zen modu berean, ohikoa zen irrati haiek ixtera kolore guztietako poliziak bidaltzea ere. Garai hartan jaiotako irrati asko emititzen hasi eta gutxira desagertu ziren, izan errepresioaren ondorioz zein belaunaldi berriak proiektuan inplikatzeko ezintasunagatik.

Hala Bedi ere ez zen salbuespena izan. Bost aldiz saiatu ziren irratia ixten, 1984an lehenengoz eta 1991n azkenekoz. Itxiera haiek sekulako erantzuna izan zuten kaleetan. Gasteizen egundo ezagutu gabeko liskarrak sortu ziren eta Radio Vitoriako estudioak bi aldiz okupatu zituzten itxiera salatu asmo zuen manifestu bat irakurtzeko. Ahaleginak ahalegin, irratiak uhinetara bueltatzea lortu zuen behin eta berriz. 1991ko azken saiakera hura, ordea, inflexio puntu bat izan zen irratiarentzako, uhinetan jarraitzeko aukera ere zalantzan egon baitzen denbora batez. Hala Bediko asanblada osatzen zuen jendea galdera berrien aurrean jarri zuen egoera hark: norengana ailegatu nahi dugu? Zertarako nahi dugu irrati bat?

Zer, nork, noiz, non... baina batez ere nola

Jendeak nahi zuena esateko irrati bat izatetik, proiektu komunikatibo sendo baten aldeko apustua egitera pasa zen kolektiboa orduan. Zer esaten zen garrantzitsua zen, baina baita nola esan behar zen ere. 90eko hamarkadan zehar gertatutako tribuaren egonkortzeak eremu berrietara ailegatzeko beharra ekarri zuen berarekin. Ezagun zen ordurako Hala Bedi beste inork baino mobilizazio gaitasun handiagoa zuela hirian, beste batzuk ailegatzen ez ziren lekura ailegatzen zelako. Gai nontzeko komunikabideetan ahotsik ez zutenei ahotsa ematearekin batera, zabaldu nahi zen mezuari garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion: egun osoko programazio bat osatzea jarri zen helburutzat, kalitateari gehiago erreparatzen zitzaion eta hiriko herri mugimendua irratian integratzeko bitartekoak

ipini ziren. Elkarlana eta konplizitate berriak sustatu beharra zegoen. Gaur egungo proiektu komunikatiboaren oinarriak, azken batean, orduan hasi ziren zehazten.

Kontua ez zen hiritarrei edo gizarteko sektore borrokalarienari zerbitzu bat eskaintzea, pertsona horiek denak tresna horren parte bihurtzea baino. Pentsaera horrek filosofia bati erantzuten zion. Autogestioaren eta asanbladaren bidez funtzionatzeak aldiro berritu beharra exijitzen du, ez du erlaxatzeko edo erosokerian erortzeko aukerarik uzten. Estructura indartsua sortzea funtsezkoa zen, baina estructura hori berritu gabe proiektuak ez zuen aurrera egingo. Helburua ez zelako jadanik konbentzita zeudenak gustura uzteko irratia bat bizirik mantentzea, helburua ordura arte Hala Bedi ezagutzen ez zuten sektoreetara ailegatzea zen. Eta horrek irratia momentuan momentuko beharrianetara egokitzea eta unean uneko joerekin bat egitea eskatzen zion. Erresistentzia fasetik erasora pasatzea, alegia.

Kontua ez zen hiritarrei edo gizarteko sektore borrokalarienari zerbitzu bat eskaintzea, horiek denak tresna horren parte bihurtzea baino. Pentsaera horrek filosofia bati erantzuten zion

Walkie-talkietatik podcastetara

2000. urtetik gaur arte, aldaketa handiak bizi izan ditu irratia. Bere ibilbidean zehar bizi izandako handienak akaso. Teknologia berrien agerpenak zerikusia izan zuen horretan. Uhinetatik sarera emandako saltoak erreferentziazko irratia bihurtu baitzuen, bai Gasteizen eta baita Gasteiztik kanpo ere.

Apustu berriak inongo konplexu gabe egiteko joera Hala Bediren berezko ezaugarrietako bat izan da orain artean. Egoera prekarioenean ere, eskura zeuden baliabideak aprobeztatu eta aurrera egiteko saiakera egin du sarritan. Posible zen heinean, berriro atzera ez egiteko bitartekoak jarritz. Urik badagoen

jakin gabe igerilekura salto egiteak bere arriskuak ditu, bai. Baina urik badagoen ez jakiteagatik beti lehorrean geratzeak ere bai. Erori gabe, ez dago bizikletan ibiltzen ikasterik.

2001ean, Hala Bedi taberna zabaldu zen Aiztogile kalean eta,aldi berean, 666 bazkide lortzea helburu zuen kanpainan jarri zen martxan. Horri esker, 2005ean, ordura arteko lokalak txiki geratu zirela ikusita, gaur eguneko egoitzara aldatzeko apustua etorri zen. Lau estudio, erredakzio handiagoa eta komisioentzako bilerak egiteko gelak dituen bigarren solairu batek jendearen parte hartzea erraztu zuen, eta kolektiboa bera ere asko hazi zen ondorioz. Neurri batean, irratia bera are gehiago profesionalizatu zen, eta proiektua aurrera ateratzeko estrukturak ere jendez indartu ziren. Taberna irratia ren erakusleihu bihurtu da geroztik eta ia 700 bazkide lortzeak urte batzuetarako egonkortasun ekonomikoa ziurtatu zion kolektiboari.

Orduan hasi eta gaur arte, 30-40 dira gutxi gorabehera Hala Bedin bertan sortzen diren irratsaioak eta 90 pertsona inguru astero estudioetatik pasatzen direnak. Horrek, gabeziak gabezia, irratia osatzen duten pertsonen arteko aniztasuna bermatzen du; bai jatorriari, bai estiloari zein adinari dagokienez ere.

Berritu edo hil

Hala Bedik komunitate bat irudikatzen du bere egunerokoa. Balio zehatz batzuk transmititzen ditu eta errealitatearen aurrean irakurketa zehatz bat egiten du. Komunitatea, kultura bezala, modu dinamikoan ulertu behar dugu. Etengabe aldatzen den zerbait da. Eta hori azpimarratzea inportantea iruditzen zait. Momentuan momentuko komunitateari erreparatzen ez dioten komunikabide zein mugimendu sozialek desagertzeko arriskua baitute. Tribuaren atxikimendua ez da betiko eta ez da deabaldekua ere. Landu eta elikatu beharra dago.

Berezko ezaugarriak bidean galdu gabe, bere burua berasmatzeko irudimena funtsezkoa izan da Hala Bediren

33 urteko ibilbidean zehar. Izaera probokatzailea, ironia eta umorea ezinbestekotzat ulertu ditu beti. Beste batzuek esan ezin zutena esateko askatasuna baliatu du hamarkada hauetan guztietan zehar, komunikabide gehienen sinesgarritasunak behera egin duen bitartean, entzuleen fideltasuna bereganatzeko. Estilo informalaren eta profesionaltasunaren arteko orekan egin du bidea, freskotasunik ez galtzeko etengabeko ahaleginean.

Azken batean, horiek denak ziren aurreko hamarkadetan sortutako kultura eta identitate kolektibo horrek bere-bereak zituen ezaugarriak ere. Tribuaren atxikimendua lortu nahi duenak tribuarekin bat egin behar du. Hori zaindu beharra dauka. Oinarrizko gauza horietan batez ere.

Hala Bedik atzean komunitate bat eduki izan ez balu, hala ere, hau dena ez zen posible izango. Eta ez zen posible izango beste eragile eta irratiekin elkarlanerako borondaterik izan ez balu ere. Tokian tokiko hedabideentzat ezinbestekoa baita beste hedabide eta eragileekin kooperazioa sustatzea. Iristen ez zaren lekuetara ailegatzeko bide bat da, baina baita beste batzuek egiten dutena zure hutsuneak betetzeko aprobetxatzeko modurik errazena ere. Txikia denak badaki, itzal egiten diotenei aurre egiteko, beste batzuekin elkartu beharra daukala.

Sinesten duenaren irismena

Bueno, probando, a ver si estamos en el aire. Este es Radio Insurgente, la voz del Ejército Zapatista de Liberación Nacional, transmitiendo desde las montañas del Sureste Mexicano, estamos interrumpiendo la transmisión de Hala Bedi Irratia en el País Vasco, para mandar un saludo a todos los radioescuchas, hombres, mujeres, niños y ancianos del País Vasco, nuestros hermanos en la lucha por la liberación y el reconocimiento de los derechos de los pueblos [...]

Por eso, aprovechamos también este medio de Hala Bedi Irratia para mandar una disculpa sincera de mi parte a todo el pueblo vasco, por nuestra torpeza, mi torpeza personal, cuando tratamos de promover ahí una instancia en el País Vasco con los

ataques que sufren. Esperamos que la misma decisión que tienen para la lucha sea la misma nobleza que tengan para otorgarnos las disculpas que les pedimos. Por lo demás, échense muchas ganas, nos veríamos en algún momento, en alguna parte, cuando este mundo, el País Vasco, los pueblos indios en México y toda la gente que lucha por su liberación la encuentre donde la tiene que encontrar: abajo y a la izquierda.

Saludos, pues, hasta luego. Volvemos a la transmisión de Radio Insurgente, la voz de los sin voz, la voz del Ejército Zapatista de Liberación Nacional, transmitiendo desde las montañas del sur-este mexicano en esta transmisión especial para el País Vasco.

Hauexek izan ziren 2006. urtean Marcos komandanteordeak Lacandonako oihanetik Hala Bediren bidez Euskal Herriari helarazitako hitzak. Izan zuen oihartzunik kontuak bere sasoian. ETBko albistegietan ere aipatu zuten berria. Beste edozein komunikabiderentzat goxoki bat zena Hala Bediren bidez hedatzea esanguratsua eta garrantzitsua izan zen. Kasualitateak, normalean, ez direlako berez gertatzen, bilatu egin behar izaten dira.

Pare bat urte lehenago ere, ez ahazteko modukoa izan zen Garoñako zentral nuklearrak isuri bat izan zuela kontatzeagatik Hala Bedik hirian sortu zuen zalaparta. *Suelta la olla* goi-zeroko magazinean, balizko isuri erradiaktibo baten aurrean sortuko litzatekeen kaosa irudikatu nahi izan zen horrela, aste batzuk lehenago prestatzen hasitako fikziozko irratsaio bereziaren bidez. Garoña inguruan ohikoa baino presentzia polizial handiagoa zegoela ohartarazteko, zuzenean sartzen ziren aurrez adostutako telefono deiek pentsatu baino elur bola handiagoa sortu zuten, ordea. Zurrumurrua azkar batean hedatu zen Araba osoan eta entzule asko erredakziora deika hasi ziren segituan, azalpen eske. Informazio faltak jendearen kezka areagotu zuen: Gamarrako igerilekuak hustu egin zituzten hondamendi nuklearraren beldurrez eta Radio Vitoriaren telefonoak kolapsatzerainokoa izan zen hirian sortutako alarma egoera. Balizko isuri baten aurrean sortu daitekeen kaosa eta Garoñako zentrala ixteko beharra agerian uztea zen helburua. Baina, horrekin batera, Hala Bedik

jendartean zeukan oihartzuna neurtzeko ere balio izan zuen ordukoak. Uhinen bidez uste baino urrutiagora iritsi zitekeela frogatutzat eman zen horrenbestez.

Drogak AEKn

Euskaraz abesteko hautuaren inguruan galdetu ziotenean, zera erantzun zuen Josu Zabalak *El Tubo* aldizkarian egindako elkarrizketa batean: «Garai hartan inork ez zuen rocka euskaraz egiten, eta guk euskaraz egitea erabaki genuen, rocka definizioz boterearentzako deserosoa izan behar delako».

Xabier Montoiak berak ere aitortu izan du inoiz punk talde bat sortzeko motibazioak bultzatu zuela bera euskaraz ikastera.

Euskarak Gasteizen, beraz, aurrekoarekin apurtzeko nahi harekin, kontrakultura harekin bat egiten zuela esan daiteke. Ez zen folklore hutsera mugatzen. Ez zen identitate kontuengatik bakarrik zaindu beharreko zerbait. Euskararen aldeko jarrera prozesu emantzipatzailearen barnean zegoen, antimilitarismoarekin, ekologiarekin, elizaren kontrako jarrerarekin eta bestelako jendarte baten aldeko borrokarekin batera.

Araba izan da azken hamarkadetan gehien euskaldundu den herrialdea. Hori horrela izateko faktoreak askotarikoak dira seguruenik. Gasteiz hiri txikia da, onerako eta txarrerako. Gauza batzuetan herri bat izatetik hurbilago dagoela esan daiteke. Eta transmisioaren kasuan ere, hiri handi batean baino errazagoa izan da Arabako hiriburuan hamarkadaz hamarkada aurrekoek utzitako bideari jarraitzea.

Euskarak Gasteizen aurrekoarekin apurtzeko nahi harekin, kontrakultura harekin bat egin zuen. Ez zen folklore hutsera mugatzen. Euskararen aldeko jarrera prozesu emantzipatzailearen barnean zegoen

1989an sortu zen euskarazko lehen institutua Gasteizen. 1976an jaiotako belaunaldia izan zen euskaraz alfabetatu zen lehena. Eta belaunaldi hura dugu, halaber, 90eko hamarkadatik aurrera hiriko mugimendu sozialak euskalduntzen hasi zena. Unibertsitate ikasketak egitera kanpotik etorritakoek ere izan zuten eragina prozesu horretan, dudarik gabe. Eta horren aurretik, noski, frankismoaren itzalpean euskaraz ikasteko eskolak sortzeko lanetan ibilitako haiek denek eta ondorengo urteetan euskaltegiek egindako lanak ere bai.

Hiria bera ere ideologikoki hain polarizatuta egoteak ezkerreko mugimendu eraldatzaileak batuta mantentzea eragin du. Baina ez hori bakarrik, batuta mantentzeaz gain, batera gauzak egiteko tradizioa ere transmititu da gaur arte.

Gasteiz euskaldun bat pentsaezina izatetik errealtatean irudikatzen pasa gara oso hamarkada gutxian. Duela ez hainbeste arrotza zen hizkuntza bertakotzea lortu da urte hauetan zehar. Zerbaitetan asmatu den seinale.

Baskoak eta euskaldunak

Hala Bedi izan da, eta da, euskal kulturaren erresonantzia kutxa garrantzitsuenetako bat Gasteizen. Erdaldunak euskal mundura hurbiltzeko kokapen pribilegiatuan egon da beti. Hala Bedi modernoa den zerbait sinbolizatzen duelako: jartzen duen musika, eskaintzen dituen irratsaioak, antolatzen dituen kontzertuak, adierazten duen jarrera lotsagabea eta kaleratzen duen estetika, azken finean, berritzailea izan delako normalean. Batzuentzat euskal pijoak ziren tabernan zein irratian jartzen zuten musika arraroarengatik. Beste batzuentzat makarra hutsak, hipiak, erdaldunak, abertzaleak... Baina inoiz ez oharkabean pasatzen den jendea.

Barnera zein kanpora begira, nabarmen euskaldundu da irrattia azken 15 urteotan. Asko dira aipatu beharko genituzkeen adibideak. Haietako lehena, ziur aski, Euskal Herri osoko irratiak biltzen dituen Arrosa sarearen sorrera da. 2001ean, teknologia berriei dagokienez, beste irrati batzuk

baino esperientzia eta eskarmentu handiagoa baitzuen Hala Bedik zeregin hartarako, eta baita baliabide gehiago ere. Gaur egun Arrosa sareari esker Euskal Herriko 20 irratitan emititzen den arratsalderoko *Zebrabidea* magazina ere bertan sortu zen duela 15 urte inguru. Gainera, oraindik lehen pausoak ematen ari bada ere, Gasteizko euskarazko lehen irratia Hala Bediren ekimenez sortu da duela hiru urte. Eta aspaldidanik irratia ren helburuetako bat zena gauzatu zen, azkenik, iazko ikasturtean: *Hizpidea* izeneko goizeroko magazina. Bilbo Hiria irratiarekin elkarlanean ekoitzi eta Gasteizen zein Bilbon entzun daitekeena.

Euskalgintzak instituzionalizazioaren ondorioz lortu ez duen atxikimendua lortu da euskararekiko, neurri batean, kulturgintzari eskerrak Gasteizen. Duela gutxira arte, basakoak kanpotik bertara bizitzera etorritakoak ziren gasteiztar askorentzat. Orain, berriz, bertan bizi eta euskaraz ez dakitenak. Aldaketa txikia da, baina esaguratsua. Eta euskaratik urrun zegoen jendea euskal mundura hurbiltzeko, beste batzuekin batera, Hala Bedik egindako zubi lana azpimarratzeko modukoa izan da zentzu horretan.

Dependentziarik ez, eskerrik asko

Gaur-gaurkoz, Hala Bedik modu alegalean jarraitzen du uhinak okupatzen. Bai orain arteko emisio elebidunarekin eta baita euskara hutsezko hasiberriarekin ere. Beste irati komertzial asko ari diren bezala, bidenabar. Modu legalean emititzea ahalbidetzen duten irati-lizentziak duela 25 urte banatu baitziren azkenekoz Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta 2012an Patxi Lopezen gobernuak martxan jarritako lizentzia banaketarako lehiaketa, ia bukatzeaz zela, bertan behera geratu baitzen, inongo azalpenik eman gabe, legegintzaldia bukatu bezperetan.

Lehiaketan parte hartu bazuen ere, hasieratik argi utzi zuen Hala Bedik –eta Arrosa sareak– lehiaketa hura Madrilen egoitza duten irati komertzialen neurrira egindakoa zela. Ez

zen euskarazko emisioentzat gutxienez ezarri, eta tokian tokiko irrati txikiak enpresa erraldoiak atzean ditzuten irratiekin lehiatzera behartzen zituen Eusko Jaurlaritzak. Kasu honetan ere, Frantziako ereduari erreparatu beharrean Es-

Gizarteak legeari
aurre hartzen dionean
hasten da benetan
parte hartzea esanahia
hartzen. Legea atzean
geratzen denean,
jendarteak aurrera
egin duelako. Horixe da
desobedientziaren
azken helburua

painiakoari jarraitzea erabat kaltegarria izan zen bertarako. Hori, kontuan hartu gabe, alde aurretik, diala Madrilen egoitza duten irratiekin beteta dugula. Eta euskararen presentzia, oraindik orain, hutsaren hurrengo dela.

Proiektu autogestionatu bat izateak inoren dependentziarik gabe apustuak egiteko askatasuna eman dio Hala Bediri 33 urtean zehar. Zenbait proiektu aurrera ateratzeko edo behar bezala garatzeko ezintasunak

ere ekarri dizkio sarritan. Gaur egun, bazkideek jarraitzen dute izaten irratia finantzatzeko diru iturri nagusia. Hala ere, duela urte batzuk, aukera zegoenean diru-laguntzeara aurkeztea erabaki zen. Horretarako bere buruari ezarritako kondizio bakarra instituzioetatik heltzen diren laguntzek proiektua ez baldintzatzea izan da. Jakina delako diru-laguntzei esker bizi ziren proiektu askorekin zer gertatu den behin iturria itxi dietenean.

Right here, right now

Gizarteak legeari aurre hartzen dionean hasten da benetan parte hartzea esanahia hartzen. Legea atzean geratzen denean, jendarteak aurrera egin duelako. Horixe da, hain zuzen ere, desobedientziaren azken helburua: gizarteak injustuzat jotzen duen lege edo arau bat gainditzea. Legeak nahi duena esan baitezake, behin gizarteak aurrea hartua dionean.

Antzeko zerbait gertatu da Hala Bedirekin ere. Legez inongo onarpenik aitortu ez arren, jendarteak eta baita gainontzeko komunikabide eta eragileek ere normaltasunez hartzen dute bere presentzia dialean. Behin puntu horretara ailegatuta, logikoena instituzioek gizarteak alde zuzenetik legitimatutako zerbaiti babes legala ematea izango litzateke. Baina logikak, zoritxarrez, beti ez du guk uste bezala funtzionatzen, ezta instituzioek ere. Gizarteak legitimitatea eman dion zerbaiti, legeak aitzakia hartuta, aurrera egiteko eskubidea ukatzea, edozein kasutan, eskandalua litzateke.

Hasieran esaten genuenera bueltatuz, kultura autodeterminatuko bada, aurrez, komunitateak autoeraketarako beharrezko dituen tresnak eskuratu beharko ditu. Legeak aprobetxatu, ahal duenean, eta legeak gaingaitu, besterik geratzen ez zaionean.

Izan nahi duenak egin beharra dauka, gero zer kontatu edukitzeko ere. 🌱



Okela Sormen Lantegia

Nora Aurrekoetxea • Izaro Ieregi • Irati Urrestarazu
(artistak eta Okelako kideak)

Proiektuaren filosofia

Lehenik eta behin, galdera honetatik abiatzea gustatuko litzaiguke: «zer da artista izatea gaur egun Euskal Herrian?». Alegia, artista plastikoak, emakumezkoak, euskaldunak eta gazteak. Horren kontzientzia zuzena izanik plazaratu nahi ditugu gure bizipenak eta esperientziak.

Zer da, beraz, gaur egun artista izatea?

Azaleko diagnostiko arin bat eginik, gaur egun artista izatea hauxe da: edukiontzia edukiz beteko dituen izaki edo agente hori, baina inori axola ez zaiona, ez baita inor arduratzen haren bizirauteaz. Ez dago zaintzarik. Demagun artista nekazari bat dela: lehengaiarekin lan egiten du, eta produktua sortu eta erretetik kontsumitu arteko prozesuan hainbat eta hainbat agente daude produktu horretaz aberasten direnak, nekazaria –edo, kasu honetan, artista– prekarizatuena izanik.

Benetako kultur politika integralik ez dago, eta, horren ordez, edukiontzi hutsez beteriko azpiegiturak ditugu, hiri zein herri txikietan, denoi etorriko zaigu adibideren bat burura. Artistoi, ordea, ez zaigu galdetzen zer premia ditugun. Izan ere, lehenik kutxa egiten da, kutxa horretan joango dena, nola joango den... erabaki aurretik. Gainera, beken eta sarien joko paternalistan sartzea ia beharrezkoa bihurtzen da, merkatuan erori ez ezik, instituzio eta diru laguntza publikoekiko dependentzia bat sortuz.

Izan ere, artista batek lan egiteko toki bat behar du, estudioa behar du, horrek eragiten dituen gastuak ordaindu, lan egiteko materialak erosi, erakusketa muntatu, horretarako bidaiak egin, testuren bat idatzi, eta hori guztia inongo ordainsaririk gabe. Edukiontzia edukiz betetzeko beharrezkoa

dena ez da ordaintzen; bai, ordea, bertan lan egiten dutenen ordainsariak, espazioa mantentzea...

Eta non geratzen dira funtsezkoak garen sortzaileon premiak? Zer kultur eredu eraikitzen da?

Ez badaukagu guri egokitzen zaigun espazio fisiko zein sinbolikorik, guk geuk sortuko ditugu gureak, artistak agente kultural –subjektu– bihurtuz, eta espazio hori bereganatuz.

Okela Sormen Lantegiko¹ kideok gure gabeziak identifikatu genituen: kolektiboaren beharra, artista-langile dikotomia gainditzea, artisten arteko harremanak ahalbidetzea, artea herritartzea eta euskaraz naturaltasun osoz gure esparruan aritu ahal izatea.

Kolektiboaren beharra. Artistok ere, sisteman orokorrean gertatzen den modura, norberaren lanean zentratutik, individualizazio batera bideratzen gaituzte. Baina jakina da lan prozesu honetan artiston arteko harremanak ezinbestekoak direla norberaren garapenerako; taldeak, horrenbestez, ezinbesteko garrantzia hartzen du. Are gehiago gure jardueran, bestelako kultur adierazpide batzuetan gertatzen ez den bezala, ez baitago elkarerik edota artista-langile figura plaza-ratuko duen erakunderik. Tamalez, gabezia horrek prekaritate ekonomiko eta sozial larria dakar, artista sekula ez baita langile gisa tratatua izango, ez kalean, ez lagunartean ezta erakundetan ere.

Artistok langile modura intsumitu behar dugu. Imajina dezagun une batez artistak batu eta EAE, Nafarroa eta Akitaniako administrazioetara estatutu komun batzuekin joango bagina, eta horiek onartu arte arkatz bat ere mugituko ez bagenu, dena paralizatuko bagenu: ez erakusketarik, ez hitzaldirik, ez irudi sorkuntzarik...

Gaztea. Akademia utzi berritan, gure ibilbide propioa ereiteko erabaki irmoa hartuta sortu genuen Okela Sormen Lantegia, artista gazteok gure lana garatzeko, erakusteko eta elkar banatzeko espazio falta ikaragarria baitago. Belaunaldi

ezberdinetako artistekin harremanak izatea ez da erraza izaten, adiskidetasunetik abiatzen direnak ez baldin badira. Hutsune horrek eragin zuzena dauka epe luzerako den ibilbide profesional honetan, esperientziaren eta ezagutzaren transmisioa eragozten baitu. Baliabide ekonomikoen urritasunak eraginda ere, prekarietatetik ez da erraza espazio propio bat izatea, ez bada erakunde baten epe laburreko paternalizazioaren menpean, beken kasuan bezala, esate baterako.

Espazio huts hori okupatzea izan zen gure irtenbidea... Izan ere, ekimen eta erakusketetarako ezohiko aretoa izateak beselako aukera batzuk zabaltzen ditu.

Euskalduna. Esan beharrik ez dago arte plastiko eta ikus-artearen esparruan euskaraz ikasi, pentsatu, idatzi eta praktika garatzeko espaziorik ez dela bermatzen, ez unibertsitatean, ez horretan diharduten erakundeetan. Adibidez, bekak lortzeko edo proiektuak aurkezteko txosten eta memoriak erdaraz idatzi behar izaten dira, eta askotan ingelesez.

Emakumea izanik, maila profesionalean jokatzeko ia ezinezkoa bihurtzen da. Adibide garbia daukagu Bilboko Arte Ederretako Museoaren ibilbidean: museo horrek aurtan eskaini dio lehen aldiz emakume artista bati, Susana Talayerori, bakarkako erakusketa bat. Aintzat har dezagun 1924an zabaldu zituela museoak bere ateak.

Dena eza, dena gabezia den eremu honetan, dena dago egiteko. Eta gabezia horiei erantzuteko sortu genuen, besteak

beste, Artisten Meeting Point (AMP) proiektua: Euskal Herrian jaio, bizi edota lan egiten duten artisten arteko sare fisiko eta digitala. Egitasmoaren xedea hau da: tokiko

Artearen eremuan dauden gabeziei erantzuteko sortu genuen Artisten Meeting Point proiektua: Euskal Herrian jaio, bizi edota lan egiten duten artisten sare fisiko eta digitala

testuingurua aktibatzea, artistak saretzea eta ezagutzera ematea, artisten arteko elkar ezagutza bermatzea, testuinguru horretan euskararen erabilera sustatzea eta ikuspegi feminista batetik aritzea.

Funtzionamendua eta gobernantza

Funtsezkoa zen, beraz, artistez osatutako kolektibo bat izatea. Gaur egun hiru lagunen artean kudeatzen dugu Okela Sormen Lantegia proiektua. Modu honetara, estudioko lana eta Okelako lana aldi berean aurrera eramatea da gure helburua. Jakina, artista gisa ezin badugu jardun, Okelak zentzua galduko lukeelako. Ezin daiteke Okela ulertu gu artista izan barik. Lan batek bestea elikatzen du. Gainera, diru kontuetan sartuta, etekin ekonomikorik ematen ez duen jarduera (estudioko lana, kasu honetan) aurrera eraman daiteke hain zuzen Okelako proiektuen bitartez soldata bat edo langile izaera badugulako, kultur kudeaketan, alegia. Bestela ez litzateke egoera hori posible izango. Nork daki, taberna batean lan egin beharko genuke...

Baina zergatik ez dugu soldatarik estudioan lanean egoztegatik?

Eredu hori sustengarritasunetik abiatzen dugu. Hau da, kulturgintzan, sarritan, militantzia eredu ez sustengarrietan erortzen gara. Joera hori oso errotuta daukagu Euskal Herrian, baita lanean ere, baina ez dauka etorkizunik. Iraun beharrak ezin dezake edozein prezio ordaindu. *Por amor al arte* delakoa gainditu behar da.

Euskara eta euskal kultura

Gure proiektuan zentralak dira bai euskara, bai euskal kultura. Jakina, logika natural bati erantzuten dio zentraltasun horrek, testuinguru honetan bizi eta lan egiten dugulako.

Euskal kulturari dagokionez, eztabaida zabala egin liteke 'euskal' eta 'kultura' hitzen harira; baina, laburbilduz, esan

dezagun euskal kulturaren ekosistema horretan kokatzen garelako garelako euskal kultura. Horrek identitate kontu bati erantzuten dio gehienbat: gure proiektua nazio eraikuntza baten baitan kokatzen da, zazpi lurraldeetako artistekin lan egiten dugulako. Nahiz eta gure jardunean orokorrean ahozko osagairik gabeko hizkuntza formalak erabiltzen ditugun, horrek ez du 'euskal' etiketa hori kolokan jartzen, gure ustez.

Txomin Badiolak, Iñigo Astizek *Berria-n* egindako elkarrizketa batean, honela azaltzen zuen:

XIX. mendean, modernitate bete heldu arte, oso erlazio paraleloa zuten kulturak eta arteak. Gizarteak behar zituen kohesiorako ikur handiak eta arteak sortzen zituen ikur horiek. Baina abangoardien ostean dibortzio moduko bat eman zen artearen eta kulturaren artean: kulturak sortzen ditu kohesio sozialerako ikurrak, baina artea hasten da konbentzio guztiak kuestionatzen (*Berria*, 2016-01-30).

Kultura bera, ordea, anbiguoagoa da, kontsentsu sozialez egiten delako. Ekoizpen batzuk kultura bilakatzen dira, eta beste batzuk ez; baina zeren arabera? *Boterea*, espazio legitimatzaileak, epaimahaiak, irizpideak?

Artea eta kultura (eta euskal kultura) interdependentzian daude. Baina arte eta kulturaren arteko harreman horretan korapilo handia dago. Izan ere, arteak kultura elikatzen du batzuetan, baina baita horren ulerkera eraldatu ere. Kulturaren eta euskal kulturaren arteko harremanaren eztabaida zabalik dago, baina artearen eta kulturaren arteko harremanarena? Zentzu horretan, ez da kasuala, adibidez, guregana gerturatu diren hedabide guztiak euskarazkoak izatea. Zergatik hori? 'Euskal' label hori jarri dutelako guregan.

Kultur sortzaile, eragile eta erakunde publikoekin harremana

Bestelako artistekin harremana etengabekoa da: gaur egun 120 artista ditugu sareturik AMP egitasmoan, batzuekin beste batzuekin baino harreman estuagoa izan dugularik.

Gainera, antolatzen ditugun AMP jardunaldietan, publiko askotarikoa eta berria bilatze aldera, beti gonbidatzen ditugu beste diziplinetako artistak: musikariak, antzezlanak, errezi-taldiak, bertsoak... Era horretan, normalean arte erakusketa bat ikustera etorriko ez dena gerturaten da; kultur adierazpi-de herritartuago batzuk estrategia gisa erabiliz, bestelako pu-

Autodeterminatzea
erabakimena
edukitzea baldin
bada, orduan kultura
autodeterminaturik
dago... kulturaren
sektore bat bai,
behintzat

bliko bat gureganatzen dugu, artearen eta kulturaren artean hain beharrezkoak diren zubi-txoak eraikiz. Adibidez, *Prozesua* gaia landu genuenean, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza izan genituen, eta artisten berbaldia entzunda beraien lan prozesuarekin konexioak ikusi zituzten; edota *Politika* gaiaren inguruan Camilo Torres artista txiletarra Okelan

izan genuenean, Imanol Epeldek *Etxepare Rap* ikuskizuna eskaini zuen: artista hori sekula ez litzateke bestela horrela-ko kontzertu batera hurbilduko.

Bestelako eragileekin ere badugu harremana, baina lankidetzatza puntualak izaten dira, ez gaude etengabeko harremanetan.

Instituzioekin, ordea, diru laguntzen kontura baino ez dugu harremanik. Bestelako elkarlan motak suertatu zaizkigunean, kontu ezberdinengatik deseroso sentitu izan gara. Askotan ez daude artista plastikoekin lan egitera ohituta, arte ekimenen etekinak jende kopurutan neurtzen baitituzte; guk, aldiz, kalitatea kantitatearen aurretik lehenesten dugu. Argi dugu etekinak denborak ematen dituela, espektakularizazio irizpideetatik kanpo. Eta sarritan oso neketsua da hori era-kundeei ulerraraztea.

Bukatzeko, Baionako jardunaldiei izenburua eman dien galderari erantzuten saiatu nahi genuke: eta kultura auto-determinatuko balitz? Izan ere, kulturak autodeterminatuta

balego bezala funtzionatzen du, dependentzia ekonomiko larria eduki arren.

Euskal Herria hiru eremu administratibotan banatuta dago, bi estaturen menpe; baina, hala ere, badaude egiazko estatu edo nazio gisa funtzionatzen duten kultur egitura batzuk. Eta era natural batean gertatzen da hori, imajinarioki edo sinbolikoki horrela eraikita dugulako gure burua. Jarrera eraikitzaile bat du, beraz, kulturak.

Kultura autodeterminatuko balitz... Okelak ez du estaturik behar. Berez badaukalako.

Autodeterminatzea erabakimena edukitzea baldin bada, orduan kultura autodeterminaturik dago... kulturaren sektore bat bai, behintzat. Beste sektoreak ez du baliorik: autodeterminatuta ez badago, ez da kultura, administrazioaren aisialdi eskaintza bat besterik ez. 🌱

Oharrak

1. Okela Sormen Lantegia artistek sortutako eta kudeatutako irabazi asmorik gabeko espazio bat da. Euskal Herriko arte garaikidean oinarrituta, kontestu lokala aktibatu eta artista plastiko eta bisualen arteko harremanak sortzeko premia sortu zen. Testuinguru hurbilean identifikaturiko hutsuneei aurre egiteko asmoz abiarazi zuen bere ibilbidea 2014an. Perspektiba feminista batetik ekinez, artiston profesionalizazioa sustatu, euskararen presentzia bermatu, belaunaldi ezberdinetako artistak harremanetan jarri eta arte garaikidea herritartzea dira, besteak beste, Okelaren helburuak. Egun Okela kudeatzen duten artistak Izaro Ieregi, Irati Urrestarazu eta Nora Aurrekoetxea dira, ibilbide honetan bidelagun ditugun artista konplizeekin, kolaboratzaileekin eta ekonomikoki babesten duten Okelatarrekin batera.

EGUNEN GURPILEAN

153 Kultura

Rio 2016. Kultura jokoan
Antzinaroa. Ziniska eta bikinidun
neskatxak
Joko Modernoak. De Coubertin vs
Milliat
Kezko hesi-lasterketa
Miren Artetxe

162 Ekonomia

Amerikako Estatu Batuak beti bezala
Gobernurik gabeko ekonomiatik
Estatu (Neo)Liberalerantz?
Euskal Herriko egoerak
Munduan malerusik!
Henrike Galarza

170 Soziolinguistika

Arrakalagintza
Hemendik kanpo ere arrakalak
Arrakalak desazkundera dakar
Txerra Rodriguez

176 Telepolis

Errealitate birtuala (VR), areagotua
(AR) eta mistoa (MR)
Industria 4.0
Gorka Julio



Kultura

Miren Artetxe

Rio 2016. Kultura jokoan

Bukatu dira Rioko Olinpiar Jokoak. Kirolariak etxean dira honezkero. Baita kazetariak ere. Jokatu dira jokatu beharrekoak, estatu bakoitzak zenbatu ditu bere dominak, eta orain Rioko favelak Google Mapsen ikus daitezke. Zoragarri.

Aurten ere okitu arte irakurri ditugu emakume kirolariei buruzko lerro-buru matxistak. Lehia hasi aurretik atleta edereenen zerrendak, eta lehiak aurrera egin ahala, emakume garaile bakoitzaren atzean legokeen gizonezkoaren aipamenak, izan entrenatzailea, bikotekidea edo beste edozein; onenean, haien kirol emaitzen analisisen aurretik, eta, txarrean, beren horretan.

Eta harritu egiten gara –xaloak, gu–. Historian zehar emakumeek kirol-lehian parte hartzeko izan dituzten eta dituzten zailtasunak lerro-buru horietatik erabat aparteko kontuak balira bezala. Kirol-lehia, gaur egun ulertzen dugun moduan, gizonengandik eta gizonentzako eraikia –eta kontatua– izan ez balitz bezala. Galdetu Ainhoa Tirapuri. Eli Pinedori. Leire Olaberriari. Galdetu Maider Undari. Ainhitze Kalonjeri. Maialen Chourrauti. Galdetu baliabideez. Soldatez. Ikusgarritasunaz.

Cambridge University Press-ek ingelesezko milioika hitzek osatutako datu basea landu du, hedabideek kirolaz hitz egiterakoan emakumeak eta gizonak berdintzat tratatzen ote dituzten jakiteko. Eta hona ondorioak, Onintza Iruretak bere blogean euskaraz bilduta:

1: Datu-base orokorrean ‘gizona’ edo ‘gizonak’ hitzak ‘emakumea’ eta ‘emakumeak’ hitzak baino bi aldiz gehiagotan agertzen dira. Kirolari lotutako datu-basean berriz, bikoitza hirukoitza bihurtzen da.

2: Hizkuntzak erakusten du emakumeen kirolaz ari direnean, gizonekin alderatuta, itxuraz, arropaz eta bizitza pertsonalaz askoz gehiago hitz egiten dutela.

3: 'Heldua', 'zahartua', 'haurdun', 'ezkonduta', 'ezkongabea'... horrelako hitzak ageri dira emakume kirolariez ari direnean. Gizonen ari direnean berriz: 'azkarrena', 'indartsua', 'handia', 'izugarria'.

4: Lehiaren zentzua aldatzen da sexuaren arabera. Gizonentzako hitzak ondokoak dira: 'kolpatu', 'irabazi', 'mendean hartu', 'bataila'. Emakumeentzat: 'lehiatu', 'parte hartu', 'saiatu'.

5: Emakume kirolariak 'neskak' edo 'andreak' dira sarri. Gizonak, izatekotan ere, 'jaunak', baina 'gizona' hitzaren zentzuan.

Kirola ez baita gizartetik eta kulturatik aparteko burbuila; antzinarotik gaur arte, emakumeen kirola gizartearen eredurara garatu da, tokian tokiko eta unean uneko baldintzen arabera. Uneak une eta tokiak toki, kontua da garai bateko eta oraingo lerro-buruek antz handiegia dutela gauza onerako.

Antzinaroa. Ziniska eta bikinidun neskatxak

Goazen atzera. Antzinatora. Jatorrizko Joko Olinpikoetan (koka gaitzen, esaterako, K.a. 776. urtean), emakumeek debekatua zuten parte hartzea, lehian zein ikusle gisa, eta araua hausteak heriotza zigorra zekarkion kirolzaleari (Atenas ondoko Tipeo mendiko amildegian behera botata, zehazki). Ziniska izeneko emakumea izan omen zen urrezko domina irabazi zuen lehen emakumea K.a. 396. urtean (orduan ez zegoen dominarik, baina demagun). Koadriga lasterketa irabazita lortu zuen garaipen historikoa, zaldi lasterketetan ez baitzuen zaldizkoak irabazten, zaldien jabeak baizik. Harro egoteko moduan izango zen, noski, Ziniska zelakoa. Ez erabat, ordea, Plutarkoren hitzei bagagozkie. Nonbait, Agesilao nebak gaitzetsi egiten omen zituen zaldi probak kirol gisa, eta berak bultzatu omen zuen arreba «greziarrei erakusteko proba hipikoak irabazteko ez zela inolako talenturik behar, aberatsa izatea eta dirua gastatzeko prest egotea baizik». Espartarra zen Ziniska, espartar erregeen alaba eta arreba,

salbuespenaren salbuespena. Izan ere, mendebaldeko (oi gure) zibilizazioaren jatorrizko kulturatzat dugun Atenasen, emakumeak sarbide eskasa zuen espazio publikora, eta, beraz, kirolera (agoraren ideia gaur egunera klase, arraza eta generoz aseptizaturia iritsi bazaigu ere). Baina Espartako hezkuntza sistemak garrantzi handia ematen zion gorputza lantzeari. Baita emakumeei zegokienez ere –Likurgo legelariaren aginduz–, seme-alaba osasuntsu eta sendoez erditu zitezten. Atenasen ospe galanta zuten emakume kirolari haiek. Testuetan maiz ageri dira haien osasunari eta edertasunari buruzko aipamenak. Baita kirol jardueretarako erabilitako janzkera haragikoiei buruzkoak ere. Ederrean eder, lizunean lizun, ez zuten ospe ona soilik, emakume espartarrek. Hala zioen Euripidesek *Andromaka*-n, Peleoren ahotan: «nahita ere ezingo luke neska espartar batek garbia izan, haien etxeak utzirik, izterrak airean eta arropak solte, gizonekin batera lehiatzen baitira lasterketa-pista eta palestra komunetan».

La Vanguardia (Espainia), 2016-08-15

Lerro-burua: «Sexu-eskandalua Rioko Jokoetan».

Azpititularra: «Ingrid de Oliveira kanporatua izan da egoitza olinpiarretik Pedro Gonçalves arraunlariarekin 'sexu maratoia' burutu ondoren».

De Oliveira brasildar talde olinpikotik kaleratua izan da, hori dela eta (Pedro Gonçalvesek ez du zigorrik jaso gaurdaino).

Jakina da eta dokumentatuta dago, nolnahi ere, greziar eta erromatar garaietan emakumeak kirolean jardun zirela, eta baita lehian ere, luzaz eta etengabe. Hori bai, ez zuten sarbide erraza (batzuek besteek baino errazagoa, noski), ez kirolera eta are gutxiago lehiara. Aipatuagoak dira garai hartan ere orduko emakume atleten janzkerak eta biluztasunak, kirol emaitzak baino. Eta ez da orduko kontua. Erromatar garaiko ikonografian emakume kirolarien irudi famatuenak Siziliako Piazza Armerinan daude ikusgai IV. mendeko mosaiko zoragarri batzuetan. Hamar emakume ageri dira: korrikalariak, jauzilariak, diskoboloak eta pilota jokalaria, atletismoan lehiatzen. Emakumeek, batek izan ezik, larruzko

gerripekoak daramatzate soinean, eta uhalez estaliak bularrak. Tunika daramanak koroa bat du eskuetan. Mosaikoa *Bikini* bezala da ezaguna, akademikoki *Garailearen kororatzea* izendatu ohi bada ere.

Clarín (Argentina), 2016-08-02

Lerro-burua: «Rion ikusiko diren hamar aurpegi polit».

Testua: atletak, igerilariak, tenislariak, futbol, boleibol, saskibalo, eskubalo eta hockey jokalariai bata bestearen atzetik, argazki eta guzti. Izena, adina, palmaresa. Kito.

Olé (Argentina), 2016-08-02

Lerro-burua: «Suediar panpinak».

Testua: paragrafo bakarra. «Ile-horiak ezin gehiago, begi urdinak eta gorpuzkera lirainak». Hiru argazki.

Joko Modernoak. De Coubertin vs Milliat

Gatozen, ordea, hurbilagoko garaietara. Atenasen jokatu ziren aro modernoko lehen Olinpiar Jokoak 1896an (XIX. mende bukaeran bultzada instituzional nabarmena eman zitzaion kirolari gizarte fenomeno gisa, eta Olinpiar Joko Modernoak dira, beharbada, horren erakusgarri adierazgarriena). Bi milurteko eta sei mende pasatu dira eta joko horietan ere ez du emakume bakar batek ere parte hartuko. Pierre de Coubertin Olinpiar Jokoen sustatzaile gorenak hala hitz egingo du gaiari buruz:

Ez praktikoa, ez interesgarria, ez estetikoa, eta esan dezagun lotsarik gabe: desegokia, halakoxea litzateke, gure aburuz, erdi-olimpiada femenino hori. Ez da hori gure Olinpiar Jokoak ulertzeko modua. Honakoa da bilatu dugun eta bilatzen dihardugun formula: gizonezkoen atletismoaren exaltazio solemne eta periodikoa, internazionalismoa oinarri, leialtasuna bide, artea marko, eta emakumezkoen txaloak sari.

Gora bihotzak.

Mugimendu feministaren presioa medio, Parisen izan zen lehen kontzesio zurigarria 1900ean. 22 emakumek hartu

zuten parte, 975 gizonen aldamenean. Bi kiroleetan izango zuten proba ofizialetan lehiatzeko baimena: tenisean eta golfean (aristokraten denbora-pasa ziren belan, kroketean, patinaje artistikoan edo ekitazioan ere parte hartu ahal izan zuten, baina ez ofizialki lehiatuz). Charlotte Cooper tenis-laria izan zen lehen txapeldun olinpiarra. Cooperren wikipedia orrialdeak, gaur egun, bere seme-alabez eta senarraz datuak ematen dizkigu (bai ingelesez, bai frantsesez eta baita gaztelaniaz ere).

Marca (Espainia), 2016-08-11

Lerro-burua: «Maialen Chourraut, urrezko ama».

Segidan etorri ziren Saint Louis 1904, Londres 1908 eta Stockholm 1912, aurrerabide handirik gabe. Berlinen egitekoak ziren Jokoak bertan behera gelditu ziren 1916an, Lehen Mundu Gerra martxan zela eta. Gerra hark, hain zuzen, denen bistara baliogabetu zuen emakumeen 'berezko ahuleziaren' argumentua, Frantzian, esaterako. Eta bertatik etorri zen emakumeen parte-hartzeari buruzko aldarrikapen indartsuena, Alice Milliat (1884-1957) buru zela. Armistizioa izenpetzerako sortua zen Frantziako Elkarte Femeninoen Federazioa, eta Milliatek hartuko du Federazioko lehendakaritza 1919an. Urte horretan bertan eskatuko dio Nazioarteko Komite Olinpikoari emakumeen atletismoko proba ofizialak antola ditzala Anberesko Jokoetan. De Coubertinen ezezkoa erabatekoa da, eta Jokoetan parte hartuko duten 65 emakumeen presentzia alibia baino ez, 2.561 gizonen alboan. Urte hartan prentsak gehiago hitz egingo du Magda Julin (1894-1990) suediar patinatzailearen soineko beltz luzeaz bere urrezko dominaz baino, eta oraindik orain, bere wikipedia orrian, Olinpiar Jokoen garaian lau hilabete-ko haurdun zegoela aipatzen da (eta ageri dira bere senarra eta haurrak ere).

Ivoire Matin (Boli Kosta), 2016-08-12

Lerro-burua: «Rio 2016: atleta batek bere 5 hilabete-ko haurdunaldia ezkutatu du Jokoetan parte hartzeagatik».

Ezina ekinez egina. Milliatek eta bere kideek ez dute atzera egingo. Monte-Carlon nazioarteko bilera bat antolatuko dute 1921ean eta Nazioarteko Emakumeen Kirol Federazioa (NEKF) sortu. Milliat lehendakari, bere Parisko etxea bihurtu zen erakundearen egoitza, Varenne kaleko 3.ean. Federazioak Emakumeen Olinpiar Jokoak antolatuko ditu 1922an, Parisen lehenak, eta 1926an Göteborgen bigarrenak.

Bien bitartean, 1924an, honakoa agitaratu zen Espainiako *Aire libre* kazetan:

Badira kirol elkarteak zeinetan neskakilak, gizona imitatzeko grinak hartuta, haien gustuko kirolean aritzen diren, futbola, atletismoa, oinezko lasterketak, txirrindularitza etab. alde batera utzi gabe. Ez dugu sekula nahikoa egingo halako erakundeen aurka. Erakunde horietan, emakumea bere ezaugarri organikoek ez dagozkien jardueratan aritzera baimentzen da. Metodo horiek osasunaren galera ekar dezakete organismoa ez badago horiek jasatera ohitua, eta, baldin badago, marimutil motako emakumeak sor litezke, eta ez dakigu bi muturretako zein den tamalgarriena.

ABC (Espainia), 2016-08-12

Lerro-burua: «Lydia Valentín, Herkules makillajeduna».

Testua: errata izan liteke edo ez, «inoiz ez du makillajea eta azazkal-esmaltea ahanzten» esaldia bitan ageri da.

L'Équipe (Frantzia), 2016-08-03

Lerro-burua: «Rioko Jokoetako emakume atleta sexien zerranda».

Azpititularra: «entrenamenduetan haien gorputza (batzuetan gurearen [hots, gizezkoen gorputzaren] antza izan dezakeena) bereziki zaintzen duten emakume atleten hautaketa».

Argazkiak. Izena. Nazionalitatea. Espezialitatea. Interneteko atarian denetan sexiena hautatzeko bozka eman liteke.

Joko Femeninoek arrakasta izango dute, ordea, eta Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkarteak (AFNE) komisio bat sortzea proposatuko dio NKEFri, Joko Femeninoetan burutzen ziren hamahiru probetatik bost Joko Maskulinoetan integratzeko. Alice Milliat aurka agertuko da. Federazioko gainerako kideak alde.

Hala, 1928ko Amsterdamgo Jokoetan ikusi zen lehen emakumezkoen atletismo proba Gizonezkoen Olinpiar Jokoetan. Lina Radke-k irabazi zuen 800m-tako lasterketan zenbait atleta helmugara leher eginda iritsi izanak polemika sortu zuen. Hainbestearino, ezen atea zabaldu bezain laster itxi baitziren: 1960ra arte debekatu zitzaien proba hura emakumei, emakumeen gaitasun fisikoei egokitzen omen ez zitzaielako. Kazetari alemaniar batek hala idatzi zuen 1928ko abuztuaren 3ko Frankfurteko Kazetan: «Uste dugu emakumeak ez duela hain distantzia luzeetan laster egin behar. [...] ia lehiakide guztiak erabat abailduta zeuden. Ez zen ikuskitzuna *polita*». Lasterketa hura ulertzeko modu hori zalantzan jarri zen, ordea, gerora. Emakumeek etsipen hutsez jo omen zuten behea, eta ez erabateko nekeak jota.

El Mundo (Espainia), 2016-08-16

Lerro-burua: «Shaunae Miller, erorraldi suizida 400m-etako urrerantz».

Testua: «Indarrik gabe azken metroetan, atleten erresistentziaren mugak proban jartzen dituen 400 metroetako ahaleginak ahituta [...] Shaunae Millerrek erabaki suizida hartu zuen. Lurrera egin zuen jauzi, bere gorputza hel zedin bere zangoak heldu ezin ziren lekura». Irabazi egin zuen proba.

1930 eta 1934an ere jokatu ziren Olinpiar Joko Femeninoak, baina 1936an Milliat gaixotu egin zen, NEKF AFNEk irentsi zuen, Olinpiar Joko Femeninoen amaiera jakinarazi zen, eta 1938an desegin zen Federazioa behin betiko. Milliat 1957an hil zen. Bere gorpua Nantes hegoaldeko Saint-Jacques auzoko hilerrian dago. Ez omen da bere izenik ageri hilobian. Nantes hirian bertan, Pierre-Quinon izeneko atletismo estadioan, areto nagusiak ez, besteak, Alice Milliat izena du 2013az geroztik.

2012an lortu zen lehen aldiz Londresko Jokoetan herrialde guztiak emakumez ere osatutako ordezkariak bidaltzea eta emakumeek (udako) programa olinpikoko proba guztietan parte-hartzea (boxeoa falta zen, kasualitatez). Samaranch-en lehendakaritza garaian lortu zen emakumeek sari

ekonomikoak beraien kontu korronteetan jasotzea. 1981ean, emakumeak Komite Olinpikorako hautatu ahal izatea. 1990ean, lehen kargu exekutiboa. Gaur egun %3 baizik ez dira Komite Olinpikoko emakume goi kargudunak. Nekez ikusiko dugu, beraz, Tokion ere, emakume bat inori urrezko domina jantzen.

Kezko hesi-lasterketa

Kirolaren soziologiak gaur egun kirola ulertzeko dugun moduaren jatorritzat ditu Olinpiar Joko Modernoak. Eta esan dezagun hitz potolotan: hasiera bateko helburua antzinate klasikoko balio idealizatuak berreskuratzeko ahalegina izan bazen ere, laster bihurtu ziren iraultza industrialari loturiko fenomeno eta gizarte kapitalista sendotzeko tresna paregabea. Kirol lehiaren bidez justifika zitezkeen ezberdintasun sozialak, klase, arraza edo sexu/genero diferentziak naturalizatu. Hortik eratorriak dira emakumetasun frogak eta transexualitatearekiko irmokeria. Emakumeen edertasun/feminitate ala edertasun falta edo maskulinitatearekiko interesa. Emakumeen garaipenak gizona egotzi beharra. Kirolarien amatasunaren gorespina eta sexu grinen gaitzespena (emakumea subjektu gisa ulertuta, noski). Emakumeen indargabetasuna eta lehiarako gaitasun eza sinetsi eta sinetsarazi nahia. Rion ikusi nahi izan dugun parekidetasun erakusleioa kezko hesi erakargarri bat besterik ez da.

Beharrezkoa da, beraz, Chourraut. Halako eredurik gabe zaila litzateke frogatzea estereotipo sozialak direla gainditu beharreko hesiak, eta ez emakume gorputzaren berezko muga fisikoak. Beharrezkoak Riora heldu ez direnak eta lehian ez bada ere kirolen batean dihardutenak. Beharrezkoak kirol-kazetari emakumeak, eta genero ikuspegidunak (kazetaritza bera hobetzeko, besteak beste). Beharrezkoak emakume entrenatzaile eta hezitzaileak, eta hezitzaile feministak. Izan ere, kirola gizartearen isla den neurri berean da gizartea bera eraldatzeko tresna. Amelia Barquinen hitzetan:

Kirolak sekulako garrantzia dauka gure munduan, presente dago momentu oro komunikabideetan eta pertsonen bizitzan. Presentzia hori lotuta dago, hein handi batean, eliteko kirolarekin, errendimendua bilatzen duen kirolarekin, konpetizioarekin... Hori da gure jendartearen eta gure kulturaren ezaugarri bat.

Eta, horrexegatik, «[beste] balio batzuk bultzatzeko eta jarrera batzuk deseraikitzeke erabili behar dugu kirol hezitzailea». 🌿



Ekonomia

Henrike Galarza

Amerikako Estatu Batuak beti bezala

Amerikako Estatu Batuetako lehendakartzarako hauteskundeak azken txanpan sartu dira, inkesta zenbaiten emaitzak Trump hautagaia garaile erakusten ari diren bitartean. Haren aholkulari taldea ia osorik aldatu ostean, ez dirudi milioidunaren estrategia gehiegi aldatu denik: Peña Mexikoko lehendakariak gonbidaturik, paternalismoz aritu zen Trump jauna, irain hutsen mugatik gertu. Gero, Arizona estatuan, Mexikoren eta Amerikako Estatu Batuen arteko horma erraldoiaren egitasmoa aurrera eramateko borondatea berretsi zuen, Mexikoko herriak ordainduko zuela zehaztuz. Bertzaldetik, Clinton andrearen iraganeko kontuak azalarazten ari da, Obamaren lehen agintaldian Kanpo Harremanetarako idazkaria izan zen garaietatik bereziki: AEBek Libian zuten egoitza diplomatikoari egindako erasoan izandako hilketak edo bere sakelako telefono pribatutik bidalitako mezu konfidentzialak, bertzeak bertze. Clinton andreak dituen Washingtongo eta Wall Streeteko loturak haizatzeko edozein gauza erabiltzen ari da hautagai errepublikanoaren taldea, benetako hautagai herrikoia bera dela ziurtatzeko, burokraziaz eta gezurrez tindatutako andre politikari profesional hura baino askoz zuzen eta gardenagoa izanda... Zakarra eta xarmanta aldi berean, Ronald Reagan berri bat ote?

Egia da AEBetako egoera ekonomikoa ez dela hemendik batzuek erakutsi nahi duten bezain zerutiarra. Langabezia tasa %5etik jaitsi bada ere, soldaten hazkundera aurreikusitakoa baino askoz txikiagoa izaten ari da, hazkunde ekonomikoa apalduz. Gainera, urteko inflazioa %2ra iritsi ez denez, zaila zaio Janet Yellen Erreserba Federaleko Bankuaren

buruzagiari aspalditik nahi duen interes tasaren igotzeari ekitea, berreskuratze ekonomikoa kaltetuko duelakoan. Bertzaldetik, 2000. urtetik aurrera, oraindik munduko herri ekonomikoki handiena den horretan barne, desberdintasun ekonomikoak nabarmen harrotu dira: urtean diru sarrera gehien irabazten duen biztanleriaren %1 Barne Produktu Gordinaren ia %20 bereganatzen ari da; eta ondare ekonomiko osoaren erdia, mota guztietako jabetzak nahasturik, biztanleriaren %3ren eskuetan dago. Dagoeneko, Obama lehendakariaren ekonomia aholkulariek prestatutako txosten batean, 2016ko *Economic Report of the President*, 'gehiegizko' desberdintasun ekonomikoen ondorio txarrak salatu dituzte, bizitzan zehar aurrera egiteko familia pobreen haurren desabantailak azpimarratuz. Ingurumari hartan, erne ibili beharko dute bi hautagaiek, iragarri diren haien arteko ezbai publikoak hautesleen nahiak zehazteko erabakigarriak izan baitaitezke. Arlo honetan, Clinton andrea hautagai desatsegintzat jo dute inkestetan; haren irudi publikoa *establishment* politiko eta finantzarioekin loturik izateaz gain, pertsonalki hotza eta harroputza agertzen dela diote. Jakitekoa da Obama lehendakariaren babesa nahikoa izanen zaion Clintoni lehenbiziko lehendakari andrea izateko. Israel gobernu sionistari berriki onartutako hamar urterako 38 mila milioi dolarreko laguntza militarrek baietz diotelakoan gaude.

Gobernurik gabeko ekonomiatik Estatu (Neo)Liberalerantz?

Estatu espainoleko gobernu berria itxaroten ari garen hauetan, politikari eta kazetari-politologoek zirkuluetan behin betiko gobernurik ez izatearen kalteak aipatzen ari dira. Rajoy jaunaren kasuan, berak gobernuburu izan nahi duelako ulergarria da antzeko gogoeta egitea; baina herri bateko hazkunde ekonomikoaren gorabeherak inguruko herrien egoera ekonomikoarekin lotuta daudela ongi baino hobeki dakite ekonomia

pixka bat ezagutzen dutenek. Nazioarteko Diru Funtsak PPreu gobernua burututako egiturazko erreformak ere goraiatu ditu. Izan ere, estatuaren garrantzi ekonomikoa murriztearen ondorioz, ekonomiaren funtzionamendua aldatzeko lehen baino indar gutxiago dute aurrekontu publikoek, nahiz eta jarduera adar batzuetan, Hezkuntza, Osasun Zerbitzu edo Lan Publikoetan, haien eragin kualitatiboa ukazina izan.

Hala ere, aditu batzuek diotenari jarraikiz, pentsatzekoa da gobernu osatu ondorengo egoera liluragarria izanen litzatekeela, erabakitzeke dauden neurri ekonomiko berriak hil ala bizikoak bailiran. Belgikan gertatutakoa oroitu bertzerik ez dugu egin behar, oso susmagarriak diren instituzioen aldeko iritzi neoliberal horien zuzentasuna zalantzan jartzeko. Kezkati daude jarduneko gobernua ezin duelako neurri neoliberal gehiagorik ezarri, hain zuzen. Desarautze eta askatze ekonomiko neoliberalak, estatuaren botere ekonomikoa ahultzen duten berberak, botere politikotik gauzatu behar dituzte politikari neoliberalak. Horregatik, gobernu beharrezkoa da haientzat; baina, aldi berean, estatua eta politika etengabe gutxiesten ari dira haien pribatizazio politikak, boteretsuentzako zergen jaitsierak eta enpresa handientzako abantailak ezartzeko, beti ere iritzi publikoaren onespene edota pasibotasunaren artean. Herri kapitalista nagusietan azken hamarkadetan izandako desberdintasun ekonomikoen igoera lekuko.

Juncker Europako Batzordearen burua Europar Parlamentuaren osagai berriak aurkeztu zituen Europar Parlamentuan 'Batasunaren egoerari' buruz emandako adierazpen formalean. Haren hitzaldian, Estatu Jendarmeen mamua berpizteko bi txinparta: immigrazioaren kontrol polizial jarraitua, Europako Batasunean sartzeko baimenak bidaia egin aurretik eskatu behar izateraino; eta Europako Batasunaren armada propioa eratzeko deia, ekintza armatuak erabaki eta berehala burutu ahal izateko.

Juncker Plan deritzen inbertsioak finantzatzeko funtsarena kontuan hartuta ere, badirudi historian atzera doala

Europako Batasuna, herri askoren hauteskunderetan ideia xenofobo, arrazista, homofobo eta matxistak (Trump jaunari entzun dizkiogunen antzeko edo gaiztoagoak) babesten dituzten hautagaitzak nahikoa emaitza onak lortzen ari baitira. Beldurtzekoa da botere politikoa eskuraturik zer egin dezaketen. Erresuma Batuan, Brexit xelebrearen inguruko antzerki absurdoa kenduta, gobernu berriaren hezkuntza politikaren lehenbiziko proposamenek txarrena pentsatzera garamatzate.

Euskal Herriko egoerak

Nafarroa Garaiko Foru Gobernuak urte bat darama aldaketa soziala egiteko agindua betetzen saiatzen. Poliki doa Barkos andreak eta Aierdi jaunak zuzentzen duten gobernuak. Urte osoa bulegoetan egon ondoren, gobernu talde berriak errepikatu behar dituen egunoroko betebeharrak ongi ezagutzen dituela espero daiteke, buruzagi burokratiko nostalgikoren baten boikotak gorabehera. Egindako akatsetatik ere ikasi dutelakoan gaude, baina oraindik ez dute sindikatu guztiekin harreman normalizaturik lortu, ez administrazioan ezta lurralde mailan.

Egunoroko betebeharrak bideraturik, hurrengo pausoa datorren urteetarako egitasmo berrien plangintza finkatzea litzateke. Horretarako Foru Gobernuak duen finantziario urria politikoki banatu beharko du, aukera zehatzak eginez, Nafar Parlamentuaren gehiengo aurrerakoiarekin batera. Ziu-rrerik, egin beharreko inbertsio edo lan kontratuei buruzko iritzi ezberdinak izanen dituzte gobernuak sustengatzen duten alderdiek. Negoziaketak era lasai eta eraikitzaile batean egiteko konpromiso sendoa izan liteke krisi politikoa uxatzeko bermea. Ildo horretan, Baztanen eraiki nahi duten mamu turistikoa dela-eta, Nafar Gobernuak egin duen afera horren kudeaketa ez da eredugarria izan, leunki erranda. Bitartean, Nafarroa Garaiko ekonomiaren estatistikek zertxobait hobera jo badute ere, goizegi da benetako hobekuntza egonkorrik

datorren edo ez jakiteko. Nafar Ogasunari dagokionez, mota askotako ezezagun ugari dago zergen kopuruak zehaztasunez kalkulatu ahal izateko, Espainiako gobernuarekin egin beharreko *Convenio*-aren moldaketak barne. Edozein kasutan ere, kopuru apalez ari garela aitortu behar da, iraganeko lastoa (itzalpeko bidesariak, Urantziko zirkuitua, polikiroldegia, zor publikoaren korrituak...) kendu arte behintzat.

Iparreko mugaz haratago, salbuespen egoeraren peko urduritasun eta egoneza edonon, beldurra ez denean, Frantzia aldean izandako sarraskien oroitzapena ezin gainetik kendu. Aspaldi ikusi gabeko mugako kontrolez gain, hiri eta hondartzetan nabarmentzen dira uniformedunen patruilak. Beharbada, datorren urteko hauteskundeak, *présidentielles*, jendarme eta militarren metrailetan aurrean egin beharko dituzte. Azken albisteen arabera, El Khomri Laneko ministroa Lan Erreformaren legea garatuko duten arau eta erregelak prestatzen ari da. Horren kariaz, eragile sozial eta sindikatuak datozen asteetan protesta egitera deitu dute, udazken zalapartatsua iragarritz. Arau horiek indarrean sartuko direnean ikusiko da legearen benetako eragina zein den, indar sozialen erantzunarekin batera, segur aski. Borroka sozialeko giro horretan, LAB sindikatuarekiko Parisko CGT sindikatuaren buruzagitzaren jarrera baztertzaila, gezur inozo baina pozointsuetan oinarriturik, funsgabea eta erabat anakronikoa da. Zorionez, bertoko CGTko militante adoretuak, askoren artean, noski, LABekiko elkartasuna erakusten ari dira. Erabaki horren aurkako helegitea jarrita, hautes zerrendetan bai ala bai egonen direla ziurtatu dute LABeko militanteek.

Mendebaleko hiru lurraldeetan hauteskunde autonomikoak berriki izan dira. Otegiren hautagaitzaren ingurukoaz asko mintzatu ondoren, ez da zerrendetan agertu, epaiak hala aginduta. Emaitzak ikusirik, afera horren kudeaketa ez zaie hain gaizki atera EH Bildukoei, nahiz lehena izateko norgehiagokan zaplasta ederra jaso. Izan ere, jeltzaleen garai-penak Nafarroa Garaian ezagutu ditugun UPN alderdiaren emaitzak oroitu dizkigu. Bertzaldetik, Elkarrekin Podemos

aliantzaren eserlekuen kopurua PSE-PSOE eta EH Bildu alderdiek galdutakoen batura da, PSE-PSOE kalte gehien jaso duena bada ere. Orain, Urkullu jaunaren hautua da zer eta norekin egitea, EAJ-PNV alderdiaren negoziaketarako indarra gainerakoena baino askoz handiagoa da. Ikustekoa da zertarako erabiliko duten. Azkenik, gorago aipatu Parisko CGT sindikatuaren jarrera penagarriaren kariaz, badirudi PSE-PSOE alderdiaren euskararen inguruko bideo xelebrea aurreiritzi eta *chauvinisme* berberen iturritik ateratakoa dela... Eta asko ez diela lagundu hondoratzea ekiditeko.

Munduan malerusik!

Brasilgo ekonomia atzeraldian hondoratzen ari den bitartean, Rousseff lehendakari ohiaren aurkako prozedura hasi zuen diputatua bota egin dute ustelkeria salaketen artean. Temer lehendakari berria, enpresa transnazionalen harremanetan, herri indigenen eskubideak zapaltzeko prest omen dago, hainbertze elkarte eta mugimendu sozialen esanetan. Gastu sozialaren zati bat ere kentzera doala pentsatu dute, aurrekontu publikoaren defizitaren aurkako politika indartzeko. Lularen aurkako salaketa, luxuzko apartamentu batean egingako lanen kontura, aurrera doa epaiketaren bidean. Olinpiar Jokoetako ahaleginaren ostean, gerria estutzeko politika gogorra eskatu dute merkatuek, moneta brasildarraren balioak dibisa merkatuetan herena galdu eta gero. Kenbaluazioari esker esportazioak berpiztu dira, baliabide natural prezia-tuen ustiaketa azkartuz, jasangarritasun ekologikoaren eta herri indigenen aurkako mehatxuak areagotuz. Lehendakari berriak, aspalditik ustelkeria kasu batean nahasturik izateaz gain, gehiengo politiko egonkor bat lortzeko zailtasun asko izanen duela diote, Rousseffen aurkako kanpainen elkartutako aliatuak ez omen daudelako bertze gauza askotan ados. Bertzaldetik, hauteskundeak aurreratzeko Rousseffen proposamenak ez du aukera askorik, diputatu eta senatarien haren

aurkako gehiengoa ikusita. Joan den udan, Txinan antolatutako G-20 taldearen bileran, lehendakari berriaren atzerrian egindako lehenengo agerpenean, inbertsio berriak bilatzen ibili zen murrizketa eta desarautze ekonomikoak iragartzen.

Venezuelako herritik datozkigun albisteak ere nahaste borrate ikaragarriak dira. Gure garaian ikasi genituen 'jendarte dualak' izendatzen zirenak, bi mundu fisikoki elkartu baina ekonomikoki inkomunikatuak, parez pare daudenak; muturreko desberdintasun ekonomikoak tartean, bizimoduak, kultura eta ohiturak, etxebizitzaren kokapenak, eskola eta ikastetxeak, bizitzaren alde guztiak hierarkikoki banaturik daude, klase sozialen arteko hesiak altxatuz higikortasun soziala ezabatzeraino. Bi unibertso hertsia eta isolaturen arketipoek, Maduro lehendakariak eta Capriles oposizio buruak, edo buruetako batek, elkarrekin mintzatzea beharrezko bezain zaila dela otu zaigu. Orain arte, lehendakaritza bolibartarren eta oposizioak kontrolatzen duen parlamentuaren arteko harremanak liskar hutsak izan dira. Erreferendumarena oposizioaren helburu bakarra dela dirudi, administrazio publikoaren eta ekonomia osoaren funtzionamenduaren kaltetan. Venezuelarako burgesia *compradora*-k eta gaizki izendatutako klase ertainak nahi dutena eta Maduro sostengatzen dutenek nahi dutena ez dira aurrez aurre eztabaidatzen. Politikari zuri eta aberatsek joan den mendean hamarkada luzeetan zehar agintean egon ondoren utzitako egoera ikusita, ulergarria da bolibartarren boterearen defentsa sutua. Hala ere, botere jardueren gardentasun eta zintzotasunaren inguruko zalantzak mamitzen direnean, ustelkeria ekonomikotik alegiazko gehiegikeria polizial eta judizialera, benetakoa gobernu demokratiko eta aurrerakoien helburu eta bitarteko herrikoietara jotzea premiazkoa da. Boterearen aldetik erantzun argi eta eraginkorrik gabe, baketsua beti, Venezuelako bolibartar iraultza Nikaragua edo Brasilgoa bezalako erregimena bilaka daitekeelakoan gaude.

Azken egunotan Sirian gertatzen ari denari Gerra Hotzaren garaian zaporea dario. Errusia eta Amerikako Estatu Batuen

arteko tirabiretan, gainerako herrietako pertsonak hiltzen ari dira. Iraupen motzeko su etenak ezartzeko akordioa bertan behera geratu ondoren, ikustekoa da Siriako armada ofiziala, Errusiaren hegazkinen laguntzaz, eta AEBek armatu eta finantzatutako 'errebeldeak' bake konponketa batera irits daitezkeen, muturreko indar islamistei aurre egiten ari zaizkien bitartean. Erabiltzen ari diren hizkuntza diplomatikoari kasu eginez gero, ezkor izateko arrazoi gehiegi daude, Alepo, Homs eta gainerako martirizatutako hirietako biztanleen zoritxarrerako. 🌍



Arrakalagintza

«Zer da artea?» galdetu zenidan serio-demonio taberna ilun hartan barrea eragiten duen zilindro ketsua nire eskuetan pausatuta. Nik burlati «Zuhaitz mota bat?» erantzun nizun. Eta, orduan, eskuarekin antiojoa begietara bultzatuta, hauxe esan zenidan: «Artea da espazio publikoan esku-hartzeko arma, ekintza zuzenerako erreminta». Zeharo harritua utzi ninduzun eta ordutik behin baino gehiagotan gogoratu izan dut erantzun hura.

Izan ere, arteak eraldatu dezake errealitatea? Eraldatu dezake jendartea? (Baina hau ez al zen soziolinguistikari buruzko artikulua?) Ez daukat erantzunik galdera horietarako, jakina. Baina... Lutxo Egiak urratu zuen bide artistikoa badirudi errealitatea eraldatzen hasia dela. Edo, beste metafora bat erabilita, Lutxo Egiaren hazi-bonba ari da fruituak ematen han eta hemen, banakotik eta artetik kolektibora eta egunerokora. Egia auzoan hasi ziren, gero Añorgan, Donostiako Piratak ere aritu dira, Agurainen egingo dute (eta ziur naiz beste hainbat herritan ere buruan dutela). Eta, ahaztu aurretik, Lasarte-Orian ere.

Azken hori berezia izango da. Aldahitz eta TELPen inguruan egiten ari den hizkuntza ohituren didaktizazio prozesuaren barruan beste mugarri bat ezarri nahi dute Lasarte-Oriakoek (ia beti bezala, euskalgintzaren brankan dabilta herri horretakoak!). 40 egunez 300 ahobizi nahi dituzte, hau da, ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko konpromisoa hartuko duten euskaldunak, izena emanda gainera. Eta 3.000 belarriprest, hau da, euskaraz hitz egin ez arren euskara ulertu eta prest daudenak traba ez izateko, belarria prest dutenak

edonori euskaraz egiten uzteko. Euren berbetan esanda, 3.300 pertsona aterarazi nahi dituzte armairutik.

Baina ez hori bakarrik. Esperimentua izango da Lasartekoa. Eta esperimentuetan egiten den bezala, emaitzak neurtuko dira. Parte hartzaile guztien iritzia jasoko dituzte, amaitu eta berehala, eta handik hilabete batera. Eta, ondoren, kale neurketa ere egingo dute esperimentua amaitutakoan. Etor-kizuneko mugimenduen eragile eta, era berean, sismografo aritu nahi dute lasartearrek.

Nire ustez, Lutxo Egiak arrakala ñimiño bat ireki (edo ha-zi-bonba bat bota) zuen bere performancearekin, artearekin, hain zuzen ere. Eta arrakala hori handitzen eta handitzen ari da, nahiz eta oraindik txikia izan. Baina ematen du aurrera begira arrakala horri probetxua aterako diotela bazter asko-tan. Izan ere, badirudi bizi-eredu aurreratzaileak esperimen-tatzen hasi behar dugula euskal herrietan.

Arrakala berba aipatu dut gorago, eta ez da debaldekoa terminoa. Izan ere, terminoa John Holloway-k *Crack Capitalism* liburu famatuan ematen dion esanguran ulertzen eta erabiltzen dut. Eta zer dio ba berak? Arrakala honela defini-tzen du gutxi-asko:

Arrakala kapitalismoaren logika ezberdin bati kontrajartzen zaio, orain eta hemen matxinatzen dena, ez etorkizun hobe baten espe-roan. Hau da, egiteko modu bat baieztatzen dugun une edo gune baten eraikuntza kolektiboa da arrakala. Oraindik existitzen ez den mundu baten esplorazioa da arrakala, guk geuk egiten dugun bidea da arrakala, mendekotasunaren logiketarik aparte.

Arrakalagintza egiten ari dira herri horietan guztietan; noiz burujabetuko zain egon barik, mugitzen ari dira, jarria bihurtzen ari dira hizkuntza. Baina, tira, ez da berria. Izan ere, euskalgintzaren azken 50 urteotako jarduna ez al da izan arrakalagintza? Ez al da izan iritsiko ote den balizko etorki-zun hobe baten bila egon beharrean gaur eta hemen egindako jarduera-multzoa? Hala ere, oraingo honek badu gura du-gun hori praktikan jartzetik, probatzetik, bakoitzaren bizitza politizatzen. Ea zer emaitza dakarren. Orainaren profetak

ditugu horiek, etorkizuneko mezu. Adi jarraitu beharrekoa da prozesua, hortaz.

Hemendik kanpo ere arrakalak

Gurean bakarrik ez, kanpoan ere arrakalak sortzen ari dira etengabe, bizi-eredu aurreratzailerak praktikan jartzen ari dira han eta hor. Eta horien guztien lagin txikia izan genuen ekainean gurean, Hitzargiak izeneko topaketetan. Bi egun luze izan ziren Hernanin, Europako hainbat hizkuntza gutxituren praktika onak ezagutzen, Europako hainbat arrakalagile bertatik bertara entzuten eta sentitzen, Europako hainbat arrakalen berri izaten eta ematen. Eta, zergatik ez, leku batean balio izan duten ideiak sanpleatu eta nork bere errealiterata eta egunerokora eramateko eta moldatzeko aukera irekiz.

Izan ere, formatu berezia izan zuen topaketak: laburra, arina, zuzena eta parte hartzea bilatu zuena. Jardunbide inspiratzaile horiek partekatzeke foroa nahi zuen izan. Harreman sarea ehundu nahi izan zuen jardunaldiak, elkar elikatzeko, elkarri argia emateko. Bertaratutakoen artean lasai arraio berba egiteko egitarauan bertan eta kafe baten abaroan parada izan genuen. Beste herrietako jendea eta proiektuak ezagutzeko bide xamur eta probetxuzkoa, hain zuzen ere (Nel Vidal galiziarrek topaketen harira egindako kronikan aipatu bezala, «hizkuntza normalizaziorako gauzarik funtsezkoena pertsonak baitira»).

Europa inguruko arrakala batzuk ikasi genituen, beraz, Hitzargiak topaketetan. 120 esperientziatik gora batu dituzte euren webgunean (merezi du ibilbidetxo digital bat egitea), 25 hizkuntzetakoak. Eta Hernanin horietatik 40 bat aurkeztu zituzten jendaurrean esperientzia horietan parte hartzen duen hainbatek. Gainera, esperientzien berri emateko horma-irudi batzuk paratu zituzten kafea hartzeko gunean.

Bi egun luze izan ziren, esperientziez blai, sentipenak eta laguntasunak mozkortuta. Baina nik ondorio argi bat atera

nuen (beste hainbat konturen artean, jakina): prosa behar dugu, bai, baina, batez ere, poesia behar dugu, gure irudimena piztuko duen argia, gure irudimena mugiaraziko duen indar katalizatzailea, gure jarduna bizi-araziko duen izarren izpia. Izan ere, han eta hemen asko gara oin-oharra izateari utzi nahi diogunak, baina askotan katramilatzen gara diskurtso megaprosai-koetan, eta ahazten dugu erraiak direla benetan zerbait egitera bultzatzen gaituztenak.

(Azken esaldi hori zalantzan jartzen dutenei ohar mental bi: бага, nik bihar ere zalantzan jarriko dut esaldia, galdera asko ditut, baina erantzun gutxi; biga, galdetu zuen inguruan euskalgintzan aritzen direnei eta zuen buruei zergatik hasi ziren-zineten bide estu eta malkartsu horretan oinez, mesedez).

Arrakalagileak harremanetan jartzeak indar biderkatzailea izan dezake (edo ez). Arrakalatzen eta pitzatzen jarraitze-ko indarra eta gogoia piztu badu norbaitengan, ondo etorri. Eta espero dezagun topaketa horrek hurrengo urteetan ere egiteko modua bilatzea, arrakalagileek elkarri argia ematen jarraitu ahal izateko. Kanpokoari beti adi ibili behar dugulako, ikasteko, ikusteko, erne.

Arrakalak desazkundera dakar

Hizkuntza ekologia terminoa azken urteotan behin baino gehiagotan ekarria izan da soziolinguistikara, baita gurera ere. Berezi gogoan dut *Bat* aldizkariaren 81. zenbakian honi buruz egindako monografikoa. Lan zehatzetara ere eraman izan da (horren erakusle, esate baterako, aurtan hirugarrenez antolatu dituzten *Lurraldea eta Hizkuntza* izeneko jardunaldiak, eragin linguistikoaaren ebaluazioaren inguruan egiten ari den lana, Ekolinguia solas-jokoa edo gutxi barru gai horien inguruan abiatuko den graduondokoa), baina nago oraindik lantzeko asko daukagula gai horren inguruan.

Eta ez nator ni argi gehiago ematera, ezpada, agian, iluntasun apur bat gehiago ekartzera. Nire ustez, azken urteotan

ekologismoaren inguruan sortutako mugimendurik (eta horri lotutako teoriarik eta praktikarik) interesgarriena desazkundearena da. Eta nago hori ere hizkuntza alorrera ekartzeko moduko kontzeptua dela. Ea azaltzen dudan.

Desazkundeak aldarrikatzen du garapena eta hazkundera moteldu behar ditugula, etorkizuna izan nahi badugu. Aldarrikatzen du ondo bizitzeko gutxiago kontsumitu behar dugula. Eta alternatiba eraiki nahi du erakundeek aldarrikatzen duten garapen jasangarriaren aurrean. Horretarako, haren teorikorik entzutetsuenak (Serge Latouche frantziarrak) zortzi 'R'-ak aipatzen ditu: birsteuinguratu, birkontzeptualizatu, berregituratu, birlokalizatu, birbanatu, murriztu, berrerabili eta birziklatu (zeharo iradokitzaileak zortziak, nire ustez).

Izan ere, desazkundeak ez du bakarrik garapena eta hazkundera moteltzea aldarrikatzen eta praktikatzen. Horrez gain, iparrorratza aldatzea ere eskatzen du: jendartea berriro pentsatu, berriro egituratu, kontsumoa murriztu eta tokikoari garrantzia eman, besteak beste eta labor zurrean. Gerruntzea estutzen digun hori beste modu batera hausnartzeko, pentsatzeko eta jarduteko deia dakar, hain zuzen ere.

Tira, ba, eta hori gureru zelan ekarri? Iruditzen zait tokiokoari garrantzia ematea erraz asko ekartzeko modukoa dela, ez ala? Tokiko hori euskarak zeharkatzeko aukera gehiago duen heinean. Baina... batez ere, iruditzen zait erdaren desazkundera dela aldarrikatu beharrekoa.

Izan ere, erdarak hazten ari badira, euskara desazi egiten da, eta alderantziz. Hau da, euskarak tokia hartzen duen heinean, erdarek ere tokia galdu behar dute ezinbestean. Esate baterako: nik pertsona batekin ohitura aldatzen badut gaztelaniatik euskarara, erdarak desazi egiten ditut, erdarei lekua kendu egiten diet. Alderantziz egiten badut, oster, euskara desazi egiten dut eta erdarak hazi. Simple bezain gordin. (Jarri dudan adibidea norbanakoena da, baina balio lezake arlo kolektibo edo sozialean ere: enpresa batek, eskola batek, elkarte batek edo erakunde batek euskarari tokia egiten dion heinean, erdarei tokia kentzen die.)

Ai, baina arrakaletatik hasi eta desazkunderaino heldu zara, txiribuelta bi eman ostean. Bai, baina arrakalek eta desazkundeak zerikusia badute izan. Edo, beste modu batera esanda, desazkundeak arrakala dakar (edo arrakalak desazkundera). Irekitzen dugun arrakala edo pitzadura bakoitzak erdaren desazkundera dakar, edo ekarri beharko luke arrakala deitu ahal izateko. Arrakala barik, ezinezkoa baita erdarak desaztea eta, beraz, ezinezkoa baita euskara haztea. Hortaz, zuok atera irakasbideak (irakasbiderik balego, beti ere). 🌱



Errealitate birtuala (VR), areagotua (AR) eta mistoa (MR)

Errealaren eta birtualaren mugetan indarrak jarri nahi dituenik bada ere, zatiketa hori egitea gero eta zailagoa dela frogatzen dugu egunero. Mundu ustez birtualean egiten ditugun gauzek etengabeko eragina dute gugan, eta alderantziz. Errealitatea zer den, teknologiak nola eraldatzen duen argi ez, eta orain errealitate birtualarekin, areagotuarekin eta mistoarekin ere lehiatu beharko dugu.

Horietan zaharrena Errealitate Birtuala da (ingelesez *Virtual Reality*, VR). Betaurreko moduko gailu batzuen bidez, birtuala den edo errealitatea guztiz ordezkatzen duen mundu batean murgiltzen gara. Mundu horretan elkarreragiteko aukera dugu, aurrera mugituz gero aurrera, albo batera edo bestera eginez. Gailu konplexuagoak ere erabil daitezke gure mugimenduak kontrolatzeko, baina orokorrean birtuala den mundu batean murgiltzen garelako deitzen zaio horrela.

Errealitate Areagotuak (ingelesez *Augmented Reality*, AR), aldiz, errealitate fisikoan dagoenari gauza gehigarriak erantsen dizkio, pantaila baten bitartekaritzaren bidez. Errealitate birtuala bezala 360 graduko bistako gailuen bidez ikus badaiteste ere, nahikoa da –murgiltze sentsazio berdina eskaintzen ez badu ere– mugikor baten pantailarekin eta horrek daukan kamerarekin, adibidez. Elkarrekintza kasu hau errealitatearen gainean ikus daitezkeen objektu digitalekin gertatzen da, nolabait ikusten dugun errealitateari informazio digitaleko kapa bat gaineratuz.

Errealitate Mistorako (ingelesez *Mixed Reality*, MR), aldiz, gailu berezituagoak behar dira, errealitatearekin integrazio

osoa bilatzen baitu. ARn bezala, informazioa edo objektu digitalak kokatzen dira gure aurrean; baina erabateko integrazioa gertatzen da, horiek bertan egongo balira bezala ikusten ditugu, gurekin elkarreagin dezaketelarik. Betaurreko moduko gailuen bidez, errealitatea ikusteaz gain gure ingurua guztiz aldatu eta bertan elkarreagiteko aukera ematen digu teknologia honek.

Mugimendu naturalagoen bidez elkarrekintza ‘errealagoa’ izatea ere espero da. Oraindik aurrerapen maila horretara iritsi ez bagara ere, zenbait baliabide fisikok gure ekintzen aurrean erreakzionatzeko aukera ere izan dezakete, baldin eta horretarako prestatuak badaude.

Teknologia horiek guztiak erabiltzeko gailuak jada gure artean daude. Lehen pilotu kasko batean pentsatzen bagenuen, orain sakelakoa bere baitan sartzeko aukera ematen duten Googleren *Cardboard* kartoizko betaurreko merkeak, Samsung Gear VR edota Oculus Rift betaurreko aurreratuek erabil daitezke. Horiek denek errealitate berri hauetan esperimentatzeko aukera ematen badute ere, MR-ra iristeko bidea falta da oraindik.

Errealitate mistoa ikerketa fasean dago. Emaitza batzuk laster ikusten hasiko garen arren, oraindik denbora bat beharko dugu era honetako teknologiak hedatzen hasteko. Microsoft HoloLens eta bereziki Magic Leap ekimenak dira oraintxe garatuen daudenak, nahiz eta bigarren horren informazio askorik ez egon. Jasotzen ari diren inbertsioei begiraturaz gero, apustu izugarriak egiten ari dira batzuk teknologia horien alde. Aldaketa ez da berehalakoa izango, baina teknologia horrek aldaketa handia suposa dezake.

Ingurune itxietan, lantokietan edo etxeetan edonon pantaila bat izatea bezala litzateke, baina pantailen beharrik gabe. Ingurunea ere erabat alda dezake, tresna birtualak eta orain arteko konputagailuetako lan tresnak batera erabiltzeko aukera emanez, bideokonferentzia elkarreagile errealistagoak eginez edota atseginagoak zaizkigun inguruneak sortuz lanerako edo, besterik ez bada, egoteko.

Ingurune irekietan, aldiz, zailtasun gehiago izan ditzakete. Kontrolatzeko zailtasun gehiago dituen ingurunea izateaz gain, jendarteak dituen erresistentziak gainditu beharko ditu; baina, gaindituz gero, sakelako telefonoen pantailak ere desagerraraz ditzake.

Frogatuta dago teknologia horiek guztiak errealitatea hautemateko daukagun eraren antzeko sententzioak sortzeko gaitasuna dutela; gero eta errealagoak badira, gero eta zailagoa izango da errealitate fisiko eta birtualen arteko alde hori bereiztea. Bereizi behar ditugun edo tarteko kategoriak behar ditugun pentsatzen hasteko unea ere izan daiteke.

Teknologia ezberdinek etengabe aldatu izan dute gure jendartea; Internetek, aldiz, dena aldatu zuen. Orain arte ditugun gailuek esku artean jarri digute une oro Interneteko ezagutza guztia. Teknologia horiek, orain, une oro gutako bakoitzaren begi aurrean izango ditugu. Gure garunetik gero eta gertuago, guran sententzioak sortzeko gaitasun gero eta handiagoarekin.

Beti bezala, oraingoan ere zientzia fikzioak aurreratutako pasarte gogoangarriak eskaini zizkigun gaiari buruz. Neal Stephensonen *Snow Crash* eleberrian *metabertoak* (unibertso birtualak) ezagutzeko aukera izan bagenuen, Vernor Vinge-ren *Rainbows End* liburuak, aldiz, errealitate areagotu eta mistoaren egunerokotasuna nolakoa izan daitekeen erakutsi zigun.

Filosofian edo pentsamenduan ere zer pentsa ematen duten erreferentziak aurkitzea ez da zaila. Vladimir Vernadskik plano zientifikoago batean eta Pierre Teilhard de Chardinek plano filosofiko-teologikoagoan erabili zuten Noosferatik gero eta gertuago gaude. Geosferaren (materia bizigabea eta bere garapena) eta Biosferaren (izaki bizidunak eta beren garapena) ondoren Noosferaren fasea datorrela zioten. Gizakiak ezagutzaren bidez, ezagutzaren trukearen eta interkonexioaren ondorioz eta horren aplikazioaren kontrolerik sortutako fase berri bati buruz hitz egin zuten.

Urrun joan bagara ere, 'intelligentzia' artifiziala ere badela onartuta eta 'errealitate' hitzaren esanahia aldatu edo lausotu behar dugula sentitzen badugu, aldaketa handi bat bidean da.

Industria 4.0

Aurreko ziklo ekonomikoan IKT famatuei buruz hitz egiten egon bagara etengabe, aurrerantzean Industria 4.0, Gauzen Internet, Inteligentzia Artifiziala..., oro har automatizazio prozesuak ahalbidetuko dituzten teknologiez arituko gara gehiago.

Enpresan eta orokorrean jendartean, informazio eta komunikazio teknologien txertatzea izan da azken urteetako joera nagusia. Horrela, prozesuen kontrola eta kudeaketa hobea eta efizienteagoa bilatzen saiatu gara. Inbertsio gehienak bide horretatik izan dira eta esparru guztiak jo ditu, enpresetatik hasi, hezkuntza sistematik pasa eta erakunde publikoetaraino.

Urtetan bere emaitzak izan ditu, informazio kudeaketa eta komunikazio gaitasun handiagoak emaitza hobekak eman ditu; enpresa alorrean behintzat horrela izan da, egokitu direnentzako. Orain, aldiz, teknologia horietan inbertitzeak jada ez du espero izandako abantailarik ematen, mugara iritsi dira. Bidean, gainera, erantzun gabeko galdera asko utzi dituzte, Industria 4.0 deitu zaion honetan oraindik erantzun gabeko galdera asko.

Industria 4.0ra mugatuz, prozesu produktiboetan automatizazio eta analisiaren bidez prozesu produktibo horiek hobetzean oinarritutako industria teknologizatuari deituko genioke. Horretarako, automatizazio algoritmoak, errobotikaren ezarpena, inteligentzia artifizialaren erabilera edota datu analisirako mekanismoak txertatzen dira prozesu horietan. Helburua, ustezko efizientzia eta abantaila berrien bilaketa.

Informazio eta komunikazio teknologiek pertsonen arteko komunikazioetan eta informazio kudeaketan jokatutako paperak hobekuntzak ekarri bazituen, Industria 4.0 horrek makinek ia osorik kudeatzen dituzten prozesuetan eragin nahi du. Horrek, noski, eztabaida asko eta erantzun gabeko galdera asko uzten dizkigu airean: automatizazio prozesuek pertsona gutxiagorekin berdina produzitzea ekarriko dute? Nola ordezkaturiko ditugu, ordezkatu behar badira, lan horiek?

Langileen eta arduradunen paperak birformulatu behar ditugu? Lanaren izaeraren beraren eraldaketa bat suposatzen du horrek? Galdera asko eta erantzun gutxi.

Batzuek teknifikazioan arreta jartzea nahi badute ere, aldaketa horien dimentsioa askoz ere sakonagoa da. Eusko Jaurlaritzak berak hartutako bideak begirada berdina duela esango nuke. Pertsonen dimentsioa edo langileen ikuspuntua aztertzen badu ere, prozesu produktibo horietan beharko den pertsonen kualifikazioaz hitz egiten du soilik, ez horientzat suposatuko duenaz edo suposa dezakeenaz.

Langileen lana algoritmo eta automatizazioez ordezkatzeko bada, pertsonen lana ere aldatuko da. Batzuek lan horiek ordezkatzearekin amesten badute ere, behar berri asko ere sortzen dira aldi berean. Industrian aurreikusi ezin diren mila gauza gertatzen dira, eta oraindik ere pertsonen jakintza beharrezkoa izango da, beharbada inoiz baino gehiago. Automata edo inteligentzia artifizialeko programa baten jarrera hobetu, akatsak detektatu, horiek zuzendu eta optimizatuko dituenak baino balio handiagorik izango duen posturik ez da izango, eta hori oraingoz gizakiok bakarrik egin ahal izango dugu.


Hala ere, hori guztia ez da berria, eta, berriro ere iraultza baten aurrean gaudela esango badigute ere, aldaketa teknologiko bat gehiago izango da. Benetako iraultza edo aldaketa honetan legoke: teknologia horiek txertatzeak ekarriko lukeen denboraren eta lan produktibo, erreproduktibo eta denbora librearen banaketa berrian. Hau da, denbora erabilgarriaren banaketa ezberdina gertatuko balitz, botere harremanak aldatuko balira soilik gertatuko litzatekeena.

Marxek jendartean zerbait sortzeko gero eta lan gutxiago egin behar izatean aukera ikusten zuen pertsonentzako eta beren garapenerako denbora gehiago izateko. Keynesek ere orain arte gizakiak izandako arazo ekonomikoen amaiera ekarriko lukeen hiruzpalau orduko lan jardunaldia aurreikusten zuen 2030 urte ingururako. Horiek horrelako etorkizunak amesteko gai izan baziren, guri, posible egin ahal ditugunoi, gauzatzea besterik ez zaigu gelditzen. 🍷

JON MIRENA AGIRRE ARANDIAK
GRAMMY SARIA JASO DU,
ARTISTA ERREBELAZIO LEGEZ
INDIE-FOLK-TRASH ATALEAN,
IAZ ARGITARATUTAKO
"@” DISKOAGATIK .
KRITIKAK BELARRIEKIN
TXALOTU DU JON MIRENA
AGIRRE ARANDIAREN LANA,
"BEGIEKIN ENTZUTEKO"
MUSIKA DELA
ADIERAZIZ.




GALDERA BAT,
JON MIRENA...
SORTZEZ OBABAKOAZ IKAZI,
EZ AL DA BITXIA DISKOA
LIZBEKERAZ ETA INGELESEZ
(YIDDISHA TARTEKATUZ)
IDATZI IZANA?



NIRE SORKUNTZA DA
NIRE HIZKUNTZA.
SORTZETIKO AURREBALDINTZEI
IHES EGINEZ,
SENTSIBILITATEAREN
GEOGRAFIA DA INTERESATZEN
ZAIDANA, FONEMAZ
FONEMA OSATZEN DEN
PAISAIA ZABAL ETA HESIRIK
GABEA: LURRALDE ESTETIKO
BAT, TOPONIMIA PLASTIKOA
ETA KARTOGRAFIA MUSIKALA
ESKAINTZEN DUEN ABERRI
ARTISTIKOA...




HIZKUNTZAREN
AURREBALDINTZA
ERREDUKZIONISTA UKATZEN DUT,
UKATZEN DUDAN BER ARTE
DIZIPLINEN ARTEKO
BANALERRO KLASIKOA.
KAZETARIKO ETA HANKABIKO
ARRUNTEK DEFINIZIO
SAILKATUAK BEHAR IZATEN
DITUZUE BAINA KULTURA
BAT ETA BAKARRA DA
ETA HARI ZOR NATZAIO.



ETA ZER DERITZOZU
"JOSUNE & TXIRLAK"
TALDEAREN AZKENEKO
DISKOARI?



"EUSKAL KULTURAK"
ASPERTU EGITEN
NAU!



zugaz/
art

